

# Goienkaria

2008ko urtarrilaren 25a > Egubakoitza > VIII. urtea > 317. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Hasi ginen  
800 kilo  
plastiko biltzen  
eta egun 1.600  
batzen dugu"

**Mari Karmen Iturbe**  
Landa Garapenerako  
bulegoko arduraduna  
> 09



**G2a**

Bailarako musika  
eskolen saioa  
Soraluzen > 43-44

**TAXILARIAK**

Ibarreko taxilari gehienak ez datoz  
bat telefono bakarrarekin > 07

**ARETXABALETA**

Industria-mapa berrantolatze  
plana aztertzen hasi da Udala > 15

**ARAMAIO**

Untzillako errota zahar baten  
geroa zalantzan, AHT dela-eta > 38

**OSAKIDETZA** > GREBA

## Egun osoko greba Osakidetzan

Langileek deitu dute martitzenerako eta osasun etxe guztiei eragingo die > 04

**GIZARTEA** > AISIALDIA

## Auto karabanen bilkura

Sorbeltz elkarteak deituta 47 batuko dira, Oñatin, gaurtik domekara arte > 05

**OSASUNA** > EMATEAK

## Hezur-muina emateko ekimenak

Mankomunitateak bere egin ditu hezur-muina ematearen aldeko Iturrigorri elkarteak Osakidetzari egindako eskaera batzuk; batez ere, hezur-muin emateak bultzatzeko bideak erraz ditzan. Udalek ere aztertuko dituzte eskaerok, eta hautetsiak emaile egiteko ekimena ere abian da. > 07

**OSASUNA** > OSAKIDETZAREN GINEKOLOGIA ZERBITZUA

## Aldaketak egingo dira ginekologia azterketetan, zerbitzua arintzeko

**EMAGINAK** Haiek egingo dituzte ginekologia kontsulta arruntak eta gaixotasunik ez duten emakumeen zitologiak

**GINEKOLOGOAK** Arazoren bat duten emakumeak zuzenean atendituko dituzte, gehienez hilabete baten buruan

**URTE HASIERAN** Hilaren 7an sartu zen indarrean protokoloa, eta itxaron zerrendak murriztea da helburu nagusia > 02-03



PLAZAN Martitzen goizean izan zen Josu Uribe Aretxabaletan. Irudian, plazan egindako argazkia.

XABIER URTZELAI

## Josu Uribe: "Aitak erakutsi zigun herri hau maitatzen; hark bihotzean zuen Aretxabaleta"

ALAVES TALDEKO ENTRENATZAILEAREKIN JARDUN DUGU FUTBOLAZ ETA AITAREN JAIOTERRIAREKIN DUEN LOTURAZ > 40-41

**AURKIBIDEA**

Debagoiena > 04-08  
Elkarrizketa > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-42  
Kultura > 45  
Sailekuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

**AURIS**  
Toyota berria

Gidatu zure barrenak  
eramaten zaituen lekuraino,  
13.910 €-tik aurrera

**EuskoAuto**  
Olabarrena zig  
BERGARA  
943 76 23 85

**TOYOTA**  
www.euskoauto.toyota.es

BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

**SUPER AMARA**

**DENAK GUTXIAGO BALIO DU**

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

OSASUNA &gt; GINEKOLOGIA

# Aldaketak egingo dituzte ginekologia azterketetan, prozesua arintzeko

**EMAGINAK** Emaginek egingo dituzte aldiroko ginekologia kontsulta arruntak eta gaixotasunik ez duten emakumeen zitologiak

**GINEKOLOGOAK** Arazoren bat daukaten emakumeak zuzenean atendituko dituzte ginekologoek: odoletan daudenak, mina daukatenak...

**ZERBITZUA** Debagoieneko ospitalean langile eta kontsulta gehiago ipini dituzte, baina ibarreko anbulatorio gehienetan orain artekoan mantenduko dira

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ARRASATE

Debagoieneko ospitaleak protokolo berria abiarazi du ginekologia zerbitzuan. Helburua da ginekologia azterketetarako itxaron zerrendak arintzea. Horretarako, ginekologia azterketa arruntak, aldioro egiten diren zitologiak, emaginek egingo dituzte hemendik aurrera.

Badira urte batzuk Osakidetza abian ipini zuela umetokiko lepoko minbizia arin antzemateko programa. Sexualki aktiboak diren emakumeei egiten diete azterketa zitologia bidez, eurak baitira arriskua dutenak.

Debagoieneko ospitaleko ginekologia zerbitzuburu eta Euskal Antisorkuntza Elkarteke presidente Joserra Serranok esan digu zerbitzuaren asistentzia-kalitatea hobetzeko asmoz berrantolatatu behar izan dutela azterketak egiteko modua. "Orain gauza gehiago dakigu umetokiko lepoko minbiziari buruz. Badakigu nola maneiatu, teknika berriak ditugu diagnostika egiteko; hortaz, emakumeak bahetik pasatzeko modua ere aldatuz doa nolabait", azaldu digu.

EAEko ibar guztietan abian zen protokoloa orain ipini dute martxan gurean eta hilabeteren buruan beste lekuetan moduan funtzionatzea nahi dute. "Horrek ahalbidetuko digu galbahea pasatzea modu egokiagoan eta ginekologia zerbitzuan asistentzia-kalitatea hobetzea", dio Serrano doktoreak.

Horretarako, langile eta kontsulta kopurua handitu egin dutela jakinarazi digu. Hauxe dio hark: "Atzerapena hilabetetik gorakoa ez izatea nahi dugu arazo ginekologikoren bat baldin badago. Orain arte pilatu egiten ziren kasuak, eta hori jasangaitza zen", dio Joserra Serranok.

**BEREIZKETAK AZTERKETAN**

Protokolo horren arabera, urtebeteko tartean bi zitologia egin eta emaitzak negatiboak badira, hortik aurrerako azterketak hiru urtean behin egingo dira. Horretarako, emakumeek dagokien osasun zentroko emaginarengana edo ginekologoarengana jo beharko dute. Debagoieneko ospitalean eta ibarreko anbulatorioetan, hemendik aurrera, bereizi

**"Ginekologia arazoren bat dagoen kasuetan atzerapena hilabetetik gorakoa ez izatea nahi dugu; izan ere, orain arte pilatu egiten ziren kasuak, eta hori jasangaitza da"**

**"Emaginok zitologia teknikoak egingo ditugu: emakumeei mostra hartualdia egin zitologiarako. Hori aspaldiko kontua da eta emakumeek badakite zertan datzan"**

egingo dituzte emakume osasuntsuei egiten zaizkien aldiroko azterketak eta ginekologia kontsulta espezializatuak.

Debagoieneko ospitaleko ginekologo Maria Unamunoren esanetan, "emaginak ikusiko ditu gaixotasunik ez duten emakumeak edo lehenengo errebisiora datozenak. Emaginak zitologia egingo dio eta arazoren bat sumatuko balu ginekologoarengana bideratuko luke. Hori da bereizketa egiteko. Sintomarik ez daukan emakumea emaginarengana joan daiteke eta gugana etorriko da arazoren bat duena, odoletan dagoena, mina daukana..."

Ginekologia kontsulta gehienak azterketa arruntak direla adierazi digu Maria Unamunok. Hortaz, aldatetaren helburua da gaixo dauden edo arazo larriak dituzten emakumeei ahalik eta lasterren arreta ematea.

**EMAGINEK ZITOLOGIAK**

Bestalde, umetokiaren lepoko minbiziari aurre hartzeko egiten diren azterketez gain, emakumei zera gogorarazi nahi diete: adina gorabehera, edozein sintoma,



GINEKOLOGIA ZERBITZUA Maria Unamuno ginekologoarengana

ondoez edo patologia susmorik izanez gero, familia medikuarengana joateko. Hark dagokion tratamendua emango dio, edo larritasunaren arabera ginekologoarengana bideratu.

Protokolo horren harira, emaginek lan handiagoa egin beharko dute orain. Arrasaten beste

## Ohiko azterketak eta zitologiak

Debagoieneko ospitalean jakinarazi digutenez, urteko 4.100 ginekologia azterketa arrunt egiten da gutxi gorabehera. Emakume horiek lirateke ginekologia arazorik ez daukatenak.

Bestalde, urtean Debagoieneko ospitalean egiten den zitologia kopurua 3.000 da. Zitologia da emakumei hainbat gaitz diagnostikatzen proba. Zitologiak 18 urtetik aurrera egiten dira, eta 75 urtera arte.

## Bederatzi ginekologo ospitalean

Debagoieneko ospitaleko ginekologia zerbitzuan zazpi ginekologok dihardute lanean eta bederatzi emaginek. Azken horiek erditzeetan eta haurdunaldi kontrolatan jarduten dute. Ginekologoek ibarreko anbulatorioetan ere egiten dituzte kontsultak. Horietan lau emagin daude: Ana Aiastui Bergara, Antzuola eta Elgetarako; Txaro Arregi Arrasaterako (laguntzailearekin), Elena Garitano Oñatin eta Blanca Barrios Leintzen.

## Papiloma birusaren aurkako txertoa

Umetokiaren lepoko minbiziaren sortzaile papiloma birusa dela jakinda, horren aurkako txertoa atera da. Osakidetza txertoa ipiniko die 14 urteko neskatuei eskoletan, hepatitisaren aurkako txertoarekin batera. Gainontzekoek ere har dezakete nahi badute, baina euren kontura izango da. Hemendik urte batzuetara ikusiko da txertoaren eragina. Lau birusen aurkako da eta, beharbada, etorkizunean ez dugu zitologiarik egin beharko.

## Bularreko minbizia antzemateko probak

Bularreko minbizia antzemateko kanpaina berezia dauka Osakidetza. 50 eta 69 urte arteko emakumei etxera deitzen diete eta bi urtean behin mamografia egiten zaie. Adin horretatik beherako kasuan, familian minbizi kasuren bat izan bada gomendatzen diete aurrez egiteko. Gauza bera egiten dute ginekologoek edo emaginek zerbait sumatuz gero azterketa egiterakoan. Arazoren bat badago nahiko arin ibiltzen dira antzematerakoan.

## 'Emakumea eta osasuna' programa

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak *Emakumea eta osasuna* izenburupean programa berria ipini du abian. Programaren emakumeen ginekologia azterketak bultzatu eta horien gaineko informazioa emango die eurei. Horretaz gain, haurdunaldiko zaintza, erditze, bularreko minbizi eta menopausia gaitan maila gorena mantendu nahi dute osasun arloan gurean.

## Ginekologia - Emagina Ginecología - Matrona



goia, Joserra Serrano zerbitziburua eta Txaro Arregi emagina Arrasateko anbulatorioan.

IRATI AGIRREAZALDEGI

### PROTOKOLOA

#### > URTE HASIERATIK

Beste leku batzuetan orain dela asko hasi ziren arren, gure ibarrean urtarrilaren 7an sartu zen indarrean protokoloa. Minbiziaren Euskadiko Aholkularitza Kontseiluak ezarritako pausoak jarraitzen ditu. Horrek, era berean, Minbiziaren Prebentziorako Europar Batasuneko Batzordearen aholkuei eta Espainiako Osasun Sistemak minbiziaren gainean dituen estrategiei erreparatzen die.

#### > HIRU URTEAN BEHIN

Urtebeteko tartean bi zitologia egin eta emaitzak negatiboak badira, hau da, gaitzik antzematen ez bada, programa jarraituko dute. Baina zitologiaren arteko epea arrisku faktoreen arabera hiru eta bost urte artekoa izango da. Orain arte epeak zehaztu gabe zeuden zitologiak egiteko.

#### > EMAGINEN LANA

Orain arte ez bezala, emaginek ere egingo dituzte zitologiak hemendik aurrera. Gaixotasunik ez duten emakumeei zitologia egiteko mostrak hartzeaz arduratuko dira. Hortaz, ginekologia azterketa arruntak edo umetokiaren lepoko minbiziaren goiz sumatzeko zitologiak emaginek egingo dituzte; ginekologoen, berriz, kontsulta espezializatuak. Hala ere, horrek ez du eraginik izango emaginek orain arte eskaini dituzten zerbitzuetan; haurdun dauden emakumeen atentzioan, esaterako. Horretarako, Arrasaten emagin bat gehiago hartu dute egun erdirako, baina gainontzean ez dute oraindik gehiago kontratatuko. Oporretan edo norbait falta denean ibarreko gainontzeko herrietara jo behar du emaginaren beharra duenak.

#### > PROZESUA BIZKORTU

Itxaron zerrendak murriztea da protokoloaren helburuetariko bat. Gaixo dagoen emakume batek gehienez hamar egunen buruan ginekologoarekin txanda izango du. Azterketa edo kontsulta arruntan kasuan 15 egun eta hilaibeteko tartea itxaron beharko da gehienez emagina bisitatzeko. Horrela lortu nahi da, besteak beste, gazteengana errazago iristea. Antisorgailuen inguruko informazioa nahi duten gazteek edo pilula hartzen hasi nahi dutenek, esaterako, emagina azkarrago ikusi ahal izango dute.

emagin bat ipini dute, egun erdiz, lan handia dagoen egunetarako. Bergarako, Oñatiko eta Aretxabaletako emaginek, berriz, oraingoz ez dute laguntzarik jasoko.

Arrasateko anbulatorioko emagina da Txaro Arregi: "Emaginok zitologia teknikoak egingo ditugu, eta hori erraza da. Zitologiak ez badira normalak, orduan bideratuko ditugu ginekologoa-  
rengana. Gure lana izango da emakumei mostra hartualdia egitea zitologiarako; hori aspaldiko kontua da, eta emakumeek badakite zertan datzan. Ospitalean bertan orain dela 65 urte hasi ziren zitologiak egiten. Aldatu dena da orain arte ginekologoen bakarririk egiten zizutela zitologiak, eta orain guk ere egin beharko ditugu; bestalde, epeetan ere egon da aldaketa", esan digu.

Lan handiagoa izango duten galdetuta, hau azaldu digu: "Arrasaten orain arte ni bakarririk nengoen, eta, Arrasatek bizilagun asko dituen, beste emagin bat hasi da egun batzuetan egun erdiz, arratsalde". Lan handia-

goia izateak ez du eragingo gainontzeko emakumeen atentzioan: "Emaginok zitologiak egin arren, haurdun dauden emakumeen jarraipenean horrek ez du eraginik izango. Horretarako, behar dugun egunetara etorriko da beste emagin bat egun erdiz. Ibarreko gainontzeko anbulatorioetan dauden emaginek ere orain arte moduan jarraituko dute lanean".

#### ITXARON ZERRENDAK ARINDU

Serrano doktorearen esanetan, ginekologia zerbitzuak herritarrekiko duen konpromisoa da arazo ginekologikoren bat duten emakumeak ahalik eta arinen atentziaz: "Larrialdiren bat izanez gero, larrialdi zerbitzua dago egunero 24 orduan; lehenetsuz tratatu beharreko gaia bada, hamar egunen barruan emango dira hitzorduak;

eta bestelako arazorik izanez gero, hilaibete baten buruan ikusiko du ginekologoak gaixoa. Horretarako, agendak izan behar ditugu zerbitzu hori esan bezala eskaintzeko modukoak. Betiere, gainontzean zerbitzua kaltetu gabe".

Aldaketak aldaketa, ospitaletik gogorarazi dute ginekologia zerbitzuan emakumeenganako gertutasunak izango duela garrantzia.

**GOBE**

**ETXE-ALDAKETAK**

**Etxe-aldaketa osoak**

Altzariak eta materiala  
igotzeko karga-jasogailu  
alokairua gidariarekin.

Enpresa eta partikularrentzat

Tel.: 695 71 05 61

www.gorabera.com

## SSANGYONG ACTYON 4x4 BERRIA

Mercedes-Benz Motorrarekin: 200 Xdi 141 ZP

22.960 €-tik aurrera



**SSANGYONG**

**VERTIZ MOTOR**

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA  
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE  
Tel.: 943 46 92 99

POPULAZIOA &gt; JAIOTZA-KOPURUAK DEBAGOIENENKO OSPITALEAN

# Maila txikian bada ere, jaiotzek gora egin dute Debagoieneko ospitalean

Etorकिन etorreragatik eta hirugarren umea edukitzeagatik gertatu da gorakada

Bikien erditzeek gora egin dute eta, ondorioz, baita haur goiztiarrek ere

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; BERGARA

Emankortasuna modu nabarmenean suspertu da azken urteetan. EAEko datuen arabera, 2000. urtean zegoen maila %50 igo da. Ibarreko datuei begira jarrita, azken urteetan goranzko eboluzioa izan dute jaiotzek gurean ere. Hala ere, beste ospitale batzuekin alderatuta txikiagoa izan da eboluzio hori. "Donostiako ospitalean edo Mendarokoan baino txikiagoa izan da eboluzioa. 2007an 150 jaiotzatik pasatuko ginela uste genuen, baina ez da horrela izan", azaldu du Jose Ramon Serranok, Debagoieneko ospitaleko ginekologia-buruak.

ETORKINEN GORAKADA

Jaiotzen igoera, batez ere, etorkinengatik gertatu da. Gurera etorri diren emakume etorkinak haurrak izateko adinean egoteak ahalbideratu du igoera. Bes-

te faktore bat hirugarren haurra da. Bi haur baino gehiago izatea gero eta ohikoagoa da. Hori zergatik den galdetuta, zera dio Serranok: "Faktoreak asko izan daitezke, baina gure ustez, gaur egun dauden segurtasun sistemek zerikusi handia dute. Hirugarren haurra izaten duten emakumeen batez besteko adina 34 urtetik gorakoa da; horrek esan nahi du segurtasun osoz egiten dugula lan. Hala, emakumeak animatu egiten dira".

Etorkin kopurua igo dela kontuan hartuta, ohikoa da hauei begira zerbitzu bereziak jartzea. Debagoieneko ospitalean, baina, ez dute bereziki etorkinei zuzendutako zerbitzurik jarri. "Egoera berrira egokitu behar izan dugu, baina zerbitzu berezirik ez da jarri. Larrialdietan egin izan ditugu itzulpenak inoiz, eta, ohiko galderei erantzuteko baditugu esku-orriak. Baina ezer berezirik ez", gaineratu du Serranok.

## Jaiotza datuak eskualde ospitalean

URTEA	JAIOTAKO UMEAK
2000	488
2001	478
2002	485
2003	512
2004	507
2005	511
2006	547
2007	538

ITURRIA: DEBAGOIENENKO OSPITALEA

ZESAREA KASUAK, GORA

Azken urteetan gorakada nabarmena izan da zesarea kasuetan. Gurean, %15 baino gehiagokoa izan da zesareaz jaiotako haurren kopurua. Osakidetzaren helburua zesarea kopurua %15 izatea

da: "Asmo handiko helburua", dio Serranok. "Orain urtebete, %20 izan zen gure ospitaleko datua; hala, neurri zehatzak hartu behar izan genituen maila hori jaisteko. Bestalde, esan behar da Estatu mailan %22 dela zesareaz jaiotako haurren kopurua", gaineratu du. Bi arrazoi daude igoera hori arrazoitzeko: batetik, patologia kopurua handitu egin da eta, bestalde, aurre-zesarea gehiago egiten da orain.

"Garrantzitsua da esatea, gurean, zesareaz jaiotzen direla ipurdiz datozen haurrak bakarrik. Eskaintzen dugun beste aukera bat da kanpoko bertsioa. Hori Donostiako ospitalean egiten da, eta honakoan datza: ipurdiz datorren haurrari buelta ematen zaio eta posizio egokian jartzen da. Hori guztia kanpotik egiten da", azaldu du Serranok. Ospitale pribatuetan, zesarea datuak handiagoak dira: %28 ingurukoak.

Bikien jaiotzek ere gora egin dute; bereziki, lagunduriko ugalketa delako teknikaren ondorioz sortutako haurdunaldien eraginagatik izan da gorakada. Erditze biki gehienak Donostian egiten dira; Arrasaten, azken momentukoak bakarrik. 37. astea baino lehenago badator umea, Donostiara bideratzen dute emakumea.

Biki gehiago jaiotzearen ondorioz, ume goiztiarren jaiotzek ere gora egin dute. Bestalde, emakumeak haurra izaten duen adina (lehen haurra 31 urterekin) ere igo egin da eta hori oso faktore garrantzitsua da. Emakumea zenbat eta nagusiagoa izan, haur goiztiarra jaiotzeko arriskua handiagoa izaten da.

ERDITZE NATURALA

Emakumeen gehiengoak eskatzen du gaur egun epidurala jartzea; ospitalearen helburua "eskatzen duten guztiei jartzea da". Baina gerta daiteke emakumeak eskatu izan arren, ezin ipini izana. "Arrazoiak? Momentu berean erditze asko egotea izan daiteke bat, eta, anestesista bakarra daukagunez, momentuan beste zeregin batean egotea. Baina eskatzen duten %98ri jarri egiten zaie".

Etorkezunean erditzea ahalik eta naturalena egitea da Debagoieneko ospitalearen helburua. Neurri horiek ospitale berriari begira jarriko dituzte.

ESANAK

"Gaur egun ospitalean ditugun segurtasun sistemek zerikusi handia dute bikote asko hirugarren haurra ekartzera animatzeko orduan"

"Etorkin kopuruak gora egin duen neurrian, egoera berrira egokitu behar izan dugu; baina ez da neurri berezirik jarri etorkinentzat"

"Lagunduriko ugalketaren ondorioz biki gehiago jaio da azkenaldian; ondorioz, ume goiztiarren jaiotzek ere gora egin dute"

OSAKIDETZA &gt; MOBILIZAZIOAK

# Martitzenerako, zentro guztietan, 24 orduko greba deitu dute sindikatuek

Eusko Jaurlaritzak abenduaren 26an onartutako dekretuak salatu nahi dituzte sindikatuek

Otsaileko sei egunetan bi orduko lanuzteak egingo dituzte, goizez eta arratsaldez

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Azken hilebeotan egiten diharduten negoziazioek esperotako emaitzarik eman ez dutela kontuan hartuta, ELA, SATSE, LAB, CCOO, ESK, UTESE eta SAE sindikatuek egun osoko greba iragarri dute urtarrilaren 29rako. Hala, deialdia Osakidetzako zentro guztietara egin dute: osasun zentro zein ospitaleetara. Datorren martitzenerako deitu duten greba egun osokoa izango da.

DEKRETU "INPOSATUAK"

Eusko Jaurlaritzak abenduaren 26an dekretu bidez onartu zituen 2009ra arte Osakidetzako langileen lan baldintzak. Erabaki hura "inposiziotzat" hartu zuten sindikatuek, eta salatzeke, hamabost minutuko hainbat lanuzte egin dituzte urtarrilean zehar. Era berean, Eusko Jaurlaritzak onartutako dekretuarekin negoziazioak "bertan behera" uztea leporatu diote Osakidetzari.

Gainera, *Negoziatu arte borrokatu*ko dugu lelopean kaleratu duten oharrean gaineratzen dute abenduko dekretuak medikuen eskakizunak bakarrik hartzen dituela kontuan, "gainontzeko langileen baldintzei kasu egin barik".

Eusko Jaurlaritzak onartutako bigarren dekretuak, karrera profesionalaren ingurukoak, aldi baterako langileen eta langile finkoen artean "desberdintasunak" sortzen dituela salatzen dute.

Horregatik guztiagatik, mobilizazioekin jarraitzeko erabakia hartu dute. Hala, datorren astean egingo duten grebaren ondoren, otsailaren 12an, 14an, 19an, 21ean, 26an eta 28an bi orduko lanuzteak egingo dituzte, goizez eta arratsaldez,



LANUZTEA Argazkian, atzo goizean egindako lanuzteko une bat.

M.B.



BERGARA Taxi gidarien erdiak bakarrik onartu du telefono bakarra, Bergaran.

MIREIA BIKUÑA

TAXIAK > TELEFONO BAKARRA

## Ibarreko taxilariek ez dute nahi sistema berria

Debagoienean dauden 37 taxi gidarietatik hamalau sartu dira oraingoz telefono bakarreko sistemaren barruan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Abenduaren 3an jarri zen martxan taxi telefono bakarra (943 40 05 00) Gipuzkoako herrietan; hartarako, zerbitzuarekin bat egin duten taxi gidariak gailu bat jarri dute autoetan.

Debagoieneko herrietan, esaterako, taxi gidari gehienek ez dute bat egin zerbitzu berriarekin: 37 gidarietatik 14 sartu dira oraingoz sistema berrian. Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Oñatiko taxi gidari guztiek esan diote ezetz telefono bakarrari. Aldiz, Bergaran eta Arrasaten gidarien

erdiak dihardute lanean sistema berriarekin. Gidari bakoitzak bere kasa hartutako erabakia izan da.

**BI ERABAKI**

Arrasateko geltokian zerbitzua ematen duen Jose Luis Gorroñok ez du onartu sistema berria, haren ustez gidariei "onurak baino kalte gehiago" ekarriko dizkie-eta. "Agitaxek, Gipuzkoako Taxi Elkarteak, gidari autonomoen merkatuan sartu gura du, eta hala bada, gu izango gara galtzaila", azpimarratu digu.

Bestalde, Jesus Moreno bergararra dagoeneko lanean dago sistema berriarekin: "Guretzako etorkizuna da; lan egiteko sistema ona da; hala, erabiltzaileei zerbitzua bermatzen diegu", azaldu digu.

Telefono bakarrak erantzun oso ona izan du Donosti aldeko herrietan, "jendea ohituta" dago-eta. "Edozelan ere, Debagoienean astiroago goaz", esan digu Morenok.

**FORU ALDUNDIA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu du bere gain telefono bakarra ezartzeko aurrekontuaren zatirik handiena: 2007an 830.000 euro jarri zituen, eta 2008an 995.000 euro; besteak beste, taxi gidarien igorle-aparailuak kudeatzeko.

KONTZENTRAZIOA > SORBELTZ ELKARTEA

## Gaurtik, auto karabanen bilkura egingo dute Oñatin

Sorbeltz auto karabana erabiltzaileen elkarteak egin duen kontzentrazioa 47 auto karabana datoz

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Sorbeltz auto karabana erabiltzaileen euskal elkarteak Oñati aukeratu du urteko batzar arrunta eta ezohiko batzarra egiteko. Hortaz, gaur arratsaldetik domekara arte kontzentrazioa egingo dute. Era berean, hainbat bisita gidatu egingo dituzte Oñatin eta Arantzazun.

**IBARRA FUTBOL ZELAIAN**

Eguerdia aldera iritsiko dira lehen auto karabanak Ibarra futbol zelaiako aparkalekura. Sorbeltz elkarteak bazkideen artean egindako deialdiaren arabera, 47 auto karabana espero dira Oñatin.

Gaurko gaua Ibarra aparkalekuan egingo dute, eta bihar goizeko bederatzietan bisita gidatua egingo dute unibertitatean eta parrokiak; eta ondoren, kultura etxean bilduko dira bi batzarra egiteko. Alde batetik, urteko batzar arrunta egingo dute, eta bereziki 2007ko datuak aztertuko dituzte: elkar-tearen diru kontua eta iaz egindako irteeren txostena, besteak beste.

Beste alde batetik, ezohiko batzarra egingo dute Sorbeltz elkarteak bazkideek. Ezohiko bileran estatutu batzuk aldatuko dituzte, eta elkarteak batzordeko presidente, diruzain eta

ordezkari berriak aukeratu, elkarteak sortu zutenean behin-behineko batzordeko kideak aukeratu zituzten-eta.

Bilerak bukatu ondoren, Arantzazu aldera egingo dute. Goiko Benta jatetxean afaldu ostean, gaua Arantzazuko aparkalekuan emango dute.

Domekan, goizeko hamar eta erdietan santutegian bisita gidatua egingo dute, eta jarraian, aste bukaerari bukaera emateko, Arrikruzeko kobak ikustera joango dira.

**ESKUBIDEAK BERMATU NAHI**

Sorbeltz elkarteak 2006ko azaroan sortu zuten. Auto karabana erabiltzaileen euskal elkartearen helburu nagusia auto karabana erabiltzaileen eskubidea bermatzea da.

Egun, 100 bazkide inguru ditu elkarteak; gehienak Arabakoak, Gipuzkoakoak eta Bizkaikoak dira; baina Kantabria eta Asturiasko kideak ere badaude.

Debagoieneko erabiltzaileei dagokienez, bazkide bakarra dago Sorbeltz elkartearen: Bergarako erabiltzaile bat, hain zuzen. Ibarreko gainontzeko herrietako bazkiderik ez dago.

Hala ere, auto karabana duen edozeinek du aukera Sorbeltz elkarteak bazkide izateko. Elkartearen inguruko informazioa emateko webgune bat dute: [www.sorbeltz.org](http://www.sorbeltz.org).

Gune horretan, askotariko informazioa ematen da eta bigarren eskuko auto karabanen eskaintza dago; Europan dauden aparkalekuen berri ematen da; eta ibilgailuan eroan behar den botikina nola antolatu azaltzen da, besteak beste.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

EUSKARA &gt; 'ZATOZ EUSKARAZ' EKIMENAREN BALORAZIOA

# Ibarreko udaletako zinegotzi euskaldunen kopuruak gora egin du

2003-2007 agintaldian 80 ziren zinegotzi euskaldunak, 2007-2011 agintaldian, 95

'Zatoz euskaraz' ekimenaren helburua izan da udal euskaldunagoak izatea

JASONE ZABALA > BERGARA

2007ko maiatzean udal hauteskundeak egiteko zirela eta, otsailan *Zatoz euskaraz* ekimena jarri zuten martxan Debagoieneko udaletako eta Mankomunitateko euskara zerbitzuek. Egitasmo horren helburua hauxe zen: udaletan aurkeztu behar ziren alderdi politikoen ordezkariak euskaldunak izatea, batetik; eta, herritarrek udalekin dituzten harremanetan euskara erabilteza, bestetik.

Dagoeneko aukeratuta daude eta lanean hasita ere hurrengo lau urteetarako udaletako ordezkari politikoak. Agintaldi honetan zehar zinegotziok esku

artean era askotako gaiak izango badituzte ere, Debagoieneko udaletako hizkuntza politika azpimarratu behar da. Udal barrura begirakoa eta baita udal-lerrii begirakoa, eta bietan ere zeresan handia du ordezkari politikoen hizkuntza gaitasunak eta hizkuntza normalizazioarekiko jarrerak.

## BALORAZIOA

Gure bailarari dagokionez, asko hazi da zinegotzi euskaldunen kopurua. 2003-2007 agintaldian 80 zinegotzi euskaldun ziren gure udaletan; 2007-2011 agintaldian, berriz, 95. Herriz herri, bestalde, guztietan egin du gora zinegotzi euskaldunen kopuruak, Aramaion izan ezik. Aretxabaletan ez da aldaketarik izan.

Portzentaieie dagokienez, Debagoienean, zinegotzien %88 da euskalduna. Alderdika begiraturaz gero, EAEn, EAn, Zutiken eta Independenteen taldean zinegotzi guztiak euskaldunak dira. Kopuru aldetik, erdaldun gehien dituen alderdia PSE-EE da, hiru zinegotzi baitira erdaldunak. Aipatzekoa da, bestalde, EAJ eta Aralarrek zinegotzi bana erdalduna dutela. Balorazio hauetan Leintz Gatzaga ez sartzearen arrazoia, hauxe izan da, Arrasateko Udaleko Euskara teknikari Joxe Felix Diaz de Tuestaren esanetan: "Balorazioan ez dugu Leintz Gatzagako herria sartu, bertan ez baitago euskara teknikaririk eta jakin badakigulako herritarrek aukeratutako zerrenda bakarra aurkezten dela herrian". Diaz de Tuestaren esanetan, "lanean jarraitu behar da, batez beste koek erakutsi diguten hau praktikara eramanez, hau da, euskaraz eginez. Datozen hauteskunde orokorreari begira ez dugu halako ekimenik egingo, gure eremutik kanpo gelditzen delako".

## Zinegotzi euskaldunen kopurua, herriz-herri

	2003-2007			2007 - 2011		
	EUSKALDUNAK	IA EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK	EUSKALDUNAK	IA EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK
Antzuola	8	0	1	10	1	0
Aramaio	9	0	0	7	2	0
Aretxabaleta	10	0	3	10	0	3
Arrasate	10	3	7	20	0	1
Bergara	15	0	2	16	0	1
Elgeta	7	0	0	9	0	0
Eskoriatza	7	0	4	9	0	2
Oñati	14	1	2	14	2	1
<b>Debagoiena</b>	<b>80 (%78)</b>	<b>4 (%4)</b>	<b>19 (%18)</b>	<b>95 (%88)</b>	<b>5 (%5)</b>	<b>8 (%7)</b>

ITURRIA: DEBAGOIENEN UDALAK ETA MANKOMUNITATEKO EUSKARA ZERBITZUAK

## Zinegotzi euskaldunen kopurua, alderdika

	2007 - 2011		
	EUSKALDUNAK	IA EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK
EAE	29 (%100)	0 (%0)	0 (0%)
EAJ	25 (%89)	2 (%2)	1 (%1)
EA	11 (%100)	0 (%0)	0 (%0)
PSE-EE	6 (%55)	2 (%18)	3 (%27)
Aralar	12 (%92)	0 (%0)	1 (%8)
EB	5 (%63)	1 (%13)	2 (%25)
Zutik	2 (%100)	0 (%0)	0 (%0)
PP	1 (%50)	0 (%0)	1 (%50)
Independenteak	4 (%100)	0 (%0)	0 (%0)
<b>Debagoiena</b>	<b>63.879</b>	<b>5 (%5)</b>	<b>8 (%8)</b>

ITURRIA: DEBAGOIENEN UDALAK ETA MANKOMUNITATEKO EUSKARA ZERBITZUAK

EUSKARA &gt; EUSKARA ELKARTEEN EGOERA AZTERGAI

# Debagunek etorkizuna izan du mintzagai

Urtarrilaren 22an egin zuten bilera bailarako euskara elkarteek etorkizunaz berba egiteko

Helburuak Debaguneren etorkizuna finkatzea eta jarraitu beharreko ildoak ezartzea izan ziren

JASONE ZABALA > BERGARA

Pasa den urtarrilaren 22an, Debagoieneko euskara elkarteak batu ziren Debagunek deituta. Bileran, Goiena, Goibeko, Loramendi, Jardun, Txatxilipurdi, Laixan eta AEDko kideak egon ziren, baita Topaguneko zuzendari Jasone Mendizabal, eta Gipuzkoako sustatzaile Manuel Moreno ere. Bileraren helburua honakoa zen: udazkenean egindako mintegiko ondorioak elkarte guztiei jakinaraztea, eta beraien iritziekin berrestea; hau da, Debaguneren etorkizuna finkatu eta jarraitu beharreko ildoak ezartzea, hain zuzen ere. Lehentasunen artean, euskara elkarten egoeraren

azterketa zegoen, Debagoieneko herri batzuetako euskara elkarten egoera ez delako ona. Horregatik, garrantzitsua deritzo Debagunek herri bakoitzean egitura egonkor bat edukitzea, eta egoera horri buelta eman nahi dio.

## HARTUTAKO ERABAKIAK

Alde batetik, sendoago funtzionatzaren duten elkarteek beste elkarte horiek indartzen lagunduko dute, eta Topaguneko ere lagunduko du, baina maila teknikoagoan.

Bestalde, udazkenean egin zen mintegian, lau lan ildotan lan egitea erabaki zen, eta hori ere aste honetan izandako bilera

berretsi zuten. Aipatutako ildotan, alde batetik, zerbitzuak daude: ikastolen jaietarako antolatzen diren autobusak, urtero abenduan ateratzen den egutegia... Bigarren ildoak hedabideena izango litzateke, euskara elkarteek Goienako egitura daukaten parte-hartzea sendotzeko.

Hor badaude beste bi ildo ere: alde batetik, sentsibilizazioa; hau da, Euskararen Eguna eta euskararen erabileraren aldeko kanpainak bultzatzea. Laugarren lan ildoak haur eta gazteak dira. Azken hau lan ildo berria da. Orain egin beharrekoa, lan ildo guztiak ondo definitu eta lanean jartzea da, Debagoieneko herrietako euskara elkarteak sendotzeko bide horretan.

Sendotze eta bultzatze prozesuari otsailean bertan ekingo diote. Horretarako, pertsona bat kontratatuko dute helburu horiek aurrera eramateko eta bailarako euskara elkarteak berpizteko asmoarekin.



SENDOTZEA Debagoieneko euskara elkarteak sendotzea da helburua.

OSASUNA &gt; HEZUR-MUIN EMATEAK

# Mankomunitateak eskatu du hezur-muina ematea errazteko

Hezur-muina ematearen aldeko elkarteak Osakidetzari egiten dizkion eskaera batzuk bere egin ditu Mankomunitateak

**LEIRE KORTABARRIA > BERGARA**  
Iturri gorri Elkarlanak, hezur-muina ematearen aldeko elkarteak, ondo ikusi du Debagoieneko Mankomunitateak bere egin izana Iturri gorri Osakidetzari egindako eskaera batzuk. Mankomunitatearen Gobernu Batzarrek bere urtarileko bileran, hilaren 16an, hartu zuen erabaki hori. Eskaerak hauek dira: Osakidetzak Iturri gorri Elkarlanari hezur-muina ematearen inguruko informazio estatistikoa eman diezaiola, bere jarduerarako balia garria zaiolako -hezur-muin transplanteari lotutako gaixotasunei buruzko datuak, hezur-muin emaile kopu-

ruari buruzkoa, zain dauden gaixo kopuruari buruzkoa, tratamenduaren kostuari buruzkoa... Bestetik, hezur-muin emaileak egin ahal izateko zerbitzua Eskualdeko Ospitalera ekar dezala; odol-emaileen elkarteak lan-tegi eta herrietara datozenean, hezur-muin emaile izan ahal izateko odol-ateratzea eta elkarrizketa emateko aukera ere eman dezatela; Egute txartela kentzea eta hori dutenei jakinaraztea ez direla hezur-muin emaile; eta Osakidetzak hezur-muin emaile

DATUA

# 2.000

EMAILE

Euskal Herri osoan, gaur egun, 2.000 hezur-muin emaile besterik ez dago. Gaixoaren hezur-muin mota berbera izatea oso zaila denez, 100 emailetik bik bakarrik emango dute hezur-muina.

izan nahi dutenei egin beharreko analisi genetikoak egiteko ahalmena handitzea.

Eskaerok batzen dituen moziobat eztabaidatuko du Debagoieneko Udal bakoitzak; Arrasatekoak onartuta dauka. Azkenik, Mankomunitatearen otsaileko batzarren egunean, hilaren 20an, hezur-muin emaile egin diren Debagoieneko udal hautesi guztiek agerraldia egingo dute.

## ITXAROPENA

Iturri gorriko ordezkariak ondo hartu dute erakundeek euren eskaerak babestea, eta Udalekin lanean jarraituko dutela esan dute. Gaineratu dute badutela itxaropena Osakidetzak euren eskaerak entzun eta erraztasunak ipiniko dituela. Iturri gorriren esanetan, Euskal Herrian beharrezkoak dira emaile gehiago, izan ere, transplantea jaso behar duenaren hezur-muin mota berbera izatea oso zaila da; horregatik, ematera gertu dagoen batek %2 aukera bakarrik ditu benetan inoiz emaile izateko.

## kontsumoa



Eztia, fruitu lehorrak eta ardoa kontsumitzen dira gehien. GOIENKARIA

## Estatuko familiek janarian egiten duten gastua % 5,5 igo da

**JASONE ZABALA > BERGARA**

Eztia, fruitu lehorrak eta jatorrizko deiturako ardoak dira gehien garestitu direnak. 2006ko urria eta 2007ko iraila bitartean, estatuko familiek 61.637 milioi euro gastatu zuten janarian. Aurreko epe berarekin alderatuz, %5,5eko igoera adierazten du horrek. Pasa den irailean, estatuan familiek 5.096 milioi euro gastatu zuten janarian, 2006ko irailean baino %4,7 gehiago. Irailean, kontsumo aldetik igoera handiena izan zuten produktuak ondorengoak izan ziren: eztia %23,1 gehiago, 0,42 litro pertsonako; fruitu lehorrak %7,7 gehiago, eta 2,6 kilo pertsonako, eta jatorrizko deiturako ardoak, %7,2 gehiago, 2,67 litro pertsonako.

Kontsumo jaitsiera izan duten produktuen artean, mahaiko ardoak daude; hauen kontsumoa %10 jaitsi da, pertsona bakoitzeko 7,1 litroko kontsumoarekin. Ekilore olioak %1,6ko jaitsiera izan du, eta esneak %1,1eko jaitsiera, hain justu ere.

POLITIKA &gt; FORU AURREKONTUAK

## Foru aurrekontuak "aurrerakoiago eta sozialago" egin dituela esan du Aralarrek

"Gizarteak igarriko ditu aurrekontuetan eragin dugun aldaketa", esan zuen Rebeka Ubera Aralarreko ordezkariak

**L.K. > ARETXABALETA**

Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekontuei Aralarrek "izaera sozialagoa eta aurrerakoiagoa" eman diela esan du alderdi horrek, eta arrazoi horiek eman

ditu aurrekontuoi baietza eman izana azaltzeko. Halaxe esan zuen Rebeka Ubera Batzar Nagusiatako Aralarreko bozeramaileak prentsaurrekoan, Aretxabaletan.

### BERROGEI ZUZENKETA

Uberaren esanetan, "lortu dugu aurrekontuei babesa emateko moduko aldaketa eragitea, eta gizarteak igarriko du hori".

Guztira, 35 milioiko aurrekontuetan, 40 zuzenketa negoziatu dituztela gogorarazi zuen Uberak: politika sozialetan, buruko gaixoei laguntzeko, SOS Arrazakeriarako eta umeak adoptatze-

ko elkarteari bideratutako diru-laguntzak azpimarratu ditu; euskararen, Udal Euskaldunen Mankomunitateari eta Udako Euskal Unibertsitateari emandako bultzada; sexu berdintasunean, Gipuzkoako berdintasunerako kontseilua sortzeko lana hasi dela eta eskualdeka ere lanean dabiltzala esan zuen; ingurumenean, konpostaje plantak bultzatu dituztela; garraio publikoaren alde egin behar dela ere esan zuen, eta aurrekontuen proiektuan ia guztiz sartu den Garraio Plana aurkeztu zutela gogorarazi zuen Uberak.

POLIZIA OPERAZIOA &gt; ATXILOKETA

## Huheziko ikasle atxilotuaren giza eskubideen jarraipen zehatza egingo du fakultateak

Huheziko ikasle Iban Etxebarria martitzen goizaldean atxilotu zuen Espainiako Poliziak, kale erasoak egin dituelakoan

**U.A./L.K. > ESKORIATZA**

Iban Etxebarria Eskoriatzako Huhezi fakultateko 21 urteko ikasle markinarra atxilotu dutela-eta, "torturatua izateko dagoen arriskuagatik kezka" adierazi du Huheziko, eta "fakultate moduan gure ikaslearen giza eskubideen jarraipen zehatza" egingo duela esan du. Era berean, gaztearen "ustezko errugabe-

tasuna uneoro bermatzea" eskatu diete hedabideei eta eragileei. Huheziko ikasleek Etxebarria aske uzteko eskatzeko agerraldia egin zuten eguaztenean.

Etxebarria martitzeneko 04:15 aldera atxilotu zuen Espainiako Poliziak, kale erasoak egin dituelakoan. Eskoriatzako etxebizitza erregistratu zuten, eta hainbat gauza eramane zituzten.



## Etxeen alokairu prezioak %4,2 igo dira azken urtean

Katalunia, Aragoi eta Madrilgo erkidegoetan garestitu dira gehien prezioak.

Azken 12 hilabeteetan, alokairuko etxeen prezioek %4,2 egin dute gora, urteko inflazio tasak bezala, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) emandako datuen arabera. Autonomiei dagokienez, salneurrian igoera gutxien izan duen autonomia Kantabria izan da. Galizian inflazioa bezala. Katalunian, Aragoi eta Madrilgo erkidegoak gora egin dute.



## Elektrizitatea, gasa eta garraioak garestiagoak dira

Urtarrilaren 2a ezker, elektrizitatea, gasa eta garraioak garestiagoak dira. Kasu gehienetan, igoerak inflazioa baino txikiagoak dira. Horrela, azken datuen arabera, igoera hau %4,1 izan da.

Zehazki, elektrizitatea, %3,3 igo da. Gasari dagokionez ere, igoera % 4,93 izan da, 0,51 euro kilowatteko. Garraioak ere igo egin dituzte salneurriak. Horrela, adibidez, errepideko garraioak publikoak % 4,1 igo dituzte beraien salneurriak.

## gure artekoak

**SKODA OCTAVIA SCOUT** > Lau gurpiletan du trakzioa autoak; horri esker, edozein lurretan erabil daiteke. Familia guztiarentzat pentsatuta dago autoa eta segurtasun sistema guztiak ditu Skoda Scout berriak.

Felix Elortza > Udalaitez etxeko arduraduna

## "Hirian nahiz mendian ibiltzeko auto egokia da"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Urtebete da Scoda etxeak Scout berria aurkeztu zuela. Octavia Combi autoaren hurrengoa da; bertsio familiarra, hain zuzen.

Felix Elortza Arrasateko Udalaitez kontzesionarioko arduradunak honela berba egin du automobil berriaren gainean: "Scoda etxeak segurtasuna bermatu gura izan du auto berriarekin; egonkortasuna, segurtasuna eta fidagarritasuna dira autoaren hiru dohain adierazgarrienak".

Segurtasunari dagokionez, aipatzekoa da, bestalde, neurri guztiak dituela: zortzi airbag, ABS, HBA, ASR eta beste hainbat. Gainera, atzerako ispiluan argi intermitenteak ipini dituzte; eta, xenon argiegi esker, egoera txarretan ere bidea garbi ikusten da.

### AUTOHOLD SISTEMA

"Puntako teknologia du autoak; aipagarriena autohold sistema berria da. Horri esker, autoa denbora luzeagoan geldu egon daiteke; hau da, oina balaztapedaletik kendu arren, autoa ez da mugitzen. Behin oina azele-ragailuan jartzean, orduan desaktibatzen da balazta sistema", azaldu du Elortzarak.

Motorrari dagokionez, bi motor aukera eskaintzen du



Felix Elortza, Skoda Scout autoarekin.

A.E.

### Skoda Scout 2.0 TDI 140 ZP

Prezioa	27,500 euro
Luzera	4,58 metro
Zabalera	1,78 metro
Maletategia	580 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	6,4 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	197 km/h <sup>(3)</sup>
Otik 100era	10,2 seg.
CO2 isurketak	173 g/km

(1) Gehienezko edukiera  
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta  
(3) Gehienezko abiadura

Scout autoak: gasolinazko bat (2.0 FSI, 150ZP) eta dieselezko beste bat (2.0 TDI, 140 ZP). Sei abiadura ditu autoak.

### LAU GURPILELAN DU TRAKZIOA

Familia guztiarentzat pentsatutako autoa da Scout berria; barruan zabaltasun handia du (1.620 litro har dezake maletategiak). Hirian ibiltzeko egokia, eta baita basora joateko ere; izan ere, lau gurpiletan du trakzioa autoak. Lurretik autoaren behealdera 18 zentimetrotako distantzia dago eta hagunek 17 hazbeteko diametroa dute.

## etxeko leihotik



Iban Arantzabal > Goienako ikus-entzunekoen zuzendaria

## Mundua ez da Pirritx eta Porrotxe(ki)n amaitzen

Astian emon dogu Pirritx eta Porrotxen gaiñeko albistia GOITBn. Bueno, Pirritx eta Porrotx ikusteko sarre-  
ra salmentia izan da albiste, zehatzago izateko. Izan da hiru ordu illaria egiten egon danik, ehunka lagun ikusi ditud Bergarako frontoiaren aurrian illaria zaintzen eta gehixenak seiña sarrera erosten: topia. Bergarakuak, Elgetakuak, Antzuolakuak... jende asko paillazo gosez, ezta?

Jentia jentia erakartzen dabenik ezin ukatu, baiña... ez ete ditudugu paillazuak Jainkotu? Ixa 1.800 sarrera dare salduta aurrez, eta akabo sarre-  
rak! Espektakulua ez da duan ez, eta pozten naiz duan ez izatiaz ze kale egiten dabe erakundiek ikuskizunak kostau egiten dirala erakusten.

Illarakuek badakixe, hala eta be, antzerki maillia ona dala hemen? Baiña fan ete dira *Pizti domatzailea* ikustera? edo *Galipotx*, *Titirikontu-kontari*, *Handitan*, *Ni ez naiz txotxolo*, *Cantervilleko mamua*, *Wendyren zabua*, *Xurdir*, *Txio txioka*, *Ino*, *Ino*, *Ino... badator Bonbardino!*, *Egizulo Tartalo*... Familixantzerkixok merezi dabe gure berotasuna, baiña antzeztokixak triste dare, butakak hutsik.

**"Ez ete ditudugu paillazuak Jainkotu? Ixa 1.800 sarrera dare salduta..."**

**> Aitortu deidan:**  
Pirritx eta Porrotxen fansa naiz. Beti pasau izan dot ondo emanaldi-xetan. Kamiseta zurixa eta urdiña be badakidaz, dantzan egindda nago Porrotxeekin, Pirritx ezaguna dot...

**> Zorteduna naiz ze familixa antzerkixekin be gozatu egiten dot.** Asko gustatzen jataz eta sufri-  
du egiten dot nagusixak ikusten ez ditudunian umiekin. Probatzeko gonbitta egingo notseke guraso modernuei.

## begi-bistan



### Sarrerak erosteko ilara oso luzeak! (Bergara) 2008/01/22

Argazkia: Arantzazu Ezkibel.  
Testua: Mireia Bikuña.

Bergaran ere hegan egin dute Pirritx eta Porrotxerako sarrerek. Ordubetean, lehen saiorako sarrera guztiak salduta zeuden (876). Bigarrenarako 20 baino ez ziren geratu, lehen egunean. Salduta daude.

### Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Igone Velez Isasmendi**

IKERLARIA



**Ivan Velasco**

TXIRRINDULARIA



**Aritz Larrinaga**

MARRAZKIGILEA

Arrasateko ikerlariak *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak banatzen duen *Haizeberria* saria jaso du, berrikuntza atalean, nagusiei zuzendutako *Confidence* proiektuarengatik. Igone Velez Nafarroako Unibertsitateko ikerketa zentroko kidea da.

Euskaltel Euskadiko txirrindulari arrasatearrak Australian hasi du denboraldia, Tour Down Under proban dihardu domekara arte.

Bestalde, talde bereko Markel Irizar oñatiarrak Valentziako itzulia hasiko du denboraldi berria.

Aretxabaleko marrazkigileak irabazi ditu Aratusteko iragartzeko Kultura Sailak antolatutako lehiaketako 300 euroak. Kartelaren kolore nagusia beltza da, eta gainera kolore biziagoak ikus daitezke.

Guztira zortzi lan aurkeztu ziren kartel lehiaketara.



Urtarrilaren 22an egin zuen | bilketa. Martxora arte hileroko | behin, maiatzean, uztailean eta | jarri zen abian, eta ordutik hona  
Debagoieneko Landa Garapenak | bilduko da plastikoa, eta uda- | irailean. Baserritarren eskura | bilketa bakoitzean jasotako plas-  
baserrietako plastikoen lehen | berri-uda partean, bi hilean | dagoen zerbitzua duela sei urte | tiko kopurua bikoiztu egin da.

Mari Karmen Iturbe > Debagoieneko Landa Garapenerako bulegoko arduraduna

# "Hasi ginen batze bakoitzeko 800 kilo plastikoa biltzen; egun 1.600 batzen dugu"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Debagoieneko Landa Garapen Elkar-  
teak martitzenean egin zuen base-  
rrietako plastikoen urteko lehen bil-  
keta. Duela sei urte jarri zen plas-  
tikoa birziklatzeko zerbitzua  
martxan eta urtez urte jasotako  
kopuruak gora egin du. Zerbitzua-  
ren gainera hitz egin dugu elkar-  
teko arduradun Mari Carmen Itur-  
berekin.

**Sei urte bete dira baserrieta-  
ko plastikoa biltzeko zerbi-  
tzua martxan jarri zenuene-  
tik. Zergatik hartu zen eraba-  
ki hura?**

Ikusi genuen baserritarrek  
etxeetan erabiltzen zuten plasti-  
koa erretzeko ohitura zutela. Era  
berean, erretzen zen plastikoa oso  
kutsakorra zen. Horregatik guz-  
tiagatik, baserriko plastikoa  
biltzeko zerbitzua martxan jar-  
tzea erabaki genuen.

**Sei urteko bidean nolako eran-  
tzuna eman diote baserrita-  
rrek zerbitzuari?**

Orokorrean oso ona; baserri-  
tarrek belar boletako plastiko  
beltza eta berotegietako plastiko  
zuria birziklatzeko ohitura har-  
tu dute. Edozelan ere, oraindik  
badago baserritarrik zerbitzua-  
ren berri ez duena; baina haien-  
gana iristen saiatuko gara.

Urte berria hasten denean,  
auzo alkateen bidez helarazten  
dizkiegu hil bakoitzean bilketa  
zein egunetan izango den. Nor-  
malean hilabete bakoitzeko lau-  
garren martitzenean egiten da.

**Urte hauetan jasotako plasti-  
koaren datuak eskutan, ze ira-  
kurketa egin daiteke?**

Kontuan hartuta gure baila-  
rako nekazari aktibitatea ez dela  
oso handia, birziklatzen den plas-  
tiko kopuruak gora egin duela  
esan beharra dago. Duela sei urte  
bilketa bakoitzean, batez beste,  
800 kilo biltzen ziren, eta orain,  
1.500 kilo. Gainera, neguko hila-  
beteetan plastiko gehiago biltzen  
da udan baino. Edozelan ere, argi  
dago birziklatzen den plastiko  
kopurua bikoiztu egin dela.

Bestalde, 2007an 16 tona plas-  
tiko batu ziren.

**Bailaran zenbat puntu daude  
plastikoa batzeko?**

Gaur egun hamabi puntu fin-  
ko daude: Eskoriatzan, Antzuo-  
lan, Aretxabaletan, Bergaran eta  
Oñatin. Zerbitzua martxan jarri  
genuenean 30 puntu aurreikusi  
ziren; baina denborak erakutsi



Argazkian, Debagoieneko Landa Garapenerako bulegoko arduradun Mari Karmen Iturbe.

ARRITXU BARRUSO

digu zein tokitan uzten duten  
plastikoa. Edozelan ere, puntu fin-  
korik ez duten herrietan, Arra-  
saten eta Elgetan ere bilketa egi-  
ten dugu. Hartarako, plastikoa  
pilotu duen pertsonak gure bule-  
goko 943 76 25 47 zenbakira dei-  
tu behar du zerbitzua eskatzeko.

**Urteko hilabete guztietan egi-  
ten da bilketa?**

Ez. Urtean zortzi bilketa egi-  
ten dira: azarotik martxora arte  
hileroko egiten da, eta udaberri eta  
uda partean, bi hilean behin:  
maiatzean, uztailean eta iraile-  
an. Bilketa dagoen egunaren  
aurreko arratsaldean atera behar  
dira plastikoa bilketa puntua-  
tara, plastikozko lokarriekin  
ondo lotuta. Hurrengo biletak  
otsailaren 26an, martxoaren  
25ean eta apirilaren 22an egingo  
dira.

**Ohiko puntuetan biltzen den  
plastikoarekin zer egiten da?**

Normalean plastikoa garbitu  
egiten da, eta gero birziklatu egi-

PUNTUAK

**"Hamabi bilketa puntu  
daude: Oñatin,  
Eskoriatzan, Antzuolan,  
Aretxabaletan eta  
Bergaran"**

PLASTIKOA

**"Belar boletako plastiko  
beltza eta berotegietako  
plastiko zuria  
biltzen dira"**

KOPURUA

**"Duela sei urte  
zerbitzuarekin hasi  
ginenetik bildutako  
plastikoaren kopurua  
bikoiztu egin da"**

ten dute. Baina azkenaldian ara-  
zo dezente izan dugu plastikoa  
garbitzeko orduan. Iaz Legazpi-  
ko enpresa batek garbitzen zuen  
plastikoa, baina lantegia erre  
egin zen. Hala, orain Zumaiako  
enpresa batekin hasi gara lane-  
an. Arazo handiena belar boleta-  
ko plastiko beltza garbitzeko une-  
an dator. Belarra plastikoa  
barruan ondu egiten da, eta ondo-  
rioz likido asko sortzen da. Hala,  
plastikoa zikindu egiten da, eta  
garbitzeko zaila da.

Bestalde, behin plastikoa  
ondo garbituta, beste edozein  
plastikok duen tratamendu bera  
izaten du. Horretan ez dago des-  
berdintasunik.

**Plastiko beltza garbitzeko  
dagoen arazoak zerbitzua ber-  
tan behera geratzea ekar deza-  
ke?**

Ez. Orain arte halako arazo-  
ak izan ditugu eta zerbitzuak  
aurrera jarraitu du. Batzuetan,  
plastiko gehiegi zegoenean,  
zabortegira bota izan dugu.

Gure helburua birziklapena-  
ren aldeko apustua egitea zen, eta  
bide beretik jarraituko dugu.  
Hobe da plastikoa garbitzeko ara-  
zoak izatea, norberak plastikoa  
etxean erretzea baino.

**Debagoieneko Landa Garape-  
nerako bulegoak beste hainbat  
zerbitzu ematen ditu. Zein-  
tzuk?**

Baserrietako plastikoa biltze-  
ko zerbitzuaz gain, beste proiektu  
batzuk ditugu esku artean.  
Landa auzuneetara bideratutako  
hainbat ekintza ditugu; besteak  
beste, Bergaran eta Oñatin Ber-  
piztu programak.

Era berean, Debarroan gizar-  
tea sentsibilizatzeko hainbat pro-  
grama ditugu; hartarako, ikaste-  
txeendako bisita gidatuak anto-  
latzen ditugu baserrietara. Era  
berean, landa ingurunearen alde  
egin daitezkeen gauzak biltzen  
dituen eskuliburua argitaratu  
dugu; eta, galdera-erantzunen  
*Debarroa* izeneko jokoa ere kale-  
ratu dugu.



plazara

Urtarrilaren 15ean Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako datuen arabera, %4,2 igo da Kontsumo Prezioen Indizea (KPI)

2007an. Estatuan zein Euskal Autonomia Erkidegoan izan da igoera hori, eta azken urteotako nabarmenetakoa izan da. Hori

horrela, igoera horren zergatiak, ondorioak eta gaur egungo egoeraren azterketa egin du ETEOko Urko Lopez irakasleak.

Urko Lopez \*

## Kontsumo Prezioen Indizea %4,2 igo da

**K**ontsumo Prezioen Indizea (KPI), gaztelaniaz hainbat hedabidetan entzun eta irakurritako IPC (Indice de Precios de Consumo), erabiltzen da familiek kontsumitutako ondasun eta zerbitzuen prezioen multzoak denboran zehar duen bilakaera estatistikoki neurtzeko. Bertan, familiek kontsumitutako ondasun eta zerbitzuekin otarre bat eratzen da eta hauen prezioak orokorrean izandako balio aldaketa neuritzen da.

Ondasun otarre honetan dauden ondasun eta zerbitzuak 12 talde nagusitan banatzen dira: janari eta edari alkoholgabeak, edari alkoholduak eta tabakoa, jantziak eta oinetakoak, etxebizitzak, etxeko tresneria, medikuntza, garraioa, komunikazioak, aisia eta kultura, irakaskuntza, hotelak, kafe-tegiak eta jatetxeak eta, azkenik, beste hainbat ondasun eta zerbitzuek osatutako taldea. Neurketa egiteko orduan otarretik at geratzen dira autokontsumoa, auto-hornidura, espezieetan jasotako ordainsariak, edo dirulaguntzekin egindako kontsumoak. Beraz, familiek egindako gastu errealek hartzen dira kontuan.

Urtarril honetako 15ean Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) argitaratutako datuen arabera, %4,2 igo zen KPI 2007. urtean, bai Estatu mailan eta baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere, azken urteotako igoera nabarmenen artean kokatuz. Honako tasa hau euro-gunearen batez besteko tasaren gainetik kokatu da, zeina %3,1 den.



MIKEL ARROIABE

Halere, %4,2 hau batez bestekoa da eta honen atzetik, esan dugunez, hainbat kontsumorako ondasun eta zerbitzu talde bereiz daitezke. Talde hauetako batzuetan izandako igoerek nabarmenki eragin zuten 2007. urtean KPI maila honetara iritsi zedin. Honela, EINk errazten dituen datuen arabera, igoera nabarmenen artean janari eta edari alkoholgabeen, alkohol eta tabakoaren eta garraioaren prezioak dira aipagai. Janari eta edari alkoholgabeen prezioek %6,6ko igoera pairatu zuten 2007. urtean. Hauen barnean igoera nabarmena pairatu zuten esneak (%31), ogiak (%14,4), hegazti haragiak (%10,2) eta

**"KPIren igoera dela eta, soldatak berrikusten edo doitzen ez dituzten langileek eros ahalmena galduko dute"**

**"Eragin errealek jakiteko, datozen hilabeteetan aldagai eta eragile ekonomikoen portaera zein den ikusi beharko da"**

esnekiek (%10), besteak beste. Alkohol eta tabakoari dagokien taldeak %6,1eko igoera izan zuten. Garraioak ere %7,1eko igoera izan zuten, erregaiek pairatutako garestitzeak (%14,4) bertan ere eraginez.

Estatistiken arabera, prezio aldaketa hauek utzitako berri on bakarrak sendagaien eta aisialdi eta kulturaren aldetik etorri ziren, prezioak %2,1 eta %0,8 jaitsi baitziren, hurrenez hurren.

KPIren eta bere barne aipatutako ondasun eta zerbitzu taldeen igoera hauei hiritar askok dituzten etxebizitzaren hipoteka-kredituen interes tasek azkenaldian izandako igoerak gehitu behar zaizkie. Zentzu honetan, ez da inondik inora urterik onena izan, kredituak garestitu egin baitira interes tasen igoeraren ondorioz.

KPIren igoera honek berrikusketa klausulen bidez soldatak doitzeko ekarriko du, egoera, ahal den neurrian, behintzat, leunduz. Soldatak berrikusten edo doitzen ez dituzten langileek eros ahalmena galduko dute, eta doikuntza egiten duten langileek baino gehiago pairatuko dituzte prezio igoeren eraginak.

Halere, egoerak eskatzen duen arretaren barruan, honen guztiaren eragin errealek jakiteko datozen hilabeteetan aldagai eta eragile ekonomikoen portaera ere zein izango den ikusi beharko da.

\*Urko Lopez, MUko Enpresa Zientzien Fakultateko irakaslea da

zer deritzo zu?

www.goiena.net

Zinemara joatea gustokoz duzu?

BAI	%100
EZ	%0

> BAI

Niri asko gustatzen zait eta horregatik ematen dit halako pena Bergaran zinemarik ez egoteak. Bestalde, txalogarria da gaztetxeok zine kluba antolatzeke izan duten ideia eta hartu duten lana. Azkeneko bi domeketan joan izan naiz eta datozentan be joateko asmoa daukat. *Chapeua!*

Iker

> GASTEIZ ETA ARRASATERA

Nire herrian ere ez dago zinemarik. Horregatik, Aretxabaletatik Arrasatera edo Gasteizera joaten naiz. Baina ze garestia den!

Maria

> LEHEN BAI, ORAIN EZ

Lehen joaten nintzen noiz edo noiz, baina gaur egun ez. Eta ez da ez zaidalako zinema gustatzen. Oso garestia delako, baizik. Zinemara joaten banaiz gero lagunekin kalean ibiltzeko oso diru gutxi geratzen zait. Ezin naiz denera iritsi.

Aitor

**DATORREN ASTEKOA: Publizitateak eragiten dizu erosteko orduan?**

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

egunero. Badakigu zenbat diren, nondik datozen, non ibiltzen diren, zertan diharduten, gustura ote dauden eta beste hainbat gauza ere bai.

Sekula ez da Euskadin, etorkinak direla-eta, honen beste informazio izan. Frankismo-garaian etorritako kanpotarrak gertukoagoak izan arren, dezente informazio urriagoz etorri ziren. Demokraziak etorkinak hobeto hartzeko ere balio izan du.

Frankismoan etorritakoek Espainiatik Espainiarako bidea egin zuten eta inork ez

zientz kontrarik esan. Orduan etorri zirenei ez zien inork euskal gizarterik zenik ere adierazi. Eta hemen gineno ez ziguten etorkin hitza aipatzerik ere utzi.

Oraingo etorkinek, ostera, jakin badakite bertako erakunde, kultura eta hizkuntzaren jabe den Herrira etorri direna, eta euskal gizarteak orain berrogeita hamar urte ez zituen tresnak ditu kanpotarrak hobeto barneratzeko, euskal zerbitzuak eta eskola publikoak tarteko.

Nabarmena da gainera, etorkin berriek gure artean eragingo duten terapia onuragarria.

Gaur egungo etorkinei begiratuta, zalantza-izpirik ez gero, euren aurretik etorritakoak nekez izango direla gehiago kanpotar eta, beraz, zenbaitek hauteskundeak izaten diren bakoitzeko astindu nahi izaten dituen maleten mamuak –bertakoen erruz sorterrira itzuli behar omen duten kanpotarren mamuak, alegia– zeharo zaharkitua geratuko dira, behingoz.

koplak

Enaitz Alustiza

Gero arte

Bertzelonako aeroportuan Brno-ra joateko zain atzean uzten ari naizenak bapatean hartu dit gain.

Lehenik gertuko lagun guztiak ta familia gogoan etxean baino aintzakotzago hartzen ditugu kanpoan.


Lagun berezi pare bat ditut gertuko, urrun daudenak Txapi ezin dut ahaztu ezta ere bera maitatzen dutenak.

Nire Anduri baserri eder ta nire auzo Ubera bihotz barruan gordetzen ditut Euskal Herriaz batera.

Ta politikan argi gorria ta giroa bero-bero nahiz ta hori nahi, ez dut albiste onik hartzerik espero.

"Gero arte" bat bidaltzen dizut irakurle, parez-pare bakoitzak segi berean baina rutinan erori gabe.





Esaguzu kedarrik gabeko autoa  
nahi duzula, eta guk  
lagundu egingo dizugu erosten.



**Kutxan** ingurumenarekiko konpromiso sendoa dugu. Horregatik, orain auto berri ekologikoago bat erosteko unean laguntza eskaintzen dizuten lehenen artean egon nahi dugu.

**Gure Credikutxa Automobilaren interes-tasan hobaria izango duzu, kontsumo baxuko auto bat** (hau da, km-ko gehienez 120 gramo CO<sub>2</sub> isurtzen duena) erostera bideratuta baldin badago.

Horrela **onura bikoitza** lortuko duzu: alde batetik finantzaketa abantailatsuagoa zure kredituan, eta, bestetik, zure auto berriaren matrikulazio-zerga aurrezteak (Estatuko Gobernuak horrela erabaki baitu).


**kutxaren Ekofinantzaketa lerro** berria abian jarri, eta utzi atzean ke kaltegarri guztiak.

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**

# Gazte ikastaroak



## GAUR EGUNGO DANTZA

Maite Albesen eskutik  
Otsailaren 11tik martxoaren 12ra arte  
Astlehena eta eguaztena, 18:00-20:00  
Kultur Aten



## TXALAPARTA

Ttakun taldearen eskutik  
Otsailaren 15etik maiatzaren 10era  
Egubakoitza, 20:00-21:30  
Zapatua, 11:00-13:00



## SUKALDARITZA

Igor Otaduiren eskutik  
Otsailaren 12tik martxoaren 11ra  
Martitzena, 18:00-20:00

**Matrikula: 20 euro / 12 euro ikasle edo langabeentzat**

**Izena emateko: Gazte Bulegoan**

**TELEFONO BERRIA: 943252065**

**[www.gaztebulegoa.com](http://www.gaztebulegoa.com)**



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila ■

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

**Hedabide guztietarako  
telefono berria eta bakarra  
943 25 05 05**



**Goienkaria** ASTELEHENEKO **Goienkaria**



**Goiena.net**  
Debagoieneko Interneteko ataria

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**  
Merkemerkaua merkealdi azoka antolatzeke lanean hasi dira > 19



> **OÑATI**  
Futbol Federazioak urrezko intsignia eman dio Javier Azpiazuri > 33



> **ESKORIATZA**  
Arbiñosten lur kutsatuak aurkitu dituzte; Udalak dio ez dela larria > 34



> **ELGETA**  
Salbador kaleko lanen barruan, arkuko pasabidea itxi egingo da > 37

ARETXABALETA > INDUSTRIA

## Coprecik leku premia du, eta Udalak industria-mapa berrantolatu nahi du

### COPRECI

Herriko sarrerara lekuz aldatzea proposatu diote Udalari

**UDALA** Transformazio arloko lantegiak erdigunetik atera nahi ditu, eta Copreci plan horretan kokatzen du

### BIRMOLDAKETA

Erdigunean, ikerketa, teknologia eta zerbitzu enpresak egongo dira

**LEIRE KORTABARRIA** > ARETXABALETA  
MCC taldeko Copreci lantegiak leku premia du. Hain zuzen, makina astunak ipintzeko leku barik geratzen dabil, makina horiek lurrean ipini behar direlako; ezin dira bigarren solairu baten edo gorago ipini, eta gaur egungo lantegia txiki geratuko zaio laster. Hala, Copreci Aretxabaletako Udalarengana zuzendu da proposamen batekin, eta orain hori aztertzen dabil. Coprecik proposatu du, Arrasatetik Aretxabaletarantz joanda, herriko sarreran dauden eremuetan kokatzea, Mecako zubi inguruan.

Copreciren arazoa ez da apartekoa herrian; izan ere, Aretxabaletan ez dago lursail asko industriarako egokiak, eta, pixkana-pixkana, industria erdigunean, etxeen inguruan, geratu da. Aretxabaletako Udalak horren gaineko gogoeta egin du, eta baditu asmo batzuk: "Ze esparru industrial dagoen ikusiko dugu, eta industria birmoldatu egingo dugu: gaur egungo lekutik atera eta leku egokiago batera eramango dugu. Erdigunean, bestelako enpresa batzuk ipini gura ditugu: diseinu, teknologia eta zerbitzu arloetakoak, alegia", dio Udal Industria zinegotzi Edorta Mendietak. Plan hori oraingo agintaldian hasi da lantzen Udala, eta,



BASABE Gaur egungo industrialdean, 72 lantegi inguru daude; tartean, Copreci.

MIRARI ALTUBE

zinegotziaren esanetan, "epe ertain edo luzerako proiektua da; anbizio handiko proiektua da, eta oso konplexua".

Udalaren esanetan, urrian bultzatu zen Herritarren Parte-Hartze prozesuan, industriaren kokagunearen gaineko kezka behin eta berriz azaltzen zen.

### HIRU URTEKO EPEA

Copreciri dagokionez, eurek aurkeztu diote proposamen landu bat Udalari, eta leku aldaketa 2009-2012ko Plan Estrategikoko

helburuetako bat da. Copreciko kudeatzaile Javier Oleagaren esanetan, "hiru bat urtean, proiektua landu egin behar da". "Gure lehentasuna Aretxabaletan gertatzea da, bazkide guztiak hementara direlako, baina, ezin izango balitz, beste aukera batzuk begiratu genituzke, betiere, ibarrean". Leku aldaketak Copreciko 900 langileei eragingo lieke.

Copreciren proposamena herriko sarrerako lurretara joatea bada ere, "Udalaren proposamenetara zabalik" dagoela dio.

### Cerrajera Valle Leniz Lausitta kalean zegoen, eta orain hiru urte aldatu zen lekuz

Aretxabaletan lur industrial gutxi egoteak arazoak sortzea ez da oraingo kontua. Hala, esaterako, herriko enpresa garrantzitsuenetako batek, Cerrajera Valle Lenizek, 2004an utzi zuen bere lehengo kokagunea, Lausitta kalea, eta herriko sarrera aldean, Arrasatera doan errepidearen eta Deba ibaiaren artean, 6.500 m<sup>2</sup>-ko lantegi berria egin zuen. Lehengo lantegiaren lekuan, etxebizitzak egin zituzten.

Gaur egungo industrialdeak eraikitako 27.265 m<sup>2</sup> hartzen ditu, eta 72 enpresa daude hantxe. 1984. urtean sortu zen. Udalaren lehentasunetako bat da Aretxabaletaren ekonomia eta bizi-mailari eustea, eta, era berean, herriko industria mapa berriz diseinatzea.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Table with 4 columns: Location, Name, Address, Phone number. Lists pharmacies in Arrasate.

BERGARA

Table with 4 columns: Location, Name, Address, Phone number. Lists pharmacies in Bergara.

OÑATI

Table with 4 columns: Location, Name, Address, Phone number. Lists pharmacies in Oñati.

ARETXABALETA

Table with 4 columns: Location, Name, Address, Phone number. Lists pharmacies in Arretxabaleta.

TELEFONO JAKINGARRIAK

SOS DEIAK

Table of SOS DEIAK services including medical emergencies, ambulance, etc.

GARRAIOAK

Table of transportation services including taxis and buses.

DEBAGOIENA

Table of services in Debagoiena including social services and day centers.

Kultura Etxeak

Table of cultural centers and their contact information.

UDALAK

Table of municipal offices and their contact information.

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea) 08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00...

Eroskitik Gorostizara (2 Linea) 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35...

Gorostizatik Eroskira (1 Linea) 08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30...

Eroskitik Gorostizara (1 Linea) 08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05...

BERGARA

San Lorenzo/San Juandik irteerak 07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40...

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak 07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20...


ARRASATE, BERGARA, OÑATI, DEBAGOIENA bus routes and schedules.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Table of bus routes and schedules for Aramaio.

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 26

Izotza botako du, eta hotz egingo du egunean barrena. Behe-lainoa ere egongo da...




Domeka, 27

Giro ona eta epela egingo du egun osoan, zapatuko laino apurrak guztiz desagertuta.

EUSKAL HERRIAN

Zapatu goizaldea hotza izango da, baina gerora giro ederra egingo du, batez ere kostaldean.



TENPERATURAK

MINIMOA 1 °C Astelehena, 21

MAXIMOA 16 °C Zapatua, 19

ASTEKO EURIA (l/m²) 2 L

Table showing temperature and rainfall data for various days.

ILARGIA URTARRILEAN



oharrak eta deialdiak

ARRASATE

>Emakumeendako ikastaroak antolatatu dituzte

Martxora bitartean, hainbat ikastaro daude Emakume Txoan: pilatesa, musiko-terapia, zahartzen ikas-tea, autoestimua eta hazkunde pertsonala...

BERGARA

>'Gorputzaren musikak' tailerra egingo dute

Helduekin Santa Ageda bezperan kantuan irteerako entseguak hasi ditu Aranzadi ikastolak.

ARETXABALETA

>Koloniako sukaldaritza erakundearen gainekoak

Koloniako sukaldaritzaren ikastaroa antolatu du Loramendik. Muru Alde elkartearen antolatua.

BERGARA

> Bertso-afaria egingo dute otsailan

Bertso afaria egingo dute otsailaren 16an, eta sarrerak salgai daude Arranon, Pol-Polen eta Korta-zaharren.

ARRASATE

> KZguneko egitaraua dotoen egunotaroko

IT Txartela ateratzeko azterketa egingo da gaur, egubakoitza, KZgunean, 11:00-13:00.

ARRASATE

> Ludoteka ibiltaria San Andresen egongo da

Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria San Andresko Bedoñabe eskolan egingo da bihar, 11:00-13:30.

ARRASATE

> Zahar Berri taldeak poteoa egingo du

Zahar Berriko erabiltzaile guztiak batzeko, poteoa antolatu dute eguaztenterako, hilak 30.

DEBAGOIENA

> Eusko Jaurlaritzak deituta zapatuan Bilbon egingo den manifestaziorako autobusak

Zapatuan Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusak antolatu ditu EAJk.

943 25 05 05 goienkaria@goiena.com

OÑATI

> Erretiratatuak Tolosa-ko Aratusteetara doaz

Pake-Lekuko erretratuak Tolosa-ko Aratusteetara joango dira otsailaren 5ean.

ARRASATE

> Hainbat ikastaro, Arrasate Yoga Elkartearen

Tailandiar masajea lantzeko eta norbera ezagutzeko taldeak osatzeko dei egin dute.

ARRASATE

> Hauteskunde zentsuaren zerrendak, ikusgai

Hauteskunde zentsuko zerrenda gaurkotuak jendaurrean daude, BAZen, astelehenera bitartean.

BERGARA

> Helduen Heziketa Ikastetxearen matrikulazioa

Helduen Heziketa Ikastetxearen matrikulazioa otsailaren 16an egingo da.



kale inkesta

## Zer iruditzen zaizkizu Alardera-ko proposatutako aldaketak?



**Tomas Jauregi**  
Erretiratua  
Antzuola

Egokiak ikusten ditut. Gaur egunera egokitu behar da egoera, eta Eusko Ikaskuntzak proposatutako irizpideekin Alardea hobe daiteke, sentsibiltate ezberdinak kontuan hartuz.



**Belen Kortabarria**  
Erretiratua  
Antzuola

Ez dakit aldaketa hobetzeko bidean egiten den, baina bizitasuna falta duela argi dago. Bestalde, jendeak Alardean parte hartzea bultzatu behar da; herrian Alardearekiko kontzientzia sortu.



**Sara Lorda**  
Langilea  
Antzuola

Oso ondo iruditzen zait. Gainera, mairua nola tratatzen duten ez zait bate-re gustatzen. Alardean mairuarenganako duintasun pixka bat gehiago azaltzea ondo egongo litzateke.



**Izaskun Larrañaga**  
Langilea  
Antzuola

Oso ondo iruditzen zait. Gainera, Alardearen gaineko hitzaldian egon nintzen, eta proposatutako aldaketak entzun nituen. Mairuaren papera hobetzeko proposamenak egoki iruditu zitzaizkidan.



**Miguel Angel Montori**  
Erretiratua  
Antzuola

Oso ondo iruditzen zait. Irratian entzun nuen aldaketa batzuk egingo zirela, eta bidezkoena dela uste dut. Esaterako, mairua zaldian joan dadila, belauniko joan beharriak.

5 galdera...

## Ainhoa Galarraga

Servimasa sukalde altzariak Bergara

### 1. Zein motatako sukaldeak egiten dituzue Servimasan?

Materialari dagokionez, batez ere, laminatuak, formikazkoak, polilaminatuak eta egurrezkoak dira sukaldeko altzariak egiteko erabiltzen ditugunak.

### 2. Zuk ikusitakoaren arabera, zein sukalde mota daude modan?

Orain jendeak sukalde arinak eskatzen ditu; hau da, goian lehen eramaten ziren armairu horiek guztiak kendu eta kanpai apaingarriak ipintzea, beira-ara-saren bat ere bai. Beheko aldean, berriz, labea eta mikrouhina zutabeen artean sartzen dira. Baita ere, ateak ipini beharrean, kaxoiak ipintzea beheko aldeko altzarietan, eta etxetresnak ahalik eta eskuragarrien gelditzea. Jendeak asko eskatzen duen beste gauza bat ate lauena da, garbitzeko errazak direlako; eta kolore aldetik, berriz, gehien eramaten direnak zuria eta grisa dira.

### 3. Etxebizitzaren prezioak direla eta, igarri duzue zuek hori sukaldeak saltzeko orduan?

2007ko inbentarioa egin ondoren, hasierako hilabeteak lasaia izan baziren ere, gero ez dugu krisirik nabaritu, eta asko saltzen ari gara; are gehiago, zorionez, lanez lepo gaude.

### 4. Jendeak zeri begiratzen dio gehiago, modernotasunari, praktikotasunari ala prezioari?

Gaur egun, praktikotasunari, asko. Gainera, modernotasunak praktikotasuna dakar. Adibidez, ateen ordez kaxoiak ipintzea. Lehengo sukaldeak jartzeko orduan, beharbada altzari asko sartzen zen, sukaldea politagoa izateko. Gaur egun, diruari jendeak asko begiratzen dio, eta horregatik, praktikotasunaren aldetik, nor bere beharren arabera ipintzen du.

### 5. Zer gomendatzen diozue jendeari sukalde bat ipintzeko orduan?

Batez ere praktikotasuna, sukaldea egunero erabiltzen den leku bat delako.



txistuak



GOIENKARIA

## Autoak espaloian aparkatuta



Aste honetan, Arrasateko Uriburun bizi den auzotar batek kexa bidali digu. Auzotar horrek dio duela gutxira arte obretan ibili direla kale horretan, eta jendeak autoak edozein lekutan aparkatzen zituela. Behin obra amaituta, oraindik ere jendeak gaizki aparkatzen jarraitzen du, eta espaloiak eta hainbat sarrera oztopatzen ditu.

ustek uste

Larraitz Zeberio

## Eta denak isilik!

**A**monaren baserria Biriaturako ordainlekuak egiteko bota zuten. Aitonarena, berriz, oso gertu aurkitzen den Zaisa garraio plataforma egiteko. Ez dut oroitzapenik. Etxean pare bat argazki besterik ez da gelditzen. Horretaz aparte, ezer ere ez. Edo bai? Udalak *Ur Jauzi* eta *Katxutxa* izenekin bataiatu ditu auzoan bi kale berri.

Duela 35 bat urteko kontuekin nator, baina nire inguruan begiratu eta ikusten dut nire aitona-amonak duela hiru hamarkada bizi izandakoa beste askok bizi dutela gaur egun. Eta ez da kontu samurra.

Gure auzotik zertxobait haratago ezagutzen dut 70 urteko aitona bat. Etxebizitzarik gabe gelditu dira bera eta bere emaztea eta lantokirik gabe etxeko hiru semeak, bertan baitzuten aroztegia. Etxeko andreari malkoa irten zitzaion, bakarra, nire galdera erantzunez jaiotetxea Gabon aurretik bota ziotela esan zidanean. Eta ez da sekula nahikoa. Nire amonak, esaterako, pentsa dezake nahikoa eman duela. Bada, ez! Lur zati txiki bat gelditu zitzaion eta jakin duenez hori ere laster kenduko diote. Oraingoan tren lasterra da arrazoia.

asteko datua

# 719.919

Eroskiko merkataritza-gune-ko Prensa Txokoa kioskoan egin zuen norbaitek apustua eta Loteria Primitiboko sei zenbakiak asmatu ditu. Lau asmatzaile egon dira zapatuko zozketan, eta lauren artean banatu beharko dute saria; bakoitzari 719.919 euro egokitu zaizkio.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

UDALA &gt; 2008KO AURREKONTUA

# Azken ordukorik ezean, 2008ko aurrekontua onartu egin dute

Atzo, eguena, egin zuen udalbatzak osoko bilkura berezia aurrekontua lantzeko

PSE-EEK eta PPK izan ezik, gainerakoek ez dute proposamena atzera bota

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Udalerrri baten eta udal baten eguneroko funtzionamendurako ezinbestekoa den tresna berbagai izan zuten atzo, eguena, Udalan: 2008ko aurrekontua. Bilkura berezia egin zuten, gai hori berori lantzeko. Eta azken orduko ezustekorik ezean, Eusko Abertale Ekintza alderdiak eta EB-Zutik koalizioak osatzen duten udal gobernuak egindako proposamenak aurrera egin zuten.

Albiste hau idazterako, osoko bilkura oraindik egiteke zegoen; beraz, ezin dugu bilkuraren gainekorik esan.

Hori bai, alderdien asmoen berri jakiteko, udalbatza osatzen duten oposizioko alderdi politikoekin -PSE-EE, EAJ, EA, Aralar eta PP- izan eta haien iritzia batu dugu. Eta oro har, oposizioren gehiengoak aditzera eman du ez duela udal gobernuaren proposamenaren kontra bozkatuko.

PSE-EE ETA PP, KONTRA

Laburbilduz, oposizioko bi alderdik kontra bozkatzeko asmoa azaldu dute, PSE-EEK eta PPK; guztira, bost boto izango lirake. Oposizioko alderdi nagusiak, PSE-EEK, "ezezko borobila" ema-

teko asmoa azaldu du. Paco Gartzia bozeramaileak esandakoaren arabera, eztabaidatu ere ez dute egin gobernuaren proposamena, euren egindako eskaera bat ez zutelako onartu.

PPri dagokionez, orokorrean, "ondo egokitutako" aurrekontuak direla pentsatzen duen arren, Itziar Lamarain bozeramaileak azaldu du atal batekin ez dagoela ados: presoen senideendako dirulaguntzen partida banatzeko irizpideekin, hain zuzen.

JARRERA POSITIBOA

Gainerako alderdien artean, berriz, Aralarrek eta Eusko Alkartasunak alde bozkatzeko asmoa zutela aditzera eman diote GOIENKARIARI. Euzko Alderdi Jeltzaleak, berriz, aurreratu zuten "ez zuela kontra bozkatuko".

Edozelan ere, orokorrean begiratuta, ia guztiek azpimarratu dute negoziatzeko orduan gobernuak erakutsi duen jarrera. "Postura ona ikusi dugu. Orokorrean, jarrera ona erakutsi dute eta gure arteko hartu-emanak errazak izan dira", adierazi du Luis Mari Apraitzek, EAJko bozeramaileak. "Gau-

zak hausnartzeko eta berritzeko asmoa erakutsi dute", gaineratu du Pello Urizarrek, EAko bozeramaileak. Eta kontra bozkatu arren, jarrera positibo hori ere nabarmendu du Alderdi Popularrak: "Erakutsi dute asmoa dutela halakoak mahai gainean jarri eta guztion artean eztabaidatzeko, euren erabakiak inposatu barik; alkateak oso jarrera ona erakutsi du", adierazi du Itziar Lamarain bozeramaileak. Aralarrek, berriz, Joxe Etxeberria bozeramailearen esanetan, esan du "normal" jokatu dutela negoziatzeko orduan.

43 MILIOITIK GORA

Aurrekontuaren proposamenari dagokionez, oro har, 43,4 milioiko aurrekontua proposatuko du udal gobernuak 2008rako. Hortik 41,1 milioi euro izango dira udal jardunerako; 2.400.000 euro pasatxo, Iturbide egoitzaren jardunerako, eta beste 1.750.000 euro inguru, Aukearen jardunerako.

Aurrekontuaren banaketa partidaz partida eta bestelako xehetasunak *Asteleheneko Goiengkaria*-n eskuratuko dituzue.

## ALDERDI POLITIKOEN IRITZIAK



Paco Gartzia  
PSE-EE

**"Eudelen erabakiak ez dituztenez aplikatu, ez dugu eztabaidatu"**

"Ezezko borobila", horixe da Alderdi Sozialistak udal gobernuari ematea aurreikusita zuten erantzuna aurtengo aurrekontuaren proposamenaren aurrean. Halaxe azaldu du Paco Gartzia bozeramaileak: "Batordea egin baino ordu pare bat lehenago izan nintzen Ino Galparsoro alkatearekin berbetan, eta jakinarazi nion, aurrekontuaren gainean berba egiteko, lehenengo eta behin, Eudelek hartutako azkeneko erabakiak aplikatu beharko lirakeela (Udalaren barruko funtzionamenduarekin lotutako erabakiak dira, udal langileen segurtasunaren, soldaten eta halakoen gainekoak). Ez zuten hori onartu. Eta horixe zen aurrekontua eztabaidatzen hasteko ipini genuen lehenengo baldintza. Horrez gainera, lehenago alderdi politiko guztiekin berba egin dute, gurekin izan ezik. Parte-hartzeaz eta demokraziaz berba asko egiten da, baina hemen ez dago parte-hartzerik, ez antzerako ezer. Horren adibide da garbiketaren araudiarekin gertatu dena. Eta gainera, zer da demokratikoagoa Eudelek egindako gomendioak baino?"



Luis Mari Apraitz  
EAJ

**"Ez diegu ezetzik esango; kontra ez dugu bozkatuko"**

Eusko Alderdi Jeltzaleak atzoko (eguena) batzarra baino lehen ez zuten bere botoa zein izango zen jakinarazi, baina nondik nora jotzeko asmoa zuten aurreratu zion GOIENKARIARI: "Ez diegu ezetzik esango; kontra ez dugu bozkatuko". Horiexek, Luis Mari Apraitz bozeramaile jeltzalearen berbak. Kontra ez bozkatzeko arrazoiak ere eman zituen Apraitzek: "Eskabide batzuk egin ditugu, eta gehienak sartu egin dituzte". Adibidez, eta Apraitzaren esanetan, hau eskatu dio EAJk udal gobernuari: irisgarritasunean sakontzeko, aparkalekuen kudeaketa lantzeko, Egitamu Orokorrean sakontzeko, eta bestelakoan artean, laguntasuna Garaia, unibertsitate eta ikastolarendako. "Azken eskaera hori ezohiko egitasmo batean lantzeko asmoa dutela adierazi digute". Horrez gainera, gobernuaren jarrera ere nabarmendu du EAJk gobernuaren kontra ez bozkatzeko: "Postura ona ikusi dugu. Orokorrean, jarrera ona erakutsi dute eta gure arteko hartu-emanak errazak izan dira".



Itziar Lamarain  
PP

**"Presoen familiei dirulaguntza dela-eta, aurka bozkatuko dut"**

Itziar Lamarainek, Alderdi Popularreko bozeramaileak, pentsatzen du "ondo egokitutako" aurrekontua dela. Zera adierazi zuten Lamarainek: "Nahiko ondo eginda daude. Izan ere, lau urterako inbertsio plana aztertu dute eta azken legegaldian zintzilik geratu diren eta nireak ere badiren nahi edo helburu asko jaso dituzte: Arrasate Musikal, Museo Industrial... Erakutsi dute asmoa dutela halakoak mahai gainean jarri eta guztion artean eztabaidatzeko, euren erabakiak inposatu barik; alkateak oso jarrera ona erakutsi du". Edozelan ere, kritika positibo horrekin batera, PPKo zinegotziak jakinarazi zuten aurrekontuaren kontra bozkatzeko asmoa zuela. Arrazoiak ere eman zituen: "Ez dut alde bozkatuko. Izan ere, sartu duten partida batekin ni sekula ez naiz ados egongo: presoen senitartekoendako dirulaguntzeekin. Dirulaguntzak beharrak dituztenei laguntzeko dira eta presoen senideendako laguntza horiek ematen dira bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu barik".



Joxe Etxeberria  
Aralar

**"Gure emendakinak onartu dituzte; beraz, alde bozkatuko dugu"**

Hiru emendakin aurkeztu ditu Aralarrek, "bi txikiak eta bat handia", adierazi du Joxe Etxeberria bozeramaileak. Gaineratu zuten, justu emendakin baten arabera emango zuela botoa: "Euskara Biziberritzeko Plana martxan jartzea da emendakin handia. Aurreko legegaldian hausnarketa prozesua talde desberdinen artean egin ondoren, Udalak onartu egin zuten; egin gabe gelditu zena hauxe da: plan hori zuzenduko duen batzordea osatzeko Elkarlan Hitzarmenaren testu-proposamenak eta bertan ageri den parte-hartze eta berdintasun planteamendua Udalaren eta elkartearen artean onartzea. Gainerako bi emendakinei dagokionez, berriz, bata irisgarritasunarekin lotutakoa da: Jose Luis Iñarra kalearen 28. zenbakitik gora bizi direnek eskailerak bakarrik dituzte etxera iristeko; bada, haiendako beste zeharbide bat sortzea. Eta beste emendakinarekin eskatu du urbanoa irits dadila Olandixo aldera, autobusaren ordutegia aldatu barik". Horiek onartuta, alde bozkatzeko asmoa zuten.



Pello Urizar  
EA

**"Ikusi dudana da argitasuna gauzak planteatzeko orduan"**

EAK alde bozkatzeko asmoa zuela jakinarazi zuten Pello Urizar bozeramaileak: "Aurrekontuak garatzen joan diren neurrian gure kezka eta proposamenak zuzenean Ino Galparsoroekin landu ditugu. Horrez gainera, hark erakutsi duen jarrerarekin ere gustura geratu gara. Kontuan hartu behar da gobernu baten lehen aurrekontuak direla; beraz, lan ildoak dira. Baina guk uste dugu lau urteko ardatz baten barruan sartu behar direla. Hori da gobernuaren norabidea ikusteko modu bat. Eta halaxe egin dute. Inbertsioen atalean lau urterako planteamendua egin dute. Eta, horrez gainera, gauzak hausnartzeko eta berritzeko asmoa erakutsi dute. Gu horrekin ados gaude. Jakina, gero ikusi egin behar da intentzio horiek gauzatuko diren, baina, behintzat, guk planteatzen ditugun moduan aurkeztu dituzte. Gero, landu egin beharko dira inbertsio batzuk aurrera egiterik izango duten edo ez eta horiek zela gauzatu, baina ikusi dugu hausnarketa serioa egin dutela akordioetara iristeko. Gure batzarrak ere onartu zuten proposamena".



UGARI Arrasateko eta inguruko jende ugari erakarri zuen iaz merkealdien azokak.

GOIENKARIA

**KONTSUMOA > AZOKA**

# Merkemerkaua 08, merkealdien azoka berezia martxo hasieran

Martxoaren 1a eta 2a, zapatua eta domeka; data horietan aukeratu dituzte Merkemerkaua 08 izeneko egitasmoa gauzatzeko

**UBANE MADERA > ARRASATE**

Iazko estreinaldiaren arrakastaren ondoren, aurten ere egingo dute Arrasaten merkealdien azoka berezia: Merkemerkaua 08. Hain zuzen ere, 23 salmahai prestatuko dituzte herriko edo inguruko dendariak eskaintza bereziak ipin ditzaten, eta Uarkapen egingo dute.

Gainera, bi egun horietan, egun osoan izango dute zabalik azoka, 10:30ean hasi eta 21:00ak arte. Horixe adierazi du ekimenaren antolatokan diharduen Marga Garmendia udal teknikariak.

Merkealdi azoka horretan parte hartu gura duten dendarien artean, "lehentasuna Arrasatekoek" izango dutela jakinarazi du teknikariak, eta herrikoekin 23 postuak beteko ez balira, inguruko dendariei emango dietela aukera. Esaterako, iaz, Arrasateko 16 saltokik eta Bergara eta Aretxabaletako beste zazpi saltokik parte hartu zuten. "Arrasateko denda batzuk kanpoan geratu ziren, eskabidea ez zutelako epe barruan aurkeztu", esan du udal teknikariak. Horren harira, gaineratu du laster zabalduko dutela izenemate epea: "Mer-

katariei zuzenean emango diegu aditza". Merkatariak dagokienez, 350na euro ordaindu behar dituzte postua erabiltzeagatik.

**JENDE MORDOA**

Iaz, jende asko erakarri zuen merkealdien azoka horrek: "Espero baino jende gehiago etorri zen. Momentu batzuetan, beldurgarri eta guzti egon zen. Zapatu goiza zoramena izan zen. Dena den, kontuan hartu behar da lehenengo aldia zela, eta guk ere ez genekien zer espero".

Produktuei dagokienez, berriz, hauxe dio Garmendiak: "Gehienak jantziak eta zapatak izan ziren, baina ondo legoke kirol dendaren bat etortzea, edo altzari txikiak denda bat, dekorazioarekin lotutakoa... Zenbat eta denda desberdin gehiago izan, hobe".

**EUSKARA > HITZALDIAK**

## Euskararen jatorriaren gainean, hiru hitzaldi

Eguaztenean, urtarrilaren 30ean, hasi eta hurrengo bi eguaztenetan izango dira hitzaldiak, AEDk antolatuta

**U.M. > ARRASATE**

**Nondik dator euskara?** Izenburu horrekin hitzaldi zikloa antolatu du Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak. Hain justu, hiru hitzordu egin dituzte: urtarrilaren 30ean, otsailaren 6an eta otsailaren 13an, guztiak ere eguaztenak. 19:00etan izango dira hitzaldiak, Kulturateko Loramendi aretoan (erreka aldeko sarreratik), eta interesa duen edozeini zuzendutako doa-ko ekimena da.

Eguazten bakoitzean hizlari batek jardungo du euskararen jatorriaren gainean duen teoria edo pentsamendua azaltzen. "Teoria desberdinak batzen saiatu gara", adierazi du AEDk.

**HIZLARIEN NONDIK NORAKOAK**

Josu Naberan itzultzaile eta idazlea izango da datorren eguazteneko gonbidatua. Euskararen jatorriari eta euskararen mitoiari buruz ikertu du hark. Otsailaren 6rako, berriz, Martin Mendizabal gonbidatu dute. Artxibo zibil eta erlijiosoetan arakatzeko ibilitakoa da, eta topomimiari buruz ikertu du.

Bukatzeko, Alfontso Martinez Lizarduikoak jardungo du otsailaren 13an. Euskal nortasunaren ikertzailea da hura.

**HIZLARIAK**

**> JOSU NABERAN**

Itzultzailea eta idazlea.

Noiz: urtarrilaren 30ean.

**> MARTIN MENDIZABAL**

Arantzazuko apaiza.

Noiz: otsailaren 6an.

**> ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA**

Ingeniaritzan doktore

eta EHUKo irakaslea.

Noiz: otsailaren 13an.

**> ELKARTASUNA**

**Sahararako paketeak egiteko laguntzaileak behar ditu Nubi elkarteak bihar, zapatua**

Aurtengo jaki eta produktu bilteta bukatuta, saharar errefuxiatuen aldeko Nubi elkarteak beste deialdi bat egin du orain: produktu horiek paketetan batzeko laguntza. "Bihar hasi eta bukatu behar dugu derrigor paketeak egiten, eta horrexegatik behar dugu laguntza", adierazi du Agurne Juldain Nubiko kideak. Hitzordua egin dute 09:00etarako, Markulete industrialdeko 18. pabiloian. Horrenbestez, lagundu gura duenak honako telefono zenbakira deitu behar du: 685 72 48 17 (Agurne).

**> ZERBITZUAK**

**Nortasun agiri arruntak -ez elektronikoak- egiteko aukera dago BAZen, martxora arte**

Urtarrilean, otsailean eta martxoan, izango da nortasun agiria egiteko aukera Arrasaten bertan. Tramitea, orain arte moduan, Biztanleen Arreta Zerbitzuan egingo dute. Lehen hitzordua egin dute urtarrilaren 30erako. Otsailekoa eta martxokoa oraindik ez dituzte jakinarazi. Hala ere, aurrez txanda hartu behar da: 943 25 20 00.

ANTZERKIA &gt; 'TXITXARRA ETA IÑURRIA' ANTZEZLANA

# Ikusle guztiendako bizitzaren metafora, era bisualean kontatua

La Fontaineren alegia klasikoaren bertsio alai antzeztuko du Markeliñe taldeak, Amaia antzokian, bihar

A.A. ARANBURUZABALA &gt; ARRASATE

Inurriak lanean diren bitartean, txitxarra musika jotzen lasai bizi da. Horrela, urte osoan gogor lan eginda, neguari aurre egiteko nahikoa jaki pilatuta dute inurriek; txitxarrak, berriz, ezer ere ez. Txitxarra laguntza eske joan da inurriengana, baina haiek bizkarra eman diote, alferra delako. Hori da La Fontaineren alegia klasikoak kontatzen duena eta Markeliñe taldeak bihar, zapatua, Amaian, egingo duen lanaren oinarria, 17:00etan.

Markeliñe taldeak, baina, alegiaren beste irakurketa bat eskainiko du bere ikuskizunean: "Bizitza ulertzeko dauden modu ezberdinak erakutsi nahi izan ditugu; bizitza lan egitea baino gehiago dela kontatzea dugu helburu. Txitxarra baldarra eta alferra behar-rean, artista dela azpimarratu nahi izan dugu. Batak bestearengandik ikasi behar duela diogu: inurriak bizitza lasaiago hartu behar duela ikasiko du, eta txitxarrak, berriz, lanik egin gabe bizitzerik ez dagoela", azaldu du Jon Kepa Zumaldek, Markeliñe taldeko kideak.

Kultura aniztasunaz ere jarduten du lan horrek: "Argentinatik etorri da txitxarra, eta bizitzarekiko ikuspegi lasaia du; inurria, berriz, gure gizarte estresatuaren eredu da", azaltzen du Zumaldek.

ANTZERKI ALAIA ETA BISUALA

*Txitxarra eta inurria* lanak Markeliñe taldearen ezaugarriak dituela esan du Zumaldek: "Antzerki oso bisuala da. Taularen gainean hiru aktore dauden arren -Fernando Barado, txitxarra, eta Itziar Fragua eta Sandra Fernandez, inurriak-, apenas egiten dute berba. Hitzik gabeko keinu hizkuntzan oinarritutako antzerkia da. Keinuek, argi efektuek eta musikak indar handia dute". Adin guztiendako proposa dela gaineratu du: "Familia giroan ikustea gomendatzen dugu; umeak ikusten duena komentatu beharra duenez, nor, bada, gurasoak baino aproposoak horretarako?"

Urtebete dela estreinatuta zuten lana: kideek diote dagoeneko lortu dutela aurreko lanekin izandako lorpenak gainditzea.



INURRIA Itziar Fernandez aktorea, inurriaren paperean, antzezlaren une baten.

GOIENKARIA

OHITURAK &gt; SANTA AGEDA

## Entseatzeko deia, Santa Agedarengatik

Santa Ageda Koruak aurten parte hartuko duten kideei urtarrilaren 30ean Karkabal elkartera joateko dei egin die

A.A. &gt; ARRASATE

Santa Ageda eguna gertu dago, eta urtero moduan, Santa Ageda Korua bezperan, otsailaren 4an, kantuan irtengo da, beharra dutenen aldeko diru-bilketan. Egunerako guztia prest izan nahi du; hori dela-eta, parte hartuko duten kantari, pol-

tsero eta gainerako laguntzaleei, urtarrilaren 30ean Karkabal elkartean 21:00etan izateko dei egin die.

IAZ, 4.367 EURO

Ohi duten moduan, eskean batutako dirua behartsuenen artean banatzeko emango du Santa Ageda Koruak. Iaz, 4.367 euro batu zituzten eta Caritas elkarrearen bidez banatu zituzten.

Jakina, kantuan eginez batzen dute diru kopuru horren zati bat, baina horrez gain, lan-tegi eta dendei ere bidaltzen die gutuna, euren ekarpenak batzeko. Norbaitek lagundu gura balu, Kutxan zabaldu dute kontua: 2101 0055 65 0110714854.

### Iazko diruaren banaketa

	KOPURUA EUROTAN
Ama ezkongabeak	1.100
Ama bananduak	1.200
Eskola jangelak	900
Alokairuzko etxeak	1.100
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.300</b>

ITURRIA: SANTA AGEDA KORUAK

&gt; ZINEMA

### Aro Modernoa aztertuko dute datorren martitzenean zinemaren gaineko jardunaldietan

*Historia zinemaren bidez* jardunaldietan, bigarren film emanaldia egingo dute urtarrilaren 29an, datorren martitzenean. *Kermesse heroikoa* filmaren bitartez, Aro Modernoa aztertuko dute. Izan ere, XVII. mendean kokatutako filma da; sasoi hartan espainiarrek indarrez hartu zuten Flandesko herri txiki bateko historia kontatzen du. Hizlari lanak egiten Alberto Angulok jardungo du. Badakizue, hitzordua, martitzenero moduan, 18:00etan, Kulturaten.

&gt; INAUTERIAK

### Ume jolasak, herri bazkaria eta beste Aratusteetako zapatuan, eta mozerro kalejira martitzenean

Besteak beste, otsailaren 2an, zapatua, 11:00etan ume jolasekin hasi eta iluntzera arteko ekitaldiak izango dira. Tartean, herri bazkaria egingo dute, 14:30ean, Uarkapen. Sarrera guztiak saldu dituzte dagoeneko. Horrez gainera, 19:30ean, Imuntzo eta Belokirekin dantza saioa izango da. Eta martitzenean, berriz, 16:30ean mozerroen kalejira izango da, 17:00etan pailazoak Amaia antzokian, 20:00etan Joselu Anaiak plazan eta 23:30ean, sardina-ehorzketa.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

**AGR**

García Ripa

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki 3 behea (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

 **Txitxinpe**

**Berezitasunak**

**Kazuelatxoak**

**Ogitarteko**

**hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**UGARAN**

Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

arbolapeta

 **beinke**


arrasate

*Lore*


- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

**ARKAUZ**  
MUEBLES  
ARETXABAETA




**ETXE MOBEL**  
ALTZARIAK  
ARRASATE




**ARKAUZ**  
COCINA INTEGRAL  
ARETXABAETA

**FAGOR**  
banatzaile ofiziala



**ARKAUZ**  
ELECTRODOMESTICOS  
ARETXABAETA

**expert**  
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.



# GRUPO ARKAUZ

ARETXABAETA • ARRASATE  
1950•2008

## berriaren eskutik



# G.P.U.N.T.U.A

IPUZKOAKO BERTSOLARI  
TXAPELKETA 2007



## Finaleko DVDa

Finaleko bertsoaldi hautatuak

### Urtarrilaren 26an eta 27an



+6 €

**Harpidedunentzako oharra:**

Prezioa 6€. Eskaria egiteko **943-30 43 45** edo **www.berria.info**

*Ipar Euskal Herriko irakurleok* DVDa lortzeko telefono honetara deitu behar duzue: **(00-34) 943-30 43 45**

Egilea: Gipuzkoako Bertsozale Elkarte



Aukera ezazu,  
BIZI euskaraz

# berria

## XAKEA

## Arrasatek Hondarribia izango du kontrario

X.U. &gt; ARRASATE

Arrasate San Andres Xake Taldeak zapatuan jokatu du ligako hirugarren jardunaldia, Hondarribian. Orain arte, San Andreskoek 4,5 puntu irabazi dituzte -Mundaroren eta Beasaingo Alfilden kontra-, eta bosgarren dira sailkapenean -Zarautz da liderra-. Biharko kontrario Hondarribia, berriz, zazpigarrena da, lau punturekin.

## ETXAGIBEL, GORA

Hori da berritasunetako bat, Asier Etxagibelek lehenengo taldean jokatu duela, alegia. Lehenengo taldean Luis Angel Ortega, Josu Tornay, Txema Hernando, Javi Larios, Asier Etxagibel eta Ramon Sebastian izango dira.

&gt; GIMNASIA ERRITMIKOA

### Eskola arteko txapelketa egingo dute bihar Uarkapen

Bihar, goiz eta arratsalde, A mailako eskola arteko txapelketa egingo dute Uarkapen, eta 70 gimnasta arituko dira nor baino nor gehiago, bost kategoriatan banatuta. Goizeko saioa 10:00etatik 13:30era izango da, eta arratsaldekoa 16:00etatik 18:30era.



HAMAHIRUGARRENA Hori da biharko helburua, Easoren kontra ligako 13. garaipena eskuratzea.

J.A.

SASKIBALOIA &gt; LEHENENGO MAILA

# Donostiako Easok ez du Legarciak beste estutzen

MUK Easoren bisita izango du bihar Iturripen (18:00); joan den asteko garaipenak erakutsi du, beste behin, taldeak badakiela sufritzen (76-78)

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Lizarran aldean lana gogotik egin da itzuli ziren joan den astean MUKo mutilak. Legarciak ondo estutu zuen jokalarik gazteztako liderra -MUKo hainbat jokalari min hartuta daude-, baina Arrasateko taldeak ondo sufritzen dakiela erakutsi zuen, azken arte amore eman barik.

Akaso, baikorregia da esatea biharko kontrarioak ez duela joan den asteko kontrarioak besteko burukominik sortuko. Jokatu-tako 13 partiduetatik bost irabazi ditu Easok, eta joaneko partiduan MU ondo nagusitu zen han (65-76). Donostiakoek abenduaren erdialdean eskuratu zuten azken garaipena eta ordutik jokatu dituzten hiru jardunaldietan ez dute punturik eskuratu. Aurrekari horiek dituen taldea izango da Iturripen, Iñaki Merinoren taldeari 13. garaipena eragotzi guran.

## BALIO HANDIKO GARAIPENA

Joan den asteko partidura itzultita, MU balio handiko bi punturikin itzuli zen Lizarratik. Lide-

rrak kostatako garaipenak erdietsi ditu ligan, baina gutxitan jokatu du horren partidu estua. Merinoren taldeak igarri egin zuen Jagoba Gamarraren eta Gorka Alartziaren hutsunea; gazteen laguntzarekin gainontzekoek gogotik egin zuten lan. Izerdia botata lortutako garaipena izan zen, lanerako buzoa jantzita eskuratzen den horietakoa. Gainera, gaizki hasi zuten partidua, 0-7ko errenta hartu zuen Legarciak.

## AZKEN JAURTIKETARI ESKER

Hasierako joko trabatua konponduta, partidu osoan zehar markagailuak tarte txikia erakutsi zuen. Hala, azken laurdena ez zen bihotzetik sufritzen dutenendako proposena izan: Azken minutuan (73-74) Zeziagak bi jaurtiketa libre sartu (73-76), baina Legarciako Bonetak hirukoia eginda erantzun zuen (76-76). Partidua amaitzeko 20 segundoren faltan egin zuen Antxonek partiduko jaurtiketa erabakigarriena, MURI garaipena eman ziona.

## futbitoa zaldibar

## EMAITZAK

Cipris-Kalapatzakj	7-1
Lasagabaster-Dribling	5-5
Equus-Betrayer	3-13
HLB 108-Iluntz	1-4
Abokajarro-McAwenDauen	4-6
Iriztu Taberna-Saukelu Abian	3-3
AT Celaya-Cicatruss	5-2
THC-Dublin Irish Pub	0-1
Ekaitz Taberna-Bar Kokots	2-5
Total Disaster-Iturriotz Taberna	4-8

## PARTIDUAK

Urtarrilak 26, zapatua	Epaileak
11:00 Iluntz-Ekaitz	Antolatzaile.
12:00 Cipris-AT Celaya	Antolatzaile.
13:00 Dublin-Abokajarro	Antolatzaile.
16:00 HLB 108-Equus	Antolatzaile.
17:00 Kalapatxak-Dribling	Antolatzaile.

## Urtarrilak 27, domeka

Urtarrilak 27, domeka	Epaileak
11:00 McAwen Dauen-Total Dis.	Antolatzaile.
12:00 Cicatruss-Lasagabaster	Antolatzaile.
13:00 Betrayer-Iturriotz	Antolatzaile.


## SAILKAPENA

	J	P
1. McAwen Dauen	24	8
2. Betrayer	19	8
3. Dublin Irish Pub	16	8
4. Cipris	16	8
5. Lasagabaster	13	8
6. Dribling	13	8
7. Saukelu Abian	13	8
8. Ekaitz Taberna	13	8
9. Iriztu Taberna	12	8
10. HLB 108	12	8
11. Iluntz	11	8
12. Iturriotz Taberna	10	8
13. Kalapatxak	10	8
14. AT Celaya	9	8
15. Bar Kokots	9	8
16. Equus	9	8
17. Cicatruss	6	8
18. Abokajarro	6	8
19. THC	3	8
20. Total Disaster	0	8

### Kopa jardunaldia asteburuan, eta THCri zigor gogorra

Bi kontu horiek azpimarratzeko aprobetxatuko dugu oraingo zutabea. Batetik esan, asteburuan Kopako final zortzirenak jokatu dituztela Zaldibarren, horrenbestez, ligak astebeteko atsedena hartuko du. Eta bestetik esan, joan den asteko partidura ez agertzean THC taldeak fidantza galdu duela, eta baita sei puntu ere. Hori horrela, talde hori sailkapeneko azkenaurreko lekura egin du jauzi. Eta, Ekaitzek ere fidantza galduko du, epaitzera berandu joatearren.

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

# BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



## Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebendun hizkiak

## Monte taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

kanpotarrak Arrasaten

Christian Arriagada > Txilekoa da  
Arrasaten bizi da

# "Nire lurraldetik gehien igarri dudana faltan Andeak dira"

JASONE ZABALA > ARRASATE  
Christian Arriagada txiletarra da, eta Hego Amerikatik Europarako saltoa 1999. urtean eman zuen, opor batzuetan Italiara joan zenean. Arrasatera, baina, duela bost urte etorri zen, eta gure artean oso gustura dagoela esan digu.

Christian Arrasatera heldu aurretik, Bartzelonan, Andorran eta Cambrils aldean egon zen. Arrasatera etortzearen arrazoiak azaldu dizkigu Christian Arriagadak: "Neskalaguna eta ni Cambrilsen bizi ginen, eta, hura Arrasatekoa denez, Euskal Herrira etorri zen ikastera, eta

ni, lanera". Arrasatetik eta inguruetatik gehien gustatzen zaiona paisaia da, bere lurraldeko hegoaldearen antz handia duela. Jendeari dagokionez ere, badute antza txiletarrek eta euskaldunek: "Jende ona eta langilea da", dio Arriagadak. Christian Arriagadari jatea asko gus-

**"Denetarik jaten dut. Txipiroiak bere tintan ikusi nituenean, hasieran atzera egin zidaten arren, asko gustatzen zaizkit"**



Christian Arriagada.

tatzen zaio, bai jatea eta baita prestatzea ere. "Denetarik jaten dut, baina esan beharra daukat txipiroiak bere tintan ikusi nituenean, hasieran atzera egin zidatela. Orain, ordea, izugarri gustatzen zaizkit. Horren harira, elkarte gastronomikoena oso ideia ona da".

**KULTURA ABERASTASUNA**

Kultura aldetik, zanpantzarrak asko gustatu zaizkio Arriagadari, baita herri kirolak ere. Gaur egungo garai moderno hauetan, gure kultura bizirik mantentze-arren egiten dugun esfortzua ere deigarria iruditu zaio. Euskarari dagokionez, hauxe dio: "Hizkuntza zaila iruditzen zait, baina ikas daitekeena. Orain ere, gutxi ulertzen dut".

Asteburuetan, normalean, Los Surkos izeneko koadrilarekin elkartzen da. "Niretzat lagun koadrila baino gehiago da, familia bat bezala". Arrasaten egonda Txiletik faltan igartzten duena familia da, eta baita Andeak ere.

bere ustez



Aitor Izagirre

## Etengabeko hauteskunde kanpaina

**H** auteskunde usaina nabari da berriro ere. Egia esan, aspaldian etengabe hauteskudetant gauden sentsazioa daukat. Emaitza batzuk oraindik bero-bero daudenean beste kanpaina bat dator, mila ekimen, publizitatea, emaitza berriak... Aitortu beharra daukat gogoko dauzkadala hauteskunde garaietan ikusten ditugun hainbat egoera, batez ere, politikoeke euren burua lurpetik ateratzen dutelako: gezurrak non-nahi, zuri-keriak ahoetatik barra-barra,

argazki zaharra



## 1987. urtean, Sola koadrilakoak Errioxan

Argazkikoak Arrasateko Sola koadrilakoak dira, 1987an Guardiara egindako irteera batean. Argazkian, beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Ana Lejarraga, Consuelo Zubizarreta, Nerea Sanzberro, Agustin Ugarte, Ainhoa Uriarte, Mikel Arkautz, Saioa Uriarte,

Luis Garate, Maider Garate, Arantza Ugarte, Maite Albes, J. Uriarte *Berni* eta Izaro Uriarte. Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Mikel Sanzberro, Juan Jose Uriarte, M. Karmen Albes, J. Luis Arkautz, J. Ramon Mendieta, M. Karmen Corbella, Arantzazu Zabalegi,

Amaia Azpiazu, Nerea Arostegi, F. Javier Uribealzo, Aketz Uriarte, Isabel Gomez, J. Luis Albes, Pako Guridi eta Maria Asun Garitano.

**Argazkia:** Jose Ignazio Isasmendi.  
**Testua:** Jasone Zabala.  
**Urtea:** 1987. urtea.

## "Konponduko al da noizbait egoera hau? Ba al dago borondaterik? Noiz arte?"

gerora ahaztuak izango diren promesak... Hau da, betikoak betikoan! Borroka lotsagabe horretan batek baino gehiagok bere ama ere salduko luke bozka baten truk.

Badaude beste gauza batzuk ordea ez hain gogokoak niretzat; Euskal Herrian adibidez, zaharrak berri; Madrilen negozioa egiteko asmotan dabilzanak, eta hauteskunde kanpaina luze honek irauten duen bitartean, hamaikatxo ikusten ari gara, berriro ere. Ezkor nago, ziur naiz gure egoerak ez duela hobera egingo, ez etorkizun hurbilean behinik behin. Madrilen nornahi boterean egonda ere, gure herriak betikoan jarraituko du. Konponduko al da noizbait egoera hau? Ba al dago borondaterik? Noiz arte?



# BEDONABE HAURRESKOLA

## Matrikulazio epea zabalik

**Noiz:** urtarrilaren 21etik otsailaren 1a arte.  
**Non:** Arrasateko Bedoñabe Haurreskolan (Alfontso VIII, 1)  
**Norentzat:** 2006 eta 2007 urteetan jaiotakoentzat.  
**Matrikulazio ordutegia:** 13:30etik 15:00etara eta 16:30etik 17:30era.  
**Noiztik - Nora:** Otsaila eta Uztaila bitartean hasteko.

**Harremanetarako zenbakia:**  
943 79 76 86





BERRIKETAN Irudian taldearen azken afaria. Makurtuta, erdian, Irune Igartua, Berriketan-eko arduradun berria.

JARDUN

EUSKARA &gt; JARDUN ELKARTEA

## Hika Lagun ekimena antolatu du Jardunek

Hika forma erabiltzera ohituta dauden herritarrak ikasi nahi dutenekin harremanetan jarriko dituzte, mintza praktika egiteko

**MONIKA BELASTEGI > BERGARA**  
Urte berriarekin batera, gogotsu dator Jardun euskara elkarte, eta ekimen berriak antolatzen dihardu. Berriketan egitasmoa-

ren osagarri gisa, hika berba egiteko ekimena sortu du. Hika Lagun du izena, eta helburua da hika forma ezagutzera ematea. Horretarako, harremanetan

jarriko dituzte hitanoz egiteko ohitura duten herritarrak hika egiten ikasi nahi dutenekin. Dagoeneko lehenengo urratsa eman du Jardunek; hau da, hika ikastaroa antolatu du. Irakaslea Juan Martin Elexpuru izango da eta eskolak martxoko lehenengo bi asteetan izango dira, astelehenetik eguenera, 19:00-21:00 ordutegian -16 ordu. Izenematea

dagoeneko zabalik dago eta prezioa da 30 euro, 27 bazkideendako. Izena emateko, jo Jardunen bulegora edo 943 76 08 19 zenbakira deitu.

Ikastaroaren ondoren eta egitasmoa gauzatzen hasteko, hikan jarduteko ohitura duten herritarrak Hika Lagunen parte hartzera gonbidatuko dituzte. Hala, ikastaroan parte hartu duten ikasleekin harremanetan jarriko dituzte, eta hiruko taldeak osatu, mintza praktika egiteko. Berriketan egitasmoan bezala, esandako taldeak astean behin, ordubetez, elkartzeko asmoa dute Jardunekoek. Bestalde, noizean behineko ekintzak ere egingo dituztela aurreratu dute.

### EGITASMO BERRIAK

Guraso Lagun eta Gazteak Berriketan egitasmoak ere martxan jarri nahi ditu Jardunek. Lehenengo guraso direnei dago bideratuta. Asmoa da haien umeendako astean ordubeteko zaintza zerbitzua antolatzea, modu horretan interesa duten gurasoek Berriketan egitasmoaren baitan astean behin egiten diren mintza praktika saioetan parte hartu ahal izango luketelako. Bestetik, Gazteak Berriketan egitasmoaren helburua da, gazte euskaldunak gazte etorkinekin batzea.

### BERRIKETAN-ERAKO IZENEMATEA

Bestalde, Jardunetik dei egin diete euskaldun zahar eta berriei. Gaur egun 50 bat lagunek dihardu, eta hiruko taldetan banatuta astean behin, ordubetez batzen dira euskara praktikatzeko. Berriketan-en parte hartzeko interesa duenak Jardunera joan edo 943 76 08 19 zenbakira deitu baino ez du.

### > JAIK San Paulo jaiak ospatuko dituzte uberarrek

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean ospatuko dituzte San Pauloak uberarrek. Gaur, San Paulo eguna, 11:00etan meza nagusia izango da eta 21:00etan, bakailao-jana egingo da, soinu-jolek lagunduta. Bihar, zapatua, meza nagusia egingo dute 11:00etan; 12:00etan, patata tortilla lehiaketa; 16:00etan, mus txapelketa eta umeendako jolasak, eta 18:00etan, txokolate-jana. Azkenik, bihar, domeka, 11:00etako mezaren ondoren, Moises Azpiazu dantza taldeak erakustaldia egingo du; Eibarko euskal jokoan erakustaldia ere izango da, eta salda eta txorizoa dastatzeko aukera.

### > JAIK San Bixente eguna ospatuko dute domekan, Parteittin

Angiozarko Parteitti auzoan San Bixente eguna ospatuko dute etzi, domeka. 12:00etan meza izango da eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute eta erromeria ere izango da inguratzen diren guztientzat. Gainera, aurreko urteetako ohiturari jarraituz, Arrasateko Hegiaundi baserriko Jabier Arregik urteko Kataide txakolina aurkeztuko du.

LANA &gt; MOBILIZAZIOAK

## Lanuzteak Candy Hooverren

**M.B. > BERGARA**  
Hilaren 9a ezkereraino hainbat lanuzte deitu ditu Candy Hooverreko enpresa komiteak -ESK, ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek osatzen dute-, eta abuztura arteko lanuzte eta mobilizazio egutegia ere prestatu dute -proposamenak botoen %63 izan du alde. Komiteko ordezkariak hone-

la azaldu dute arrazoa: "Enpresako zuzendaritzak ez du eskaintzen Metalaren Hitzarmen Probinzialak jasotakoa baino hobekuntza gehiagorik, eta horrekin batera inposatu egiten du lan egutegia, abuztuko oporrei dagokienez". Hain justu, enpresak KPIaren igoera eskaini die eta enpresa komiteak KPIa gehi bi


puntu nahi dituzte. Izan ere, azpimarratu dute aurten ekoizpena igo egin dela: "Jende kopuru berdinarekin orduko bi labadora gehiago egiten dugu". Zuzendaritzarekin akordiorik egon ezan hilaren 30ean egun osoko lanuztea egingo dute.

Zuzendaritzari dagokionez, ez du deklaraziorik egin nahi izan.



MOBILIZAZIOAK Eguaztenean, lau orduko lanuztea eta elkarretaratzea egin zuten. m.b.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

POL-POL  
Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



GIZARTEA > ODOL EMAILEEN ELKARTEA

# Odol Emaileen Elkarteak prest du aurtengo ateratzeen egutegia

2008an hogeia ateratze egingo dituzte, oraingoz Seminarioko ohiko egoitzan. Gazteei egiten diete bereziki dei, emaile egin daitezten

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Pozik azaldu da Fernando Idigoras Bergarako Odol Emaileen Elkartearen arduraduna 2007. urteko balantzea egiterakoan: "2002an, odol emateen joerak beherako bidea hartu zuen, eta halaxe izan da azken urteetan. Hala ere, 2007an, eta apala izan bada ere, igoera izan da. 1.329 emate izan ditugu, 2006an baino hamar gehiago; hala, badi-rudi gorako joera hartuko dutela emateek, eta hori pozgarria da".

Azken urteetako beherako joera Gipuzkoan oro har gertatu dela azaldu du Idigoras. Hala, aurtengo helburua Gipuzkoa guztian 3.000 emate gehiago lortzea dela gehitu du.

Hori lortzeko bidean, gutuna bidali diete emaile guzteei Gabon inguruan etxera, eta 2008ko lehen

ateratzea "zoragarritzat" jo du Idigoras: "81 emate zenbatu ditugu urteko lehen ateratzean, eta lau emaile berri. Badakit ateratze bakoitzean kopuru hori lortzea oso zaila dela, baina bakoitzeko, batez beste, 70 emate lortzen badi-tugu, pozgarria izango litzateke; kopuru hori da benetan ideala".

Kopuru hori lortzea odol emai-leen esku dagoela nabarmendu du Bergarako elkartearen arduradunak: "Emaile bakoitzak ohi due-

na baino emate bat gehiago egi-tea da kontua: bat egiten duenak bi egitea, bi egiten dituenak, hiru... Eta, nola ez, dei berezia egin nahi diet gazteei. Odola ematera ani-ma daitezen esan nahi diet, odo-la benetan beharrezkoa da-eta".

2008ko egutegiari dagokionez, 20 emate izango dira aurtengo martxoan eta abuztuan ez da emate-rik izango, ohi bezala, Seminario-an duten egoitzan. Egoitza aldake-tari dagokionez, Idigoras zera esan du: "Gaia, oraingoz, geldi dago, baina gu gustura gaude Semi-narioko egoitzan, herri erdian ego-nik, kokaleku ezin hobea da-eta".

## SARIA JASOKO DUTEN EMAILEAK

2007an ere izan dira 25, 40 eta 50 emateetara iritsi direnak. Hain justu ere, 25 emate egiteagatik zila-rrezko intsignia eta diploma jaso-ko dute 33 lagunek; urrezkoa, hiru emakumezko -40 emate- eta sei gizonek -50 emate-. Sariok urri aldera jasoko dituzte elkarteak inguruko beste herri batzuekin batera urtero egiten duen batza-rran. Idigoras aurtengo batza-rra Elgetan egiteko nahia azaldu du "han sekula ez delako egin eta emateekin oso ondo dabilzalako".

## Odol ateratzeen urteko egutegia

Urtarrilak 16 eta 30  
Otsailak 13 eta 27  
Martxoa (ez dago ateratzerik)  
Apirilak 2, 16 eta 30  
Maiatzak 28  
Ekainak 11 eta 25  
Uztailak 9 eta 23  
Abuztua (ez dago ateratzerik)  
Irailak 10 eta 24  
Urriak 8 eta 22  
Azaroak 5 eta 19  
Abenduak 3 eta 17

ITURRIA: ODOL EMAILEEN ELKARTEA

PSE-EE > SALAKETA

# PSE-EEK dio Bergara gauez "legerik gabeko herria" dela

Udalari eskatu dio, tabernen itxiera ordutegia bete ezean, "tolerantziarik ez izatea"

M.B. > BERGARA

Begarako PSE-EE alderdiak exijitu dio Udalari "mugak jar-tzea zaratari, zikinkerari eta hainbat tabernaren itxiera ordutegiari" eta bat egin du "herriaren erdiguneko hainbat tabernak sortzen duten zarata-rengatik salaketa jarri duten etxepekoen-batzordeekin".

Begarako PSE-EE alder-diaren iritziz, "onartezina da hainbat bizilagunek gauez lo ezinik egotea eta goizean ataria txizez eta botakaz beteta aurki-tzea". Baina are onartezinagoa da "gaua joan eta gaua etorri

herritarrok egoera salatzea, kexuak Udalera eroatea eta azken horrek erantzunik ez ematea". Horregatik guztiaga-tik eskatu diote Udalari "jardun" egin behar duela eta "hainbat tabernak eragiten duten zara-ta eta eragozpenen aurrean tole-rantziarik ez izatea". PSE-EEK gehitu duenez, herriko hainbat gune "legerik gabeko hiri" bihurtzen dira eta "halako aktuzioak ez direnez Ertzain-tzaren zeregin", eskatu diote Udalari "udaltzain kopurua han-ditzea gauez ere zerbitzua ema-teko, batik bat, asteburuetan".

> HEZKUNTZA

## Kromo eta jostailu azoka egingo dute etzi, domeka, San Martin Herri eskolan

San Martin ikastetxeak kromo eta jostailu azoka egingo dute etzi, domeka, 11:30ean, eskolako patioan. Ekitaldian, kromo eta jostailuak trukatu dituzte gaztetxoek, eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Bestalde, eta Aratusteei hasiera emateko, datorren Eguen-gizenean, hilak 31, Hartzaren Eguna ospatuko dute. Eskolako patioan egingo dute ohitura zaharrek jarrai-tzeko ekitaldi hori, 10:45-11:15 ordutegian.



**ARANZADI**  
ikastola

**Zatozte!**

**NOR**  
garen jakin  
nahi baduzue...

**ZER**  
egiten dugun  
ezagutu nahi baduzue...

**NOLA**  
lan egiten dugun  
ikusiko nahi baduzue...



**3 URTE**  
**BEGO**

**ZATOZTE**  
**ARANZADI IKASTOLARA**  
urtarrilaren 28tik  
otsail bukaera arte  
eta  
gure hezkuntza proiektua  
praktikan ikusiko duzue

Aurrez hitzordua hartu  
nahi izanez gero,  
deitu edo mezua bidali

San Martin plaza 4 • 943 76 90 71 • bergara@ikastola.net

MUSIKA &gt; IKUS-ENTZUNEZKOA

# Eskoziako birako irudien aurkezpena, gaur gaztetzean

2007ko abuztuan Edinburgon eman zituzten saioetako irudiak dira

Emanaldiaren ostean, kontzertua eskainiko du Bergarako hirukoteak gaztetzean

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; BERGARA

"Mahaster Riverren eboluzioa ikusteko aukera izango du gaur gaztetzera doanak", esan du DVDa egiteaz arduratu den Mikel Calvo bergararrak. 22:15ean izango da DVDaren aurkezpena, pantaila handian. Eta, horren ondoren, kontzertu akustikoa eskainiko dute Mahaster Riverrek eta Mikel Garatek.

2007ko udan Eskozian barrena egindako biran jasotako irudiekin egindako ikus-entzunezkoa da. 30 minutu irauten du. "Orain dela hiru hilabete eskai-



HIRUKOTEA Mahaster River taldekoak azken Danbaca lehiaketan, Elgetan.

GOIENKARIA

ni zidaten DVDa egiteko aukera. Eskozian grabatutako hiru ordu irudi eman zizkidaten; eta, nik hautatu eta muntatu egin ditut".

KONTZERTUA KATEDRALEAN

Ordu erdiko lanean, Mahaster Riverreko hirukoteak Edinburgon bizi izandakoa jasotzen da; hasi kalean emandako kontzer-

tuetatik eta taberna eta katedral batean eman zuten kontzertuetara. *Fringe* jaialdia aprobetxatu zuten bergararrek Edinburgon kontzertuak eskaintzeko.

UDALA &gt; DIRULAGUNTZAK

## Udalak erabaki du kultura taldeendako diru banaketa

Bergarako Orkestra Sinfonikoak jasoko du dirulaguntza handiena, 12.500 euro; guztira 39.825 euro banatu ditu Bergarako Udalak

A.E. &gt; BERGARA

Bergarako Udalak dagoeneko erabaki du kultura elkartei zuzendutako dirulaguntzak

nola banatu. Irailean aditzera emandakoaren arabera, diru irabazirik gabeko elkarteek herrian egiten duten lana lagun-

tzeko dirulaguntzak izango dira banatuko dituztenak. Ezinbestekoa da kalitatezko kultura eskaintzea eta, gainera, Bergarako izena lau haizetara zabaltea. Gainera, herrian egiten diren ekintzetan parte hartzea eta herritarren arteko elkartasuna bermatzea ere kontuan hartu dute laguntzak emateko orduan.

MUSIKA TALDE ASKO

Guztira, 39.825 euro eman ditu aurten Bergarako Udalak kultura elkartearen artean; guztira, 16 elkarteek izango dute laguntza. Horien artean, Bergarako Orkestra Sinfonikoak jasoko du dirulaguntza handiena, 12.500 euro. Bestalde, Bergarako Orfeoak 8.900 euro jasoko ditu. Ari-

tzeta abesbatzak 5.000 euro jasoko ditu Udalaren eskutik; eta Txurumilo kultura taldeak eta Musirakak 2.500 euro eta 2.150 euro, hurrenez hurren.

Beste 9.000 euro inguru Abarka (950 euro), Alai taldea (600 euro), Beart elkarte (950 euro), Beke elkarte (700 euro), Bergarako Buztinzale zeramika elkarte (1.000 euro), Bergarako Erreileno eta Tostoi Kofradia (650 euro), Moiazpi dantza elkarte (1.100 euro), Pol-Pol argazki elkarte (825 euro), Seilu eta Bildumazaleen Elkarte (700 euro) eta Taila elkartearen (1.000) artean eman ditu Udalak.

Modu horretan, elkarteek egiten duten lana eskertu gura du Bergarako Udalak.



IRURAK MARGOAK  
DISEINUA, S.L.


Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

ZABALA  
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

KONDE  
PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

&gt; MUSIKA

### Alaskaren Fangoriak joko du Jam aretoan otsailaren 9an

Kontzertua eskainiko du otsailaren 9an, zapatuan, Fangoriak Bergarako Jam aretoan. Sarrera 21,5 euro izango da aurrez erosiz gero; txarteldegian, berriz, 25 euro kostatuko da. Ateak 21:00etan irekiko dituzte.

Fangoriak azken lana, *El extraño viaje*, aurkeztuko du.

&gt; MAGIA

### Txan magoaren saioa Aratusteetako domekan

Saio magikoa eskainiko du Txan magoak Aratuste-domekan, Udal Pilotalekuan. Hain zuzen, 17:30ean izango da magia saioa.

Sarrerak 3 eurotan daude salgai kultura etxean eta Udal Pilotalekuko leihatilan; pertsonako sei sarrera hartu ahal izango dira.

&gt; MUSIKA BANDA

### Aratusteetako kontzertuko sarrerak, salgai

Bergarako Udal Bandak eta orkestrak kontzertua emanango dute otsailaren 1ean, 10:30ean, pilotalekuan. Aurtengo gaia Mexiko izango da. Sarrerak salgai daude Lazkano zapata dendan eta kultura etxean, 5 eurotan. Egunean bertan leihatilan egongo dira sarrerak salgai.



JAUJA  
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

# Kayak Taberna

## INAUGURAZIOA

Urtarrilaren 31n arratsaldeko 7etatik 9ak arte  
Guztiok gonbidatuta zaudete!

Matxiategi 3, behea  
**Bergara**

Tel.: 943 76 70 11



## ABY KEM

**DANBAKA))))))** LEHIAKETAKO II. EDIZIOKO IRABAZLEA

**DISKO BERRIA ZURE ESKU**



CDa: **10 euro**

Astehenekoko Goienkariako harpideduna bazara: **8 euro**

Eskaera egiteko deitu: 943 25 05 05 telefonora.  
Ordutegia: 9:30-13:30 eta 15:00-18:30 edo bidali e-posta: [idazkaritza@goiena.com](mailto:idazkaritza@goiena.com) helbidera.

Nahi baduzu, 3 euroren truke, etxera eramango dizugu.

Mikel Otero

&gt; Bergara futbol taldeko kapitaina

# "Halako mailetan, herriko jokalariekin aritzea nahikoa dela erakusten ari gara aurten"

JASONE ZABALA &gt; BERGARA

Mikel Otero 26 urteko bergararrak bizitza guztia darama, 13 urte zehazki, Bergarako Kirol Elkarte-ari lotuta. Txikitatik futbolekin hasi zen, eta gaur egun lehen erregionaleko taldeko kapitaina da, taldeko beteranoetarikoa. Aurten, taldea joko ona erakusten ari da, eta goiko postuetan dago. Aurten go denboraldiaz eta herriko futbolaren egoeraz hitz egin dugu harekin.

**Zenbat urte Bergarako kapitain?**

Aurtengoarekin hirugarren urtea dut taldeko kapitain.

**Nola baloratzen duzu denboraldi honetan orain arte egin duzuen lana?**

Denboraldi honetan gauzak oso ondo egiten ari gara hasieratik. Denboraldi positiboa izaten ari da. Lehen hiru partiduetan ez ginen ondo hasi, pixka bat zalantzakor, hiru partidutan puntu bakarra lortu genuen. Baina normala zen hasieran behintzat horrela ibiltzea, talde guztia berria baita aurten. Taldeki-deon artean konfiantza hartuaz batera gorantz joan gara, bai jokoan eta baita sailkapenean ere. Gainera, multzoko talde gazteena gurea da, eta taldeko mutil gazteak mailara egin arte, kostatzen da egiten da.

**Pasa den astean, hor goian zeundeten talde guztietatik zuek izan zineten hiru puntuak lortu zenituzten bakarrik.**

Bai, garrantzitsua da. Jardunaldi borobila izan zen. Kontuan hartu behar den beste gauza bat, talde honetan 22 jokalarik baldin bagaude, errotazio sistemari beti

sartzen garelako 18 jokalarik inguru, eta hori oso garrantzitsua da jokalariek fresko mantentzeko eta bigarren itzuli honetan orain arte erakutsitako maila mantentzeko.

**Datorren asteko partidua zuekin puntutan (30 puntu) berdinduta dagoen Rotetaren aurka da. Nola ikusten duzu partidua?**

Etxean jokatzeko asko egiten du; gainerak, aurten, inork ez digu oraindik irabazi. Nor bere etxean beti agertzen da senda-go. Gainera sailkapenean goialdean gauden sei taldeok antzerako maila dugu. Rotetaren etxean jokatu genuenean, 3-2 galdu genuen, baina sentazioak ez ziren txarrak izan eta punturen bat ekar genezakeela uste dut.

**Nolakoa da, zure ustez, lehen erregionaleko bigarren multzo honetan dauden taldeen maila?**

Denboraldi guztietan gertatzen da talderen bat beste batzuk baino indartsuagoa dela, eta hor goian egongo dela, baina gure multzoan ikusten dudana parekotasun handia da. Sailkapenean goian dagoen bati behean dagoen batek lasai asko irabaz diezaioke, eta alderantziz. Antzerako maila dago multzoan.

**Pasa den urtean, denboraldi guztian zehar 11 partidu galdu zenituzten. Orain, liga amaitzeko 13 partiduren faltan, hiru baino ez dituzue galdu. Zure ustez, zer esan nahi du horrek?**

Gauzak ondo eginda dena hobeto ateratzen da. Bestalde, eta nire ustez, datu garrantzitsua da pasa den urteko taldean kan-



Mikel Otero Bergarako lehen erregionaleko kapitaina.

JASONE ZABALA

**"Denboraldi honetan gauzak oso ondo egiten ari gara. Denboraldi oso positiboa izaten ari da"**

**"Gauzak orain arte bezala egiten badira, etorkizun oparoa ikusten dut"**

poko jokalarik asko zeudela eta aurten etxeko jokalariekin egin dugula taldea; jokalariek guztiak Bergarakoak dira. Halako mailetan jokatzeko, herriko jokalariekin jokatzeko nahikoa dela uste dut, kanpotik inor ekartzen ibili gabe. Gainera, baieztatzen ari gara esandakoa, hau da, etxeko jokalariekin bakarrik hor goian gaudela sailkapenean.

**Taldeko kapitaina zaren neurrian, zer esaten diezu taldekideei partidu bakoitzaren hasieran?**

Normalean entrenatzaileak hitz egiten du. Nik animuak ema-

ten dizkiet, zelaira beti motibatuta ateratzea, gogoz.

**Duela hiru urte preferente mailatik erregionalera jaitsi zineten. Gogorra izan zen, ezta?**

Bai, gogorra izan zen, jokariengatik eta baita elkartearengatik ere. Hasieratik zuloan sartu ginen eta ezin izan ginen atera.

**Beraz, mailaz igotzeko gogoa hor al dago? Zein da helburua?**

Bai, baina ez gaude igoerari begira orain. Helburua, talde gaztea izanda, jarraipena lortzea da, hazten joan behar den taldea da, eta ez diogu ezer eskatu behar gure buruari, partiduz partidu joan behar dugu. Hor goian egonda aurten igoko garelako diote zaleek, baina ez dugu horretan pentsatzen.

**Nola ikusten duzu taldearen etorkizuna?**

Gauzak orain arte bezala egiten badira, etorkizun oparoa ikusten dut. Baina orain arteko mantendu behar da, urtero jokalariek aldatzen ibili gabe.

## labegaraieta

### EMAITZAK

Niu Tim-Carboneros	4-4
Tiki Taka-K. Piperrak	3-5
Deportivo Oriente-Los Blus	2-6
Irubide-Belengua	4-3
CM Errotagain-Irish Pub	3-2
Hamaika Jintxi-Latinos. Com	6-7

### PARTIDUAK

Urtarrilak 27, igandea, barruan	Epaileak
09:30 CM Errotagain-D. Oriente	Irubide
10:30 Irubide-Hamaika Jintxi	D. Oriente
16:00 Irish Pub-Los Blus	Carboneros
17:00 Carboneros-C. Piperrak	Tiki Taka
18:00 Niu Tim-Tiki Taka	Belengua
19:00 Belengua-Latinos.com	Niu Tim.

### SAILKAPENA

	P	J
1. CM Errotagain	30	11
2. Komando Piperrak	27	11
3. Irish Pub	25	11
4. Los Blus	22	11
5. Carboneros	19	11
6. Tiki-Taka	16	11
7. Niu Tim	16	11
8. Belengua	14	11
9. Hamaika Jintxi	7	11
10. Irubide	6	11
11. Latinos. Com	3	1
12. Deportivo Oriente	0	11

## Latinos. Com-ek jokaturako lehen partidua irabazi egin du

Pasa den astean kanpotaratu izan zen El Mapek taldearen ordeztatu zen Latinos. Com taldeak jokaturako lehen partidua irabazi egin zuen. Sailkapenean bederatzigarren tokian doan Hamaika Jintxi taldeari 6 eta 7 irabaziz, eta emaitzak erakusten duen modura partidua gogorra izan zen.

Sailkapenari dagokionez esan, Errotagainek sendo jarraitzen duela lehen postuetan. Bestalde, Irish Pub taldeak sailkapenean postu bat igo du eta bigarren doa. Deportivo Oriente berriz, hamaika partidu jokatu ondoren, ez du oraindik punturik lortu, eta zaila izango du asteburu honetan punturen bat lortzea liderraren aurka jokatzeko baitu.

## EDEL TAPIZ DENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

**disdira**

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

**UREDERRA**  
ITURGINTZA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

## nire bidaia hura

Olatz Laborda  
Punta Kana > 2007ko urrian

## "Atsedenerako eta erlaxatzea nahi duen edonori Punta Kanara joateko esango nioke"

JASONE ZABALA &gt; BERGARA

Olatz Laborda bergararra amarekin joan zen pasa den urteko urrian Dominikar Errepublikako ekialde kostara, Punta Kanara, hain zuen ere. Biek ere, merezitako opor batzuk behar zituzten, eta ama-alabak eguzkia hartzeko leku aproposa ikusi zuten Punta Kanara.

Eguzkia eta atsedena hartzeko asmoz joan ziren Olatz Laborda eta ama Punta Kanara pasa den urrian. Amak oporrak zeuzkan, eta hau aprobeztatu zuten Punta Kanara joateko. Olatz Labordak esan digun bezala, gauza handirik ez zuten ikusi, intentzioa eguzkia hartzea eta erlaxatzea baitzen. Hoteleko inguruetan egon ziren gehienbat, eta baita ere bertako hondartzetan.

Hala eta guztiz ere, Punta Kanako barnealdean ere eman zuten bueltatxo bat. Bertan, oso ohikoa den kaña eta arroz sailak ikusi zituzten, baita tabako museoa bat ere, zehazkiago bertan oso ezagunak diren puruak.

## ETXE TXIKIAK ETA KOLORETSUAK

Bertako jendea nola bizi zen ikusteko, hango familia baten etxera joan ziren. "Bertako etxeak txikiak dira, eta kolore askotakoak", esan digu Labordak. Gainera, etxeetan bertan, kafea, kakaoa eta likoreak egin eta saltzen dituzte.

Herri gehienak bide ertzean daude kokatuta, eta bertako biztanleak bide ertz hauetan elkarrekin dira; asko eta asko, taldeka.

"Jende asko ikusten zen inguruetan, gainera, umeak ere ikusten ziren eskolara bidean jolastan. Dendak ere bazeuden bertan; guk fruta dendak, harategiak, bankuak... ikusi genituen. Herri txikiak dira, baina ondo gertatuta daude bertara joaten diren turistentzat", komentatu digu Olatz Labordak. Dendak zeuden txoko honetatik gehien hunkitu zituen, bai bera eta baita ama ere, kalean harategiko janaria zintzilik ikustea izan zen. Gaine-



Olatz Laborda.

**"Zoazen lekura zoazela, leku guztietan eskaintzen dute rona"**

**"Kostaldean izugarritzko hondartzak daude, hare zuri eta fina eta palmondoz inguratuta. Barnealdea hezeagoa da"**

ra, bertan, garai horretan egiten zuen beroaz, okela guztia eguzkitan zegoen. "Halako egoera bat Bergaran edo inguruko herriren batean ikustea ezinezkoa iruditu litzaidake, bai niri eta baita beste edozeini ere", esaten du Labordak.

## BERTAKO JANARIA

Janariari dagokionez, arroza, babarrunak, haragi xehatua, platan frijituak eta fruta tropikalak dira bertan gehien ikusten diren janariak.

Edariari dagokionez, ron a da bertan gehien edaten den edaria. "Zoazen lekura zoazela, leku guztietan eskaintzen dute rona", dio Labordak.

Bertako jendea oso jatorra da, Olatz Labordaren ustez. Nahiz eta gauza gutxi izan, umore onez daude egun guztia, gainera Karibeko musika daukate ipinita egun guztian zehar. Labordak esan digunaren arabera, eta gure

artean esatea ohikoa den *erritmo karibetar* era horretara egiten dute dena, hau da, dena poliki-poliki, lasaitasun osoz.

Bertan pozik bizi arren, pobrezia ugari dago, eta badaude bertatik Europa aldera etorri nahi dutenak ere. "Gure amari, adibidez, 5.000 euro eskaini zion bertako batek nigatik, berarekin ezkontzeko", komentatu digu Labordak, harrিতuta.

Paisaiari dagokionez, Labordak zera esan zigun: "Kosta aldean, izugarritzko hondartzak daude, hare zuri eta fina eta palmondoz inguratuta. Barnealdea, berriz, hezeagoa da, menditsua eta berdea, eta beste zati bat lehorragoa. Hezetasuna handia da, %90 inguru. Arratsaldetan, beti ekaitza egoten zen 15 minututan zehar". Berriz bueltatuko litzatekeen galdetu diogunean, Labordak baietz esan digu; "atsedenerako leku aproposa baita Punta Kana".



Olatz Laborda bere amarekin Punta Kanako hondartza batean kanoa baten.

## bere ustez



Iñigo Garitano

## Benetako partehartzearen oinarriak

Udala kezkatuta dago herriko kaleetan bizitarik ez dagoelako. Herriarekin elkarlanean eraiki nahi dugu etorkizunerako Bergara". (Udal aldizkari berria).

Udal arduradunek herritarren ahota dagoenarekin bat egitea bada aurrerapausoa. Eta lanerako tresna gisa esku harmena bultzatu nahi izana itxaropentsua.

Partehartzea benetako demokraziaren zutabea izan behar da. Nik horretan sinisten dut. Baina udal administrazioak, bere prozedura, usa-

**"Udala kezkatuta dago herriko kaleetan bizitarik ez dagoelako"**

dio eta beste hainbat faktorekin ez du aukera gehiegi ematen benetako partehartzerako. Arlo batzuetan herritarren proposamenetatik neurri zehatzak ondorioztatuta daitezkeela ikusten dut.

Zalantza gehiago dauzkate beste eremu batzuetan herritar soilen partehartzeak inolako eraginik izango duenik, gai askok duten interes ekonomikoak direla medio, adibidez. Seguruenik orain dagoen gobernu taldea inoiz egon den askeena da, hipotekarik eta inorekiko konpromisorik gabekoa. Horregatik dagoen sortutako itxarobideak ez zapuztea, iraganarekin loturak haustea eta ausartak izatea. Eta gonbidapenari heldu egin beharko genioke, nahiz eta prozesu horiek momentuz muga gaindiezina dituztela pentsatu.

- 📖 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- 📖 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- 📖 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!  
Eta **autoarena** **18** urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!

TABERNA

## ARLUTZ

*Gustuko musika*

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Ezbutu

TABERNA

Zatoz gure musikoz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel.: 943 79 92 01

VALDEZATE

Bokatak eta plater konbinatuak

Araba ibilbidea 5, behea - Tel: 943 25 07 40

**IOSU**

taberna  
harategia

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.: 943 77 03 08



Dorleta

Loteria primitiboak  
eta kiñielak

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA



OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67



**BASABE**

Menuak eta afariak

Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94



**Gurea**

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64



HIRUSTA JATETXEA

Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



hemen bada  
**giro!**

Matikua jatetsxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68



hemen bada  
**giro!**

OSPAKIZUNA > TXAPEL TXIN EGUNA

## Txapela jantzita, Aratusteei ongietorria

Eguaztenean jarri zituzten salgai Aratuste-domekako herri bazkarirako txartelak; ordurako 300 lagunek zeukaten izena emanda

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Txapel Txin egunak egingo die ongietorria aurtengo Aratusteei, bihar, hilak 26. Atxabaltako Karnabalen Lagunak izeneko taldeak antolatu du ospakizuna, eta Kultura Sailaren laguntza izan du. Ume zein heldu, txapela jantziarazi eta guztiak dantzan jarriko dituzte.

KALEJIRA ETA PREGOIA

Goiz partea umeendako izango da, eta 12:00etatik 14:00etara bitartean, gaztelu puzgarriak izango dituzte Herriko Plazan -eguraldi txarrarekin, Iturrigorri fron-

toian- gura beste salto eta jolas egiteko. Eta 17:00etan, Pirritx eta Porrotx pailazoen *Eskerrik asko!* ikuskizuna eskainiko dute kirol etxean.

Pailazoen ekitaldia bukatuta, 18:30ean, kirol etxe aurrera joateko dei egin du Karnabalen Lagunak taldeak. Baldintza bat jarri dute, gainera: txapela eroatea guztiak. Edozein eratako txapela izan daiteke, baita moztarrena ere, eta gura duenak aurpegia margotzeko aukera izango du. 19:00etan kalejira hasiko dute, Bentazarreko Mutilak izeneko taldeak girotuta. Gainera, liburuxkak banatuko ditu aipatutako taldeak, herritarrek kantuan egin dezaten.

Herriko hainbat gunetan geldialdia egin eta gero, 20:00ak ingururako Herriko Plazara iritsiko dira kalejirako kideak. Pregoia egingo dute orduan, eta gero, sagardoa eskainiko diete han elkartutakoiei. Txapel Txin eguna bukatzeko, Tanga Txin lasterketa antolatu dute, eta 03:00etan egiteko asmoa daukate koadrilek.


TXINO DANTZA, ERREFERENTZIA

Txino dantza hartu dute erreferentzia Txapel Txin izena jartzekoan. Izan ere, Aretxabaletako Aratusteei badute ezaugarri berezi eta bakarra: kintoek, kamisoi eta txapelarekin, Aratuste-domekan egiten duten dantza xeblea.

Lehenengoz antolatu dute Aratusteei ongietorria egiteko ospakizuna. Aratuste-domekan sortu izan den jai giroa izugarria izaten da, baina koadrilek aurrez piztu gura zuten jai giro hori. Gainera, buru-belarri dabilta koadrilek moztarrena gertatzen, batzuk Udalak utzitako lokalean -Copreci lantegi alboan- eta beste batzuk norberaren txokoan.

BAZKARIRAKO TXARTELAK

Eguaztenean jarri zituzten salgai Aratuste-domekako bazkarirako txartelak. Izena koadrilaka ematea eskatu dute, baina norberak erosi behar du txartela kultura etxean. Eguaztenerako 300 lagunek zeukaten izena emanda, baina 600 lagunendako dago tokia.



KARTELA Aritz Larrinagaren kartelak iragarriko ditu Aratusteei. ARITZ LARRINAGA

ARITZ LARRINAGAREN KARTELA

Kartel lehiaketa deitu zuen Udalak, Aratusteei iragartzeko. Zortzi lan jaso zituzten, eta astele-

nean aukeratu zuten irabazlea. Aritz Larrinaga aretxabaletarren kartelak iragarriko ditu jaiak, eta hark jaso ditu 300 euroak.

KONTZERTUAK > HAIZEA TABERNA

## Egubakoitzero daude musika kontzertuak Haizea tabernan

Gaur, urtarrilak 25, Gasteizko The Dogs of the Black Foot eta Aretxabaletako Scam taldeek eskainiko dute kontzertua, eta ez dute sarrerarik kobratuko

M.A. > ARETXABALETAKO

Egubakoitz guztietan antolatzen dituzte kontzertuak Haizea tabernan. Ez hori bakarrik, apirila arteko egutegia daukate eginda, eta herriko hainbat talde eta bakarlari zein inguruko talde asko gerturatu dira, aretxabaletarren gozagarri. Debalde dira kontzertuok.

KONTZERTUAK ETA BERTSO SAIOA

Gaur, hilak 25, Gasteizko The Dogs of the Black Foot taldea igoiko da Haizeako taula gainera. Punk estiloko abestiak eta rock ukitukoak eskainiko dizkiete entzuleei. Baina ez dira bakarrik egongo: Aretxabaletako Scam laukotea izango dute inguruan.


Hurrengo egubakoitzean, otsailak 1, Acapulco Gold Diggers taldea izango dute; otsailaren 8an, Bacon Maiden -Iron Maidenen bertsoak egiten dituzten Arrasateko musikariak-, eta otsailaren 15ean, Bergarako Mahaster River. Otsailaren 23rako, osteran, bertso saioa iragarri dute.



SCAM Danbako lehiaketan parte hartu zuen laukote aretxabaletarrak. GOIENKARIA



1979urtetik  
zure zerbitzura



# EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

## &gt; IKUSKIZUNA

**Pirritx eta Porrotx pailazoak bihar, 17:00etan, kirol etxean**

Pirritx eta Porrotx pailazoek *Eskerrik asko!* ikuskizuna eskainiko diete ume eta gaztetxoei bihar, 17:00etan, kirol etxean. Aurrez saltzeko zituzten sarrerak ordu erdian agortu ziren, baina 250 inguru dituzte gordeta bihar saltzeko. 16:30ean zabalduko dute kirol etxeke leihatila.

## &gt; OSASUNA

**Odol ateratzeak, urtarrilaren 29an eta otsailaren 4an**

Odol ateratzeak egingo dituzte osasun etxean urtarrilaren 29an, martitzena, eta otsailaren 4an, astelehena. Arabako odol bankuko arduradunak etorriko dira, eta 16:00etatik 20:00etara bitartean izango dira, osasun etxean, odola eman gura duten herritarren zain.

## &gt; IKASTAROA

**Jakiak Kolonbiako erara zela prestatu, astelehenean**

Astelehenean, hilak 28, Kolonbiako sukaldaritzaren gaineko ikastaroa egingo dute Muru Alde gastronomia elkarteak. Loramendi EEk antolatuta du, eta debalde da. 15:00etatik 17:00etara izango da ikastaroa, eta Kolonbian jakiak zelan prestatzen dituzten irakatsiko dute.



SARIAK Loramendi Literatura Lehiaketako sari banaketa ekitaldia gaur, 19:00etan, izango da.

M.A.

**EUSKARA > XIX. LORAMENDI LITERATURA LEHIAKETA**

# Sari banaketa, Literatura Lehiaketako irabazleei

8 eta 16 urte arteko ikasleek egindako 245 lan jaso dituzte, eta onenei gaur emango diete saria

**MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA**

Gaur, egubakoitz, XIX. Loramendi Literatura Lehiaketako sariak banatuko dituzte. Udaltxe zaharrea izango da ekitaldia, 19:00etan, eta Loramendi Euskara Elkarte arduradunekin batera Inaxio Garro alkatea eta Lore Martinez Kultura zine-

gotzia izango dira sariak banatzen. Aurten, gainera, gonbidatu berezia daukate, Karmele Igartua irakasle aretxabaletarra. Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatutako Felipe Arrese Beitia poesia saria irabazi zuen Igartuak, abenduan, *Hitzak orbaintan* poesia bildumagatik.

**BERTSOEK, GORA**

Tradizio handia du Loramendi EEk antolatutako eskola arteko literatura lehiaketak, eta iaz baino lan gehiago jaso dituzte, 245, hain zuzen. Lehen Hezkuntzako ikasleek, hau da, 8 eta 12 urte artekoek, ipuinak eta bertsoak egin dituzte. "Kopuru handia jaso dugu, eta bertsoak idaztera asko ausartu dira", adierazi digu Loramendi EEko kide Larratiz Inurategik. "Bertako euskalkian idaztea baloratzen dugu, eta herriko leku izenak erabiltzea. Baina konturatu gara askok behartuta erabiltzen dituztela, lekuok non dauden ere jakin barik", gaineratu du.

DBHkoek, 12 eta 16 urte artekoek, beste lan batzuk egin behar zituzten: komikiak, grabaketak, bertsoak eta maitasun gutunak. Lan gutxiago jaso dituzte horien gain; hala ere, maila polita daukate aurkeztutakoek. "Maitasun gutun asko jaso ditugu eta bertsoak ere bai; komikiak, sei, eta grabaketak, hiru. Komiki politikak ekarri dizkigute, eta batzuk, gainera, geure euskalkian idatzita daude", argitu du Inurategik.

**KIROLAK**

## Patinaje ikastaroa, otsailaren 9an hasita

16 urtetik gorakoendako da, eta hiru maila egingo dituzte

**M.A. > ARETXABALETA**

Kirol Zerbitzuak patinaje ikastaroa antolatu du, eta otsailaren 9an hasi eta apirilaren 12a bitartean egingo dute, zapatu goizetan. Hiru maila zehaztu dituzte eta hiru ordutegi ezarri: hastapena, 09:00etatik 10:00etara edo 12:15etik 13:15era, inoiz patinatu ez dutenendako; hobekuntza, 10:05etik 11:05era, patinatzen jakin bai, baina teknika hobetu gura dutenendako; eta trebakuntza, 11:10etik 12:10era, trebetasuna lortu gura dutenendako.

**IZENEMATEA, ZABALIK**

Izena emateko, kirol etxera deitu behar da, 943 71 26 28, edo [kirola@aretxabaleta.net](mailto:kirola@aretxabaleta.net) helbidera idatzi; azken eguna otsailaren 5a da. Debarroko kirol zerbitzuetako abonatuak 34 euro ordaindu beharko dute ikastaroa, eta gainerakoek, 40. Taldea sortzeko, gutxienez 12 lagun eskatzen dituzte.

## &gt; ESKI IRTEERA

### Eski irteera egingo du Murruxok otsailaren 16an eta 17an

Urteroko eski irteera egingo du Murruxok MEK, otsailaren 16an eta 17an. Luz Saint Sauveur-era joango dira, zapatu goizean, 05:00etan, autobusean aterata herritik. Bazkideek 95 euro ordainduko dute, eta gainerakoek, 100 euro. Prezioan honakoak sartzen dira: autobusa, afaria, lo egitea, gosaltzea eta aseguru-dun forfaiata. Izena emateko Murruxokora deitu, 943 79 93 74, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara.



## FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABALETA

Tel.943 77 00 33/79 42 56

## BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak  
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

## Mobiliario ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

## GARBITU KOOP. ELK.

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak

Obra bukaerako garbiketak

Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak

Kristalen garbiketak

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA

Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21

garbitu@euskalnet.net



Javier Azpiazu > Futbol saileko presidentea

# "Nire bizitza futbola da, eta horregatik jaso dut futbol federazioaren urrezko intsignia"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Javier Azpiazu (Oñati, 1949) Aloña Mendi futbol saileko presidentea da, 1999. urtea ezker. Era berean, hainbat urtetan Gipuzkoako Futbol Federazioan egindako lanagatik urrezko intsignia jaso du. Harekin hitz egin dugu omenaldiaz eta baita futbolaz ere.

**Hasteko, zorionak!**  
Eskerrik asko.

**Zergatik jaso duzu Gipuzkoako Futbol Federazioaren urrezko intsignia?**

1987an hasi nintzen federazioan lanean. Urte hartan egin ziren federazioko lehen hauteskunde demokratikoak, eta Juan Luis Larreairen taldeak irabazi zuen. Hortaz, 20 urte haietako errekozimendua da zapatuan jasotako intsignia. Federazioaren ikurra eta nire izen eta abizeneko lehen hizkiak daude.

Egia esan, oso pozik nago jasotako omenaldiarekin; izan ere, kilometro asko egin ditut futbolaren alde lanean. Gaur egun, gazteen artean epaile berriak lortu gura ditugu, eta horretarako kanpaina hasi dugu.

**Noiz hasi zinen futbolekin?**

Soldadutzatik etorri nintzen urtean, 1974an, hain zuzen, hasi nintzen lagunekin jokatzen. Orduan, San Lorentzoko futbol zelaian txapelketak antolatzen hasi nintzen. 1975etik 1977ra Aloña Mendi futbol saileko presidente izan nintzen; eta, ondoren, urte askotan, 1978tik 1999ra, Jose Luis Agirre presidente zela, elkarteko diruzain. Eta, 1999a ezkerko futbol saileko presidentea lanak egin ditut.

**Gehienbat, ezaguna zara futboleko batzordean egindako lanarengatik; baina, futbol jokalaria izan zinen?**

Donostiako hondartzan jokatzen den futbol txapelketan jokatzen nuen bi urtetan; baina, Akilese tendoiaren lesioa izan nuen, eta futbola utzi nuen.

**Hortaz, esan daiteke futbola zure bizitza dela?**

Zalantza barik, bai. Futbola nire bizitzako zatirik inportanteena da. Lan handia egin dut harrobiko taldeekin. Era berean, herriko futbol txapelketan epaile lanak egiten ditut, oraindik ere.



Javi Azpiazu jasotako urrezko intsigniarekin.

MARIAN GONZALEZ

**"Bi urte jokatu nuen futbolekin, Donostiako hondartzan jokatzen den txapelketan"**

**"Harrobiko futbolarekin jarraitzeko zelai dezente bat behar dugu herrian"**

**Futbol eskola jarri duzue mar txan duela gutxi. Nolako erantzuna jaso duzue?**

Gure azkeneko apustua izan da, eta neska-mutikoen erantzuna oso ona izan da. Baina, orain, harrobiko futbola hartuko duen zelai dezente bat behar dugu, lehenbailehen.

**Iñaki Badiolari babes osoa eman zion Aloñak. Azken egunetako aldaketekin, zuen jarraia aldatu egin da?**

Egia da ez genituela Salva Iriarte, Chris Coleman eta Pako Aiestararen agurrak espero. Baina guk uste dugu batzorde berriari denbora eman behar zaiola, urduri jarri barik.

> HEZKUNTZA

**Haur eskolan izenemate epea zabalik dago**

Olakua auzoko 7. zenbakian dagoen Txiki-Txoko haur eskolan eskolak martxoan hasi gura dituzten umeendako izenemate epea zabalik dago.

Otsailaren lehen bukatzen den epea, 0-1 eta 1-2 urteko haurrendako da. Hortaz, interesa duten umeen gurasoek haur eskolatik bertatik pasa behar dute beharrezkoak diren inprimakiak betetzeko, edo informazioa eskatzeko. Baldintza bakarra bete behar da izena emateko: haurrak lau hilabete baino gehiago izan behar ditu.

Epea ixtean haur eskolak dituen 11 plazak baino izen gutxiago hartzen badira, eskolak otsailaren 6an hasiko dira.

> SALMENTA

**'Cincuentones' antzezlanerako sarrerak, salgai**

Aratusteetarako Udalak antolatutako egitarauan iragarritzen den *Cincuentones* antzezlanerako sarrerak salgai jarri dituzte asteon. Hala, otsailaren lehen, Santa Ana antzokian egingo den ikuskizunerako sarrerak 10 eurotan eros daitezke kultura etxeko sarreran, arratsaldean, 16:30etik 20:30era. Janfri Topera, Kike Diaz de Rada eta Paco Obregon dira JP Producciones taldeak eskainiko duen laneko protagonistak.

Era berean, salgai daude Glu-Glu taldeak haurrendako eskainiko duen *Handitan* antzezlanerako sarrerak: hiru eurotan daude salgai kultura etxean. *Handitan* emanaldia otsailaren 2an izango da, Santa Anan.

> ZOZKETA

**Asobal ligako partiduan saritutako zenbakiak**

Aloña Mendi eskubaloitako taldeak antolatuta, Arratek eta CAI Aragon taldeek jokatutako partiduen bukaeran, zozketa egin zuten antolatzaileek. Bi zenbaki sarituak hauek izan ziren: lehenengo saria, Txanda elkarteko dendetan gastatzeko 1.000 euroko txartela, 1.395 zenbakiak irabazi zuen (ordezkoa 232 zenbakiak izango da). Bigarren saria, urdaiazpikoa, 744 zenbakiak eskuratu du, eta ordezkoa 923 izango da.

Bi zenbaki hauek hilabete epean egongo dira indarrean, bestela ordezkotako zenbakiak erabiliko dira. Jabeek eskubaloiko kideekin harremanetan jarri behar dute.

ERRETIRATUAK > INFORMATIKA

## Argazki digitalari buruzko ikastaroa

Urtarrilaren 7an hasi zuten Pake Lekuko hamasei erretiratutako ikastaroa

Teoria eta praktika lantzen dituzte, Gorka Salmeron irakaslearen aginduetara

M.B. > OÑATI

Pake Leku erretiratuen elkarteak, gaztelekuaren laguntzarekin, argazki digitalaren mundua ezagutzeko oinarriko ikastaroa antolatzen du. Urtarrilaren 7an hasi zuten ikastaroa hamasei lagunekin, eta, otsailaren 30era arte, astero bi egunetan, astelehen eta martitzenetan, elkartuko dira: teoria erretiratuen elkartean bertan lantzen dute, eta praktika, gazteleku informatika gelan.

IKASTAROA

Gorka Salmeron legazpiarra da irakaslea, eta hark azaldu digu ikastaroaren nondik norakoak: "Oinarri-oinarriko ikastaroa da; argazkigintzaren hasierako kontzeptuetatik hasi gara", azaldu zigun Salmeronek, "eta hasierako klaseak nahiko astunak dira, hitz berri asko erabili behar direlako: diafragma, obturadorea... baina erretiratuek ikasteko gogo handia dutela erakutsi dute. Ni oso gustura nago".



ERRETIRATUAK Argazkian, informatika gelan argazkiak deskargatzen.

M.B.

Astelehen arratsaldean egon ginen erretiratuekin gazteleku informatika gelan, eta burubelarri zeuden argazki kamerak deskargatzen. "Kontzeptu berriak lantzen gabilta, baina, momentuz oso gustura gaude", esan zigten ordenagailu aurrean.

Otsailaren 30ean bukatuko den ikastaroaren helburu nagusia "argazki onak egiteko kontutuan hartu behar diren kontzeptuak menderatzea" izango da. Hori lortzeko, astelehenero eta martitzeneko informatika gelan elkartuko dira.

Arbiñosteko hiru puntutan lur kutsatuak aurkitu dituzte

Lurren kutsadura txikia izango dela uste du Udalak

Santa Anan beste aparkaleku bat egokituko dute

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Santa Marina edo Arbiñoste inguruko orube handian, hainbat etxebizitza eraikiko dituzten lurzoruan, lur kutsatu batzuk aurkitu dituzte lanak egiten dabilzan arduradunek.

Hiru dira lur kutsatuak aurkitu dituzten puntuak: bata, Santa Ana auzoan orain dela hilabete batzuk egokitu zuten aparkalekuaren albo baten; beste bat, orubearen erdialdean; eta hirugarrena, Isasmendin.

#### LUR HORREN AZTERKETA

Jaurlaritzako Orubide dabil lurrak aztertzeko kudeaketa lanak egiten, eta Cespa Conten eta Terranova enpresek egingo dute lan hori. Hain zuzen ere, lur horien laginak Herbehereetara eramane dituzte aztertzeko. Udaleko eta Orubideko arduradunek ez dute uste lur horiek kutsadura berezirik izango dutenik, baina, emaitzak jaso ahala, lur gehiago aterako dute, aztertzen jarraituko.

**LANAK > ARBIÑOSTE**

# Arbiñosteko hiru lekutan lur kutsatuak aztertuko dituzte



**APARKALEKUAN ALDAKETAK** Santa Anako ohiko aparkalekuan zulaketak egingo dituzte, eta lanak egin bitartean beste aparkaleku bat egokituko dute. **IKER BARANDIARAN**

Horren ondorioz, baina, Santa Anako aparkalekuko zati bat itxi egin beharko dute denboralditxo baten.

**MARTITZEN ILUNTZEAN, HUTSIK**  
Hala, Udalak deialdia egin die Santa Anako auzotarrei martitzen goizerako, hilaren 30ean,

autorik han ez aparkatzeko. Asmoa da eguaztenez zuloa egin hastea. Hala ere, auzotarrei ahalik eta eragozpen txikienak

sortzeko asmotan, Udalak eta Orubidek beste aparkaleku zati bat egokituko dute gaur egungoaren alboan, erabili ahal izateko.

**UDALA > KONTRATAZIOA**

## Udaltzain berria, astelehenetik

Udalak behin betiko bigarren udaltzaina kontratatu du; lanean hasi berri da


**I.B. > ESKORIATZA**

Astelehenean beste udaltzain bat hasi zen lanean Eskoriatzako Udalean. Hala, behin betiko udaltzaina lortzeko prozesua bukatutzat eman dute.

2007ko maiatzean zabaldu zituzten lehiaketako oinarriak. Hamar lagun aurkeztu ziren, baina zortzi onartu zituzten azterketa egiteko, eta horietatik hiru bakarrik aurkeztu ziren. Azkenean, Sopuertako Iban Fernandezek eskuratu du lanpostua.

**LEHEN ERE UDALTZAIN IBILITAKOA**  
Fernandezek 29 urte dauzka, eta dagoeneko hainbat urte egin ditu udaltzain Abanto-Zierbenako eta Galdakaoko udaletan.

Fernandezek kontatu digunez, bi udal horietan lan egin ostean atsedean hartzea erabaki zuen,



**IBAN FERNANDEZ** Sopuertakoa da udaltzain berria. **IKER BARANDIARAN**

eta atsedean hori euskara ikaste-ko baliatu zuen. Hala, Zornotzako barnetegi baten denbora luzea egin zuen, eta euskara maila egokia lortu du.

#### HAINBAT ZEREGIN IZANGO DITU

Iban Fernandez udaltzain berriak orain arteko Ibon Segura udaltzainari lagunduko dio hainbat zereginetan. Eginbeharren arte-

an, hauek izango ditu: zirkulazioa kontrolatu, isunak jarri, jakinarazpenak eman, bandoak zabaldu, galdutako txakurrak txakurtegira eramane eta abar.

Fernandezek azaldu digu oso itxura ona eman diola Eskoriatzako: "Herri lasaia eta atsegina dirudi, eta udaletxean oso ondo hartu naute. Gogoz nator hona lan egitera".

**OSPAKIZUNAK > ARATUSTEETAKO OHITURA ZAHARRAK**

## Urdelardero eguna eta Kukumarroak herrian

Urdelardero eguna ospatzeko ohiturari Eskoriatzan bakarrik eusten diote

Kalejira amaitutakoan, 11:30ean, Herriko Plazan txistorra banatuko diete herriko txikienei.

Honako kantua abesten dute herrian: *Urdei lardero / urdeixa janda / bazkaixa gero / hor goixen iturri bat / haren gainean txori bat / ura pil-pil etorri da / Etxekoandre zabala / etxe oneko alaba!*

**I.B. > ESKORIATZA**

Dagoeneko bada Aratusteen usaina inguruan, hurbil daudelakoan-edo. Eskoriatzan, gainera, antzinako tradizioak galdu beharrean, halakoak berreskuratzeko ahaleginak egin dituzte.

Esaterako, eguenean, hilaren 31n, Urdelardero eguna egingo dute. Beste herrietan Eguen-gizen deitzen dioten horretan, Eskoriatzan ume eta gaztetxoak baserriar jantzita irteten dira. Ez hori bakarrik, kalez kale kantuan ibiltzen dira eskuetan ziria dutela. Eta ziri horren barruan, txorizoa, ogi zatia, sagarra edo beste janariaren bat eramane dute, euren gura dutena. Eskoriatza da ohitura hori duen herri bakarra.

#### KUKUMARROAK, BELDURTZERA

Aspaldiko tradizioekin jarraituta, otsailaren 5ean, Aratuste-martitzenean, kukumarroak irten-go dira Eskoriatzako kaleetara, 18:30ean.

Kukumarroak Aratusteetako pertsonaia bereziak dira, eta iraganean mendian bizi ziren basagizonak irudikatzen dituzte. Gerrian, loredun amantala jantzita daramate, heltzear dagoen udaberriaren seinale; eta bizkarrean, ardi-larrua, bukatzear dagoen negu gorria irudikatzen. Herritarrak beldurtzen saiatuko dira, umeek iseka egingo dieten arren.

KULTURA > INKERNU TABERNA

# Musika eta antzerki emanaldiak Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik

Otsailean zehar bost emanaldi egingo ditu Aitzorrotz kultura elkarteak Inkernu tabernan: antzezlan bat eta lau kontzertu, hain zuzen ere

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Aitzorrotz kultura elkarteak dei egin du Aratuste-zapatuan *abordatzea* egiteko. Horrekin gonbidapena egin gura dute pirataz mozorrotzeko.

Behin Aratustek eta mozorro-parrandak albo batera utzita, otsaila musika eta antzerki emanaldiz josita dator Inkernu tabernan. Hilaren 15ean Gasteizko The Freetangas taldeak kontzertua egingo du, 22:30ean. Ortophonk taldeko kide batek gidatutako hirukoteak esperimintatzea du gustuko: punka, psikodelia eta beste batuko dituzte. Are gehia-



TALDE APURTZAILEA Gasteizko The Freetangas hirukoteak esperimintatzea du gustuko.

GOIENKARIA

go, Inkernun egingo duten emanaldian *Are you free?* diskoa aurkeztuko dute, musika egiterakoan guztiz aske diren adibide.

**ANTZERKI UMORETSU-KRITIKOA**  
Asteburu horretan ez dute agertokia kendu behar izango, zapatuan antzerki emanaldia izango

dute-eta. Deustuko (Bilbo) Gilkitxaro taldeak *Honolulu leku bat* ikuskizuna egingo du jendaurrean, 22:30ean.

Gilkitxaro taldeak, orain arte egin dituen lan guztietan moduan, umorea eta kritika uztartuko ditu Eskoriatzan.

Ikuskizun horretako protagonistek, Lulu eta Elmerrek, erabakiko dute etxebizitza baten jabe izan beharrean, erosketa horrek ordezkatzen dituen balioak bizi izatea; askoz zoriontsuagoak izango dira. Aktoreak Galder Perez eta Ane Zabala ezagunak izango dira.

**YAKUZI, PUNTA-PUNTA TALDEA**  
Hilaren 22an ezohiko kontzertua egingo dute, ohiko orduan, Transalpine Boys In Iceland izenpean. Fermin Muguruzarekin, The Solanosekin eta beste hainbat taldeekin aritutako Oskar Benasen proiektu berria dugu hori, akustikoa.

Hilabetea bukatzeko, otsailaren 29an, Elorriko Yakuzi taldeak kontzertua egingo du. 2006an Bilbo Hiria pop-rock lehiaketako irabazleak izan ziren. Doinu intimoak eta indartsuak batzen dituzte.

MUSIKA > ROCKA

## Latzenen sarrerak, datorren astean

Hilaren 9an, Latzen, Governors eta Aby-Kem taldeek joko dute Eskoriatzako kiroldegian

**I.B. > ESKORIATZA**  
Latzen taldeak, Governors eta Aby-Kem taldeekin batera, otsailaren 9an Eskoriatzako kiroldegian emango duen kontzerturako sarrerak datorren astean jarriko dituzte salgai. 14 eurotan eskura daitezke aurretik, eta 17 eurotan, txarteldegian. Eskoriatzan, Inkernu tabernan egongo

dira salgai; Arrasaten, Ekaitzen; Bergaran, Popisen; eta Oñatin, berriz, bi tabernatan: Akerren eta Bogan.

Oñatiarrek Eskoriatzako kontzertuaren soinua eta irudiak grabatuko dituzte, DVDa egiteko. Latzen taldea oso harrera ona jasotzen dabil kontzertuetan, eta taldekideak oso pozik daude.

## Pasabidea, moztuta gaur arratsaldera arte

Eguaztenetik gaur arratsaldera arte, herri sarrera gainetik doan bidegorriko pasabide-zubia itxita egongo da.

Autobideko lanak egiten dabilzan enpresek jakinarazi ziguten egun horietan harrobiko materiala garraiatu behar zutela, eta arriskutsua izan litekeela zubian ibiltzea. Bestalde, bidegorrian zehar ibiltzeko ez dago inolako arazorik.



IKER BARANDIARAN



ITZULERA Latzen taldeak jarraitzaile asko batu ditu itzuleran.

GOIENKARIA

ILE APAINDEGIA



APAINDU

San Juan kalea 12c behea  
ESKORIATZA

Tel.: 943 08 26 40

bere ustez



Tomas Larrañaga

Jaten duguna gara, Kalitatea jaten dugu?

**H**ala dirudi behintzat, gosea gaindituta dugu; gaingaituta baino, gehiegi jaten dugu, arazo bihurtu zaigun arte. Munduarekin ez gara oso solidarioak.

Dena topiko edo itxura kontua al da? Kezkatzen al gaitu benetan egunean hiru aldiz jaten dugun elikagaiak? Etxe-ko dieta nolako da?

Lehendabizi barkamena: baserriarra naiz. Pentsatuko duzue ez naizela aditua eta pixa nire eguneroko lanetik kanpo egiten ari naizela. Nahi dut buruari bira batzuk em-

**"Gertutasunak eta ekoizten erabiltzen diren tresnek ematen digute gorenko balioa"**

naraztea eta bide batez, gure eskualdean baserriak duen egoera salatzea.

Baserria hilik dago; gure bailarako baserri gehienak lo egiteko erabiltzen ditugu eta lanean jarraitzen duten bakar batzuk nagusiak edo oso nagusiak dira. Lehen sektorea desagertuta dago. Gertutasunak eta ekoizten erabiltzen diren tresnek ematen digute gorenko balioa.

Orain gutxira arte, baserriak kudeatzen zituen baserriko lurrak kanpoko tresna berezi gabe, bertan batutako haziekin, ongari naturalekin, pestizida eta gasolio gutxirekin eta plastiko gabe. Autosufizienteak ginen, jasangarritik eta ekologikotik oso gertu. Orain kanpoko erosten dugu, merkeagoa? Ez.

ONDAREA &gt; PARROKIA

## Parrokia berritzeko lanetarako 73.327 euro eman dituzte herritarrek

Udazkenetik aurrera, eliza barrua konpontzeko obretan hasten direnean, elizkizunak Antiguako ermitan egingo dituzte, aurrez jakinarazita

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ANTZUOLA

Parrokiaren zaharberritze lanen ardura dutenek herritarrei esker eman nahi dizkiete. Izan ere, euren aurreikuspenak gaindituz, 73.327 euro jaso dituzte antzuolarrangandik eliza konpontzeko.

Lanak martxa onean doaz. Goiko erreteila amaituta dago, hasi dira azpiko teilatuen erreteila egiten, eta berehala amaituko dutela uste dute. "Behar bada, elizpekoa egiteko, denbora luzeagoa beharko da, lan konplexuago delako", esan digu lantaldeko Iñigo Ramirez de Okarizek. Dena dela, teilarik ez da ipiniko kanpandorrea bera amaitu arte.

Dagoeneko hasita daude kanpandorrearekin. Harria pikatu, gaizki dagoena porlanarekin konpondu eta garbitu egingo dute. "Kanpandorrearen goiko alde apaintzeko ipinitako kareharrizko lauza batzuk oso egoera txarrean daude, eta, jausiz gero, sekulako kaltea egin dezaketenez, konpontzea erabaki dugu. Horretaz gain, ordulari eta tximistorratz berriak ipiniko ditugu".



KANPANDORREA Goiko aldeko lauza konpondu behar dira, ez jausteko. IÑIGO RAMIREZ

Era berean, eskolako patioaren aldetik elizarako sarrera berria egiteko eta urak kanalizatzeko lanak ere hasiko dira. Lehen fasea 2008ko maiatzeko amaitzea espero dute. Barruko lanak 2008ko udazkenean hasi nahi dituzte: garbitu, margotu, soinua eta argiteria, aldarea, margolan artistikoak eta organoa berritu...

HERRITARREI LAGUNTZA ESKE

Batzordearen arabera, lehen faseko aurrekontua 600.000 euro da, eta bigarrenakoa, 800.000 euro. Diputaziotik, Udaletik, Donostia-ko Elizbarrutitik eta herritarrengandik jasotako dirulaguntzak ez dira nahikoa gastuei aurre egiteko. Hortaz, berriz ere joko dute herritarrengana laguntza eske.

MUSIKA &gt; TXISTUA

## Herriko txistularien kontzertua izango da domekan udaletxeko areto nagusian

Txistulariek Bergarako Metal Boskotea, Oinarin taldeko dantzariak eta Antzuolako Abesbatza izango dituzte lagun

I.A. &gt; ANTZUOLA

Domekan, 12:30ean, udaletxeko areto nagusian, Txistulari Taldeak emanaldia egingo du, Bergarako Metal Boskotea lagun duela.

*La Montañesa* kalejira; *La Pilindros* jota; *Adan eta Eba* polka; *Antzuolako Sorgin Dantza*; *Monjardin* pasodoblea; *Araban Bagare*; *Maitetxu Mia*; *Goizeko*

*Izarra*; eta *Anaitasuna* izango dira joko dituzten piezak. *Antzuolako Sorgin Dantza*-n, Oinarin Dantza Taldekoen laguntza izango dute, eta, azken lau doinueta, Antzuolako Abesbatzarena.

Baliteke hori izatea txistulariek udaletxean egingo duten azken kontzertua. Hurrengo gizarate etxean izatea espero dute.

MUJKA HARATEGIA



**Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

bere ustez



Eduardo Zubiaurre

## Konpromisoa eta iraupena

**E**dozein enpresa edo erakundetan pertsonak dira ondasunik baliotsuena. Hau da, gizakiok ditugun gaitasun eta ahalmenak talde lanean zuzen bideratzeko gai garenean talde horrek garapen eta iraupen oparoagoa du.

Hori gerta dadin ezinbestekoa da taldearekiko pertsonen konpromisoa lortzea. Psikologiaren arabera konpromisoak pertsonen artean bakarrik gertatzen dira. Ideial, erakunde edo kontzeptu abstraktuekin baino pertsona jakin batzuekin konprometi-

**"Merezi duen zerbaitetan aritzeak gozamina sorrarazten digu gizakioi"**

tzen gara. Gure sentimendu, itxaropen edo beharrek in bat datoen horiekin, alegia.

Eduardo Punset-ek bere azken liburuan honela dio: *Bizidunoi irautea bermatzen digun funtsezko faktorea osagarri sentitzen dugun beste horrekin elkartzeko joera da.* Ulertzekoa da, beraz, irauteko merezi duen zerbaitetan aritzeak gizakioi sortarazten digun gozamina. Maite ditugunei laguntzea, adiskideak egitea, beharrak elkarlanean asetzea... Badirudi, beraz, elkarrenganako konpromiso barik oso zaila dela irautea. Eta era berean, iraun ahal izateko ezinbestekoa dugula norbanakoen konpromisoa lor dezaketen erakunde eta baldintzak sortu eta mantentzea.

**((112))  
SOS DEIAK**



BI ZATITAN Lehenik eta behin, arkupean eta Lasao kalerainoko zatian egingo dituzte lanak.

L.Z.

**HIRIGINTZA > SALBADOR KALEA**

# Datorren astean itxiko dute arkuko pasabidea

Ur hornidura ziurtatzeko lanak egin behar dituzte eta Kataideko arkupean egingo dituzte lehenengo lanak, eta bizpahiru egun iraungo dute

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Duela bi aste hasi ziren Salbadore kaleko obrak egiteko prestaketa lanekin Aretxabaletako Amaral de Sousa enpresako beharginak. Bada, Udaleko Edorta Silvak aurreratu duenez, hurrengo astean hasiko gara urbanizazio lan horien eragina sumatzen: "Lehenengo lanak arkupean egingo dituzte. Ur hoditeria berriztatua dago frontoi pareraino, eta lotura egin behar da", azaldu du.

"Bidea itxita egongo da hor, eta Salbadore kalera bideratuko dugu zirkulazioa". Egoera horrek bizpahiru egun iraungo duela uste du; "gehienez, bost bat egun".

**LEHENENGO, LASAORAINO**

Salbadore kaleari dagokionez, bi zatitan egingo dituzte lanak, zirkulazioan ahalik eta arazo gutxienez sortzeko: "Lehenengo fasean, Elkoro botikatik Lasao kalera bitarteko zatia egongo da itxita",

esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Hoditeria askok egiten dute bat puntu horretan. Udaletxean ditugun planoak, gainera, ez dira fidagarriak eta asteotan egindako indusketetan gas hoditeria leku beretik pasatzen dela agertu da. Baliteke makineriarekin egiten den lana eskuz egin behar izatea".

Lehenengo fasea noiz amaituko den esatea oso zaila da. Bitarte horretan, bidegurutzak hori guztia itxita egongo da.

**AURREKONTUAK > MENDI MUSEOA**

## Mendi museoa ez da udal gobernuaren lehentasuna

Oposizioak esan du aurrekontuetan ez sartzea Udalaren akats handia dela

L.Z. > ELGETA

2008ko aurrekontua onartzearekin bat sortu da mendi museoa inguruko eztabaida Elgetako Udalean. Aralarrek eta Eusko Abertzale Ekintzak osatzen duten udal gobernuak ez du aurrekontuetan proiektu horretarako diru partidarik bideratu, eta oposizioa haserre agertu da. "Proiektuari bultzada emateko agente guztiak Elgetara begira daudenean, Udalak kale egin du", adierazi du oposizio-ko Iñaki Ugarteburuk.

"Bideragarritasun plana, aurreproiektu arkitektonikoa... eginak eta ordainduak ditugu", esan du. "Orain, legealdi hasieran lor daitezke dirulaguntzak. Euskal Mendizaleen Federazioak ere onartuta dauka partida bat. Ez dugu ulertzen Udalak nola eman diezaiokkeen bizkarra hain garrantzitsua izan daitekeen proiektu bati".

**GAIA EZTABAIDATZEKO PREST**

Oxel Erostarbe alkateak esan du herriak beste premia batzuk dituela eta mendi museoa, oraingoz, ez dagoela euren lehentasunen artean. "Norbaitek mendi museoa egin nahi badu, ekar ditzala proposamenak batzordera eta aztertuko ditugu. Bien bitartean, mendi museoari xentimorik ere ez".

> GUTBOLA

## Bergarako BTLS taldearen aurka bihar azken norgehiagoka

Bihar jokatu du Elgetako taldeak txapelketa erregularrako azkeneko norgehiagokara. Bergarako BTLS taldea izango dute aurrez aurre, igotzeko fasea jokatzeko ia ziurtatu duen taldea.

Norgehiagokara Unben jokatu dute bihar, 15:30ean. Eguna aproposa herriko jokalarietako babesa erakusteko.

> HAUTESKUNDEAK

## Ikusgai daude hautesle-zerrendak udaletxean, 28ra arte

Martxoaren 9an Espainiako Kongresurako egitekoak diren hauteskunderen begira, dagoeneko jendaurrean daude hautesle zerrendak.

Erreklamazioak egiteko epea ere zabalik dago. Hilaren 28ra arte egongo zabalik. Zerrendak udaletxean bertan daude ikusgai.

> GIZARTEA

## Hamar jaiotza, zazpi heriotza eta lau ezkontza egon dira

Elgetan uneotan 1.051 lagun daude errolatuta, aurreko urtean baino zazpi lagun gutxiago. Pedro Mari Ubera bake epaileak emandako datuen arabera, 2007an hamar jaiotza erregistratu ziren Elgetan, aurreko urtean baino bat gehiago. Heriotzak zazpi izan ziren (bi gutxiago) eta ezkontzak, berriz, lau (bi gehiago).



AITOR LEZAMA

## Ozkarbi elkartean, batzorde berria

Hilaren 17an egin zuten urteko batzar nagusia Ozkarbi elkartean. Mikel Mandaluniz aukeratu dute presidente, eta Leire Basaurik hartu du presidenteorde kargua. Ozkarbi, gaur egun, 420 erabiltzaile ditu. Bazkideak 265 dira; erretiratuak, 155. Argazkian batzorde berriko kideak dituzue. Bertan, Juan Jesus Iturrigatzelu eta Juan Mari Sarasua falta dira.



UNTZILLAKO ERROTA ZAHARRA Errotaren egoera eta balio historikoa aztertuko dituzte.

JONE INUNZIAGA

ONDAREA &gt; UNTZILLAKO ERROTA

# Untzillako errotan azterketa arkeologikoa egiten ari dira

Amenabar Construcciones SA enpresak eskatu du errotaren azterketa arkeologikoa egitea

Proiektuaren arabera, AHTren biaduktuaren zutabe bat errotaren aldamenean eraikiko dute

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Untzilla azuko errota zaharren egoera aztertzea, aldameneko lurra garbitzea eta egun zutik dauden hormak berreskuratzea da egiten diharduten lan arkeologikoaren helburu nagusia. Modu horretan, Untzillako erro-

ta zaharrak izan dezakeen balio historikoa aztertu nahi dute. Orain dela bi aste inguru hasi zizuten lanak, eta, bertako arduradunek azaldu dutenez, beste bi aste jarraituko dute bertan; eguraldiak laguntzen badu, behintzat.

Amenabar Construcciones SA enpresak eskatu du errotaren azterketa arkeologikoa egitea. Horretarako, Madrilgo Artra enpresa kontratatu du. Amenabar Construcciones enpresa da, hain zuzen ere, Abiadura Handiko Trenaren Aramaio eta Arrasate bitarteko tramua eraikiko duena. Izan ere, AHTren proiektuak Aramaion joango den biaduktuaren zutabe altuenetarikoa bat Untzillako errota zaharraren aldamenean eraikitzea aurreikusten du. Aramaio Udalak azaldu du Amenabar enpresak ez zuela inolako baimenik eskatu

lanak egiteko. "Azterketa arkeologikoa egiteko ez da baimenik eskatu behar, baina horretarako 50 kamioikada lur atera dituzte. Hori jakin genuenean Amenabarrekin kontaktuan jarri ginen, horrelako lanak egiteko baime-na eskatu behar dela azalduz, eta eskatutakoa bete dute dagoeneko", adierazi du alkateak.

Untzillako errota zaharra 70eko hamarkadan itxi zuten. Aurretik, baina, Barajuengo, Untzillako, Gellaoko eta Suñako baserriar talde batek erabiltzen zuten, baserrietako garia eta artoa xehatzeko.

KULTURA &gt; ERAKUSKETA

## Gaur irekiko dute Orixoleko kideek gertatutako erakusketa

A.B. &gt; ARAMAIO

Orixol elkartekoak argazkilari lanetan ibili dira azken asteotan. Herriko karobi, zubi eta iturriei argazkiak atera dizkiete eta horiekin erakusketa osatu dute. Aramaio ondarea berreskuratuz da erakusketaren izena. Argazki guztiak fitxa informatibo batek lagunduta aurkeztu dituzte, eta bertan zehazten da argazkian azaltzen den iturri, karobi edo

zubiaren izena, kokalekua eta egungo egoera. Erakusketa gaur zabalduko dute eta asteburu honetan eta hurrengoan egongo da zabalik. Gai berberarekin lotuta, eta Udalarekin elkarlanean, hitzaldi bat ere antolatu dute otsailaren 1erako. Periko Uribarena eta Javier Fernandez izango dira hizlariak eta Aramaio ondare arkeologikoaren inguruan jardungo dute.



ERAKUSKETA Herriko iturri, zubi eta karobiak, argazkitan.

ORIXOL M.E.

&gt; UDALA

### Gutxieneko soldata baino txikiagoa jaso zutenei laguntzak

2006 edo 2007an gutxieneko soldata baino errenta txikiagoa jaso zuten pertsonak dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte. Eskaera aurkezteko epea 2008ko martxoaren 6an amaituko da.

Dirulaguntzak jaso ahal izateko Arabako Lurralde Historikoko udalerriri batean erroldatuta egon behar da, eskaera aurkeztu baino hamabi hilabete lehenago.

2006ko eskaeretan 106 eta 867 euro bitartean jaso ahaliko dira. 2007koetan, berriz, 110 eta 900 euro bitartean. Dirulaguntzak jaso nahi dituztenek udaletxeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu beharko dute eskaera orria.

&gt; UDALA

### Hautesle-zerrendak ikusgai urtarrilaren 21etik 28ra arte

2008ko urtarrilaren 21etik 28ra, biak barne, hauteslezerrenda jendaurrera aterako da. Epe horren barruan eta bulego ordutegian, erreklamazioak aurkezteko aukera egongo da.

Bestalde, urtarrilaren 22tik 27ra hauteskundeetako mahai eta lokalen zerrenda ere jendaurrera aterako dute. Modu horretara, hautesleek kokapen horiei buruzko erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute.

Gai horien inguruko kezak argitzeko, Hautesleeren Erroldaren Bulegoak doako telefono zenbakia ipini du (901 10 19 00). [www.ine.es](http://www.ine.es) webgunean ere aurki daiteke informazio gehiago.

&gt; ZINEMA

### 'Beethoven' filma emango dute domekan kultura etxean

Beethoven txakur famatuarekin hitzordua daukate domeka honetan Aramaioko haurrek. Arratsaldeko bostetan *Beethoven* filma emango dute kultura etxean.

Newtondarrak pertsona normalak dira, Beethoven azaldu eta euren bizitzak aldatzen dituen arte. Txakurrak lapurtzen zituen banda gaizto baten atzaparretatik ihes egin ostean, bere ametsetako etxea aurkitu du. Etxe polita da, hesi eder batez inguratua, lorategi ederrarekin, eta atea zabal-zabalik duena. Aita, hasieran, ez dago txakurra etxean jasotzearen alde, baina azkenean onartu egingo du, benetako jabeak agertu arte bakarrik bada ere.



TAXI-BUSA Gatzagatik Eskoriatzara joan gura duen gizona taxi-busean sartzen; zerbitzua hilabete honetan desagertu da.

M.A.

Taxi-busak goiz erdian Eskoriatzara egiten zuen joan-etorria bete gura du, eta horixe eskatuko diete Aldundiko arduradunei otsailaren 1ean

**GARRAIO ZERBITZUA > HUTSUNEAK**

## Garraio zerbitzu hobea gura du Udalak herrirako, eta hala eskatuko du

**MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA**

Gatzagatik pasatzen den autobus zerbitzua hobetzeko ahaleginetan dabil Udala. Ez du egin zerbitzu berriaren gaineko baloraziorik, baina badagoela zer hobetu uste du. Urte berriarekin autobus gehiago pasatzen dira herritik, lehen baino hiru gehiago. Hala ere, taxi-busaren zerbitzua desagertu egin da urtarril

erdian, eta hark utzitako hutsunea betetzeko ahaleginetan dabil orain.

**TAXI-BUSA BERRESKURATU GURAN**

Autobus zerbitzu berriak gazteei egin die mesede. Hala, Arrasateko institutura doazenek badaukate zelan joan goizeko zortzietan. Horixe izan zen abenduan Aldundiari egindako eskaeretako bat,

eta lortu egin dute. Baina azken urteotan taxi-busak eman duen zerbitzua desagertu egin da egunotan. Goiz erdian joan-etorria egiten zuen Eskoriatzara, eta medikuarengana joan behar zutenendako egokia zen. Bada, zerbitzu barik geratu da orain tarte hori, eta hutsunea bete gura du Udalak: "Taxi-busa eskatu gura dugu hutsune hori betetzeko.

Badakigu herritarrek autobusean ibiltzera ohitu behar dutela, baina horretarako zerbitzu hobea eman beharko lukete", azaldu du Eusebio Villar alkateak.

Debagoieneko Mankomunitateak otsailaren 1ean egingo duen batzarrera Aldundiko Garraio Saileko arduradunak etorriko dira, eta Villarrek batzar hori aprobetxatu gura du eskaerok aurkezteko.

> INAUTERIAK

### Inauteri-zapatuko afarirako txartelak, salgai Labidean

Azken urteotan legez, herri afaria egingo dute Inauteri-zapatuan gatzagarrek, Toki Eder elkartean. Txartelak dagoeneko salgai jarri ditu Udalak Labidea dendan. Helduke 20 euro ordaindu beharko dute, eta umeek, 10 euro. Hona izango duten menua: hestebeteak -txorizoa, urdaiazpikoa...-, entsalada, oilasko errea patatekin eta ijito besoa izozkiarekin.

> INTERNET


### Ikastaroa egingo dute KZgunean gaur, 09:00etatik 11:00etara

Gaur, hilak 25, KZguneko arduradun Aitor Madrid etorriko da Interneten gaineko ikastaroak eskaintzera. 09:00etatik 11:00etara bitartean izango da, eta KZgunean datozen erabiltzaileek eurek aukeratuko dute zein ikastaro egin gura duten. Gainera, Interneten gaineko edozein zalantza argitzeko gertu dago Madrid.

> LANAK

### Otsail bukaeran hasiko dituzte azpiegitura lanak

Ur saneamendua hobetu eta gasa sartzeko bigarren faseko lanak abenduan egindako osoko bilkuran esleitu zituen Udalak. Arrasateko Aikia enpresari eman zion lanon ardura, eta 291.000 euroko aurrekontua aurreikusi zuten. Lanok, baina, ez dituzte hasiko otsail bukaera edo martxora arte. San Inaziotik eskuinaldera geratzen diren kaleak zabaldu beharko dituzte.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismok
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Josu Uribe > Alaves taldeko entrenatzailea

# "Aitak erakutsi zigun herri hau maitatzen; hark bihotzean zuen Aretxabaleta"

XABIER URTZELAI > ARETXABALETAKO

Gijonen jaio zen Josu Uribesalgo Gutierrez (1969), baina lotura handia du Aretxabaletarekin, bertan dauka eta aitaren partetik familia. Daukan pena handienetako bat da aitak Alavesko entrenatzaile dela ez ikusi izana; izan ere, gaztetan UDA utzita Alavesera joan zen Jesus Uribesalgo. Gertuko pertsona da Josu; elkarrizketan, aita gogorra ekarrita, hunkitu egin da.

**Badakit ahal duzunean Aretxabaletara etortzen zarena, familia bisitatzen.**

Bai, gustuko dut, bai. Aitaren partetik familia daukat hemen eta ahal dudanean etorri egiten naiz, bai. Batez ere uda partean etorri nintzen asko, denboraldi-aurrean bakarrik nengoelako Gasteizen. Aretxabaleta bihotzean daramat. Eta, hona etortzen naizen bakoitzean gaztetako oroitzen zaitzen, denak ederrak.

**Urkulura joaten zara lasaitzera...**

Astia daukadanean Urkulura igotzen naiz, bai. Leku lasaia da hura, apur bat ibiltzeko apro-

betzatzen dut, eta laneko tentsioak eta bestelako haserreak han geratzen dira, bai.

**Errotabarri baserrian duzu familia, ala?**

Hala da, bai. Nire aiton-amonek Urkulun zeukaten baserria, baina ezkontutakoan Aretxabaletara jaitsi ziren, Errotabarri baserrira. Eta orain hiru osaba bizi dira han, eta lehengusuak ere hemen daukat.

**Azal iezaguzu zer dela eta joan zen aita Asturiasera.**

Oso gaztetan UDAn jokatzeko hasi zen aita, eta 16 urterekin Alavesek fitxatu zuen. Profesional mailan jarduten hasi zen poliki-poliki, eta Gasteiztik Levantera joan zen. Han, hiru urte on egin zituen bigarren mailan, eta lehenengo mailara egin zuen jauzia, Mallorcan; Mallorcatik Gijongo Sportingera joan zen, eta han egin zituen bospasei urte, 32 urterekin jokatzeari utzi zion arte.

**Jokatzeari utzi bai, baina ez zuen futbola utzi.**

Ez, ez, entrenatzen hasi zen gero. Maila txikiak jokalarie-

kin lan egitea gustatzen zitzaion, eta 40 urte egin zituen beheko kategoriekin lanean.

**Aita arduratu zen, horrenbeste, semei bere familia nongoa zen azpimarratzen.**

Bai, bai, aita oso euskalduna zen, eta adarra ere jotzen genion, Euskadikoa zelako beti onena. Baina hark irakatsi zigun herri hau maitatzen, bihotzean zuen eta Aretxabaleta. Orain, umeak ikastolatik euskarazko berbeekin etortzen direnean poztu egiten naiz, aitonak barre egingo luke eta.

**Aitaren bidea jarraitu zenuen zuk, futbolari lotuta.**

Bai, aita izan zen futbol munduan sartu ninduen, eta nire kirol ibilbidean zeresan handia izan zuen hark. Futboleko jokatzen nabilela, 15-16 urterekin aitarekin hasi nintzen entrenamenduetara joaten, eta Mareon jokatzeko nabilela -bigarren B mailan- jokatzeari utzi eta entrenatzaile lanetan hasteko eskatu zidaten. Berehala konturatu nintzen hark izan behar zuela nire ogibidea.



Josu Uribe, Aretxabaletako plazan martitzenean, goizeko lan saioaren ondoren Aretxabaletara

**Akaso, Ribadesellarekin bigarren B mailara igotzea izan zen entrenatzaile moduan izan zenuen bultzada handiena?**

Horrelako hainbat bultzada izan ditut, bai. Esaten dute bizitza kasualitatez beteta dagoela, eta egia da. Kontua da entrenatzaile titulua Las Palmasen atera nuela, eta promozioko lehena izan nintzen. Eta, titulua atera eta bi urtera, entrenatzaileen kurtso hartako zuzendari izan

zenak Las Palmasko gidaritzara hartu zuen. Kluba lehenengo mailatik jaitsi berri zegoen, ez zuten dirurik, eta nitaz oroitu ziren; entrenatzaile gaztea behar zutela eta, birritan pentsatu barik joan nintzen hara, eta urte polita izan zen.

**Eta, ondoren Getaferekin lehenengo mailara.**

Bai; esango nuke liga bat edo txapeldunen liga bat irabaztearekin batera, talde bat lehenengo mailara igotzea dela entrenatzaile batek izan dezakeen esperientzia ederrena, eta Getafen bizi izan nuen hori.

**Baina ez zenuen Getafen jarraitu.**

Ez, eta nire hanka-sartzea izan zen hura. Hainbat talderen eskaintzak nituen, eta itzarotea erabaki nuen, harrotu egin nintzen. Hala, Getafek beste entrenatzaile bat hartzea erabaki zuen, eta Elxek fitxatu ninduen. Dena dela, hango lehenengo urtea ere oso-oso positiboa izan zen, eta bigarren urtean, igoera postuetatik hiru puntura geundela kontratua eten zidaten. Pena eman zidan, baina hori ere gertatzen da futboleko; gero, gutxiagatik ez zuten kategoria galdu...

**Antza, ilusio berezia zeneukan Alavesera etortzearen, nahiz eta arriskatua izan.**

Bai, bai, ilusio handia nukan, eta traba mordoa egonda ere, etortzea erabaki nuen. Hasteko, ligan hasiko ginen ere ez genekien, taldeak zor mordoa zituelako. Pitermanek oso egoera penagarrian utzi zuen kluba, baina askotan, buruak baino gehiago agintzen du bihotzak, eta etortzea erabaki nuen.



Aiton-amonek Urkulun zeukaten baserria, baina ezkontutakoan Aretxabaletara jaitsi ziren, Errotabarria.





egindako bisitaldi laburrean.

XABIER URTZELAI

**"Astia dudanean  
Urkulura igotzen naiz,  
lasai egotera eta apur  
bat paseatzera"**

**"Nire aiton-amonek  
Urkulun zuten baserria,  
baina Errotabarrira  
jaitsi ziren gero"**

**"Entrenatzaile batek  
maletak eginda bizi  
behar du beti, hura  
botatzea da errazena"**

**"Realak derrigor igo  
behar duen exijentzia  
hori alde batera utzi  
behar du; elastikoak  
bakarrik ez du  
irabazten"**

**Eta zer moduz?**

Sufritzen, asko sufritzen, baina aldi berean pozik. Hasieran ere bagenekien urte gogorra izan behar zuela, baina badakit denboraldi amaieran Alavesek ondo eutsiko diola kategoriari, hori da eta aurtengo helburua. Hori lortuta, klubak oxigeno apur bat hartuko du, eta aurrera begira kirol proiektu sendoagoa egiteko asmoa dugu.

**Entrenatzaile batek beti izan behar ditu maletak eginda?**

Bai, duda barik. Egia da tar-tean familia dagoenean gogor-ragoa egiten dela, urtero bate-tik bestera ibil gaitzkeelako, eta haurrek egonkortasuna behar

dutelako. Baina entrenatzaileak horrekin bizitzen ikasi behar du, errazagoa delako entrenatzaile-a aldatzea 20 lagun botatzea baino. Eta, futbol zelaian zale-ek presidenteari txistu egiten diotenean, hark entrenatzaile-ari begiratzen dio.

**Zer-nolako entrenatzailea zara?**

Oso langilea. Klub txikieta-tik gatozenok ondo dakigu lan egiteak zer-nolako emaitzak ematen dituen. Eta, ondoan ditudan pertsonak zelakoak diren jakitea ere garrantzitsua da. Hala, fitxa-keta bat egin aurretik jokalaria-rekin berba egitea gustatzen zait: zelakoa den ikusi, lanerako gogoz dagoen, ze jarrera duen, anbizio-rik daukan... Eta, taldeari sekula garrantzia ematen diot.

Dena dela, aita hil zenetik ere dezente aldatu naiz. Lehen, partidua galduta kapaz nintzen hiru egun inori berba egin barik pasatze-ko. Kolpe gogor bat jasotzean konturatzen gara bizitzan bade-la besterik.

**Pitermanen sasoiaren ostean, badirudi lasaitasuna eraman duzuela klubera.**

Bai, oso lasai gaude. Izor-rata, ez daukagulako sosik ere, baina oso lasai. (Barre) Talde-aren gastuak erabat murriztuta ditugu: sekulako bidaiak egiten ditugu autobusean, ezin dugu kontzentrazio-ekin... Alavesek lehenago zuen bideari heldu diogu, klub lasaia, apala, etxeko-ekin aurrera egin duena, eta horretan ari gara orain ere.

**Zer da entrenatzaile bati gerta dakioken okerrera?**

Elxen gertatu zitzaidana, adibidez. Norberarengan sinisten ez

MOTZEAN

**"Nor-bait haserretuko zait, baina gurago dut Asturiasko sagardoa"**

**Asturiasko leku bat?**  
Ribadesella.

**Eta Euskal Herrikoa?**  
Aretxabaleta.

**Hango edo hemengo sagardoa?**  
Nor-bait haserretuko da nire-kin... Niri Asturiaskoa gustatzen zait gehiago.

**Futbol jokalaria bat?**  
Neure aita.

**Eta entrenatzaile bat?**  
Neure aita.

**Futbol zelai bat?**  
Bi esango dizkizut: Molinon eta Mendizorrotza.

**Futbol zelaian duzun ohitura txar bat?**  
Gauzak ondo badoaz, datorren astean ez dut partiduko arropa aldatzen. Horrelako sineskeriak ditut, eta kapaz naiz nor-bait etxera bidaltzeko, joan den asteko gorbataren bila.

**Joango zinateke kanpora lanera? Nora?**

Bai, proiektu erakargarria eskainiko balidate eta neure familia gusura egongo balitz, joango nintzake.

**Zer behar du Alavesek?**

Puntu gehiago sailkapenean. Lasaitasuna badaukagu, eta zaleak erreku-peratu egin ditugu berriro ere. Orain, lasaitasuna ematen duten 50 puntu horiek behar ditugu.

**Eta Realak?**

Derrigor igo behar duen exijentzia hori alde batera uztea. Nik esperientzia dut bigarren mailan, eta ez da batere erraza lehenengo mailara igotzea. Kategoria horretan elastikoak bakarrik ez du irabazten, ondo izerditu behar da.

**Ea noiz ikusten zaitugun Aretxabaletako partiduren baten.**

Etorri izan naiz, e! Aurten ez, baina Elx taldea entrenatzen nabilela bazkaltzera etorri eta Ibarren izan nintzen.

dutela ikustea. Eta hori berehala igartzen da, gainera. Baina horrek ez du entrenatzaileendako bakarrik balio, baita jokalaria-rendako, edo bestelako lanposturen baten lanean dabilzane-dako ere.

**Pena da Alavesek Alberto Morgado bezalako jokalaria saldu behar izatea.**

Bai, baina ez dago besterik. Klubak oxigenoa behar du, eta jokalaria horrekin lortuko duten diruak ahalbidetuko du beste gauza askorekin jarraitu ahal izatea. Gainera, aurrealdean fitxaketaren bat edo beste egin gura dugu, eta horretarako ere ezinbestekoa da Morgado saltzea.



HIRUKOA Letamendi anaiak eta Aitor Otxoa, artxiboko irudian.

GOIENKARIA

**MENDIKO ESKIA > EUSKADIKO TXAPELKETA**

## Aitor Otxoa bigarren, Luz Ardidenen egindako proban

Joseba Ormazabal izan zen bi eguneko proban azkarrena, eta Joseba Tobar hirugarrena

X.U. > BERGARA

Bi tolosarren artean tar-tea aurkitu zuen Aitor Otxoa oñatiar-rak joan den astean, podiumeko bigarren postura igota. Altito-y 2008 izeneko lasterketa egin zuten Frantziako Luz Ardiden estazioan, Euskadiko txapelke-tarako baliagarria zena, eta iba-rrereko hamaika lagun izan ziren han -Arkaitz Letamendi ez zen erreku-peratu, eta ez zen proban izan-. GOIENKARIAK aurre-ratu zuen, baina, Otxoa eta Iban Letamendi zirela aurrean ibil-tzeko hautagaiak.

Aitor Otxoak ondo bete zuen aurrez idatzitako gidoia, ez zuen hutsik egin. Letamendik, bai-na, lehenengo eguneko saioan arazoak izan zituen granpoie-

kin, eta gorputzaldi onean bazen ere, ezin izan zuen gal-dutako denbora erreku-peratu.

**LASTERKETA ALPINOA**

Hala, lasterketan esku hartu zuen Joxu Arana bergararrak eman ditu probako xehetasun gehiago: "Oso ibilbide alpino-ak izan ziren, ederrak. Beste proba batzuk estazio ingurue-tan egiten dituzte, baina hemen ez. Mendi tontorretako ertzeta-tik igaro ginen, korridoreetatik, eta derrigorrezkoa zen arnesa-reakin joatea".

Eguraldia ere aparta izan zuten bi egunotan, baina elurra ez zegoen bere onenean: "Izo-tuta zegoen, aurreko egunetan euria egin zuen-eta".

> MENDIA

### Besaide Mendi Elkar-teak gaur egingo du batzar nagusia, 19:00etan, Kulturaten

Besaide Mendi Elkar-teak gaur, egubakoitza, egingo du batzar orokorra (19:00etan, Kulturaten). Batzarrean, 2007an egindako ekintzen balantzea egingo dute, eta 2008an egingo dituzten irte-erak aurkeztu. Horrekin batera, 2009ko bazkide kuoten gaine-an ere egingo dute berba.

Bestalde, aurtengo federatu txartelak Besaideko egoitzan ber-tan banatuko dituzte, ez dituzte etxera bidaliko. Txartel horiek jasotzeko astelehenetik eguaztenera 19:30etik 20:30era arte egon-go da Besaideko egoitza zabalik, eta urtarrilaren 30a izango da azken eguna. Zalantzaren bat duenak 943 77 30 66 telefonora dei-tu baino ez du, martitzen edo eguaztetenan (19:30-20:30).

> ESKUBALOA

### Seigarren dagoen Basauri hartuko du Bergarak eta Ford Mugarrik Gasteizera egingo du bidaia

Euskadiko txapelketako 17. jardunaldia jokatuko dute Ford Muga-rrri Arrasatek eta Bergarak asteburuan. Muniategiren mutilak joko aldetik bolada onean dabilta -joan den astean liderrari hor-tzak erakutsi zizkieten-, baina emaitzek gehiago lagundu behar dute. Hala, Basauriren kontrako partiduari errentagarritasuna ateratzen ahaleginduko dira bihar mahoneroak (18:15).

Ford Mugarri, bestalde, Gasteizera joango da, sailkapenean ondo-ondoan duen Lea Corazonistas taldearen kontra lehiazera. Berga-ra behetik gora badator eta Arrasatekoek alderantzizko joera dara-mate, jende faltan gaitza da-eta partiduei behar den moduan aurre egitea; Gasteizen eskuratzen dutenak urre balioa izango du.

FUTBOLA &gt; PREFERENTEA

# UDAK eta Mondrak, partidu errazak etxean

Sailkapeneko behealdean dauden Eibartarrak eta Zestoa hartuko dituzte, hurrenez hurren; Aloñak Andoainen jokatu du, bolada txarra moztu nahirik

E.M. &gt; BERGARA

Preferente mailako taldeetatik, Mondrak eta Aretxabaletak etxean jokatu dute oraingo aste bukaeran eta bolada txarrean dabilen Aloña Mendik, berriz, Andoainen jokatu du. Josu Zubiaren taldeak jokatu dute azken bost partiduak galdu ditu. Joan den domekan jipoi galanta jaso zuten Azkoagainen, UDAREN aurkako derbian, 0-4. Sailkapenean 11. tokian ditugu oñatiarrek, 23 punturekin. Zapatuan ez dute partidu erreza izango Andoainen: Euskalduna 8. tokian dago. Aloñak baino lau puntu gehiagorekin. Bolada txarrari amaiera ematen saiatuko dira Zubiaren mutilak.

Etxeko partiduen kasuan, teoriar behintzat, Mondrak izango du areriorik errazena: Eibartarrak *farolillo gorria* hartuko dute arrasatearrek zapatuan, Mojategin (16:30). Igor Gordobilen muti-



MONDRA Sailkapenari begirata, ibarreko talderik onena da Mondra oraingoz. J.A.

lak, gainera, sasoiaren direla erakutsi dute azken jardunaldietan. Mondra 6. tokian dago orain, 29 punturekin, Aurrera Ondarroa (30 puntu), Ordizia (33), Berio (34) eta dagoeneko nahiko urrun diren Trintxerpe (37) eta Real Union (39) liderraren atzetik.

UDAK, bestalde, azken postuetan dagoen Zestoa izango du bisitari domekan (16:30). Mondra

puntu bakar batera du Igor Arenazaren taldeak.

## LEHEN ERREGIONALA

Lehen erregional mailan, sailkapeneko goialdean diren Bergara eta Rotetaren aurkako partidua izango da Agorrosinen. Antzuola ere etxean jokatu du zapatuan, Intxurreren aurka. Bi partiduak, 16:00etan.



GOIENKARIA

## Igerilari gaztetxoan lehiaketa zapatu arratsaldean Bergaran

Bihar, zapatua, igeriketa txapelketa jokatu da Bergarako Agorrosin Kirolgunean. Gipuzkoako txapelketaren barruan, alebin mailako txapelketa izango da Agorrosinen, 16:00etan hasita. Denboraldiko hirugarren jardunaldia da zapatukoa. Bergara Igeri Elkartea ordezkatzuz, 20 bat neska-mutiko arituko dira lehiatzen eta beste horrenbeste igerilari gaztetxo etorri dira Oñatititik. Horiez gain, Eibar, Azkoitia, Azpeitia, Legazpi eta Elgoibarko neska-mutikoen hartuko dute parte zapatuko jardunaldian. Txapelketa dela eta, Agorrosingo igeriketa eremua itxita izango da bihar arratsaldean ohiko erabiltzaileentzat.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

#### Bigarren maila

Castellon-Reala  
Domeka. 17:00. Castalia.

**Kadeteen Euskadiko liga**  
Aretxabaleta-Peña Athletic  
Santurtzi  
Domeka. 11:30. Ibarra.

#### Preferente maila

Euskalduna-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:30. Andoain.

Mondra-Eibartarrak  
Zapatua. 16:30. Mojategi.  
Aretxabaleta-Zestoa  
Domeka. 16:30. Ibarra.

#### Lehen erregionala

Bergara-Roteta  
Zapatua. 16:00. Agorrosin.  
Antzuola-Intxurre  
Zapatua. 16:00. Estala.

#### Bigarren erregionala

Elgeta-BTLS  
Zapatua. 15:30. Eibar.  
Aretxabaleta-Mondra  
Zapatua. 17:30. Ibarra.

#### Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea

Ordizia-Aretxabaleta  
Domeka. 11:00.  
Aretxabaleta.  
Sporting Herrera-Bergara  
Zapatua. 15:30. Donostia.

#### Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jeitsiera

Aloña Mendi-Tolosa  
Zapatua. 16:00. Azkoagainen.  
Urola-Mondra  
Zapatua. 18:00. Zumarraga.

#### Lehen mailako gazteak

San Marcial-Aretxabaleta  
Zapatua. 19:30. Irun (Gal).

Eibartarrak-Bergara  
Zapatua. 15:30. Unbe.

#### Ohorezko mailako kadeteak

Bergara-Ordizia  
Domeka. 12:00. Ipintza.  
Antiguoko-Aloña Mendi  
Domeka. 15:30. Donostia.  
Berio.

#### Kadeteen lehen maila

Arrasate-Anaitasuna  
Zapatua. 10:00. Mojategi.

Aretxabaleta B-Eibartarrak  
Zapatua. 11:30. Ibarra

Bergara-Zestoa  
Zapatua. 18:00. Ipintza

Arizmendi-Mutriku  
Zapatua. 11:00. Almen

#### Kadete Txiki

Martutene-Mondra  
Zapatua. 10:30. Martutene

#### Infantil maila

Herrerako Sport.-Arrasate  
Zapatua. 12:00. Donostia.

#### Lehen mailako infantilak

Bergara-Lengokoak  
Domeka. 10:15. Ipintza.

Arizmendi-Lengokoak  
Zapatua. 15:45. Almen

Ordizia-Arrasate  
Zapatua. 11:30. Ordizia

Aloña Mendi-Idiazabal  
Domeka. 11:00. Ibarra

Arrasate-Aretxabaleta B  
Zapatua. 12:00. Mojategi

#### Emakumezkoen kopa

Arizmendi-Mondragon  
Zapatua. 15:30. Almen.

Bergara-Mutriku  
Domeka. 17:00. Ipintza.

Zestoa-Arizmendi B  
Zapatua. 15:30. Zestoa

#### Emakumezkoen F8 Kadeteak

Bergara-Allerru  
Zapatua. 15:30. Ipintza.

#### Emakumezkoen F11 Kadeteak, Txapeldunen fasea

Zarautz-Arizmendi  
Zapatua. 09:30. Asti.

**Emakumezkoen F11 Kadeteak, kopa**

Anaitasuna-Aloña Mendi  
Zapatua. 11:00. Azkoitia (Txerlola).

#### Emakumezkoen F11 Kadeteak, kopa

Anaitasuna-Aloña Mendi  
Zapatua. 11:00. Azkoitia (Txerlola).

#### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko Txapelketa**  
Alegria-Eskoriatza  
Zapatua. 18:00. Alegria.

**Lehenengo maila**  
Aloña Mendi-Isu Lehiok  
Zapatua. 19:00. Zubikoa.

**SASKIBALOA**

**Lehenengo maila**  
MU-Cafes Aitona  
Zapatua. 18:00. Iturripe.

#### Seniorrak, emakumezkoak

Cafes Aitona-Eskoriatza  
Zapatua. 16:00. Paco Yoldi  
kiroldegia. Donostia.

#### ESKUBALOA

**Euskadiko Txapelketa**  
Lea Corazonistas-Ford  
Mugarri  
Domeka. 12:15. Colegio  
Corazonistas. Gasteiz.

Bergara-Basauri  
Zapatua. 18:15. Labegarieta

**Euskadiko Txapelketa, emakumezkoak**  
Verkol Aloña Mendi-  
Urdaibai. Zapatua. 17:30.  
Zubikoa.

#### Euskadiko Txapelketa, emakumezkoen gazte maila

Verkol Aloña Mendi-Escuela  
Hosteleria Alaia. Zapatua.  
16:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako txapelketa, gazte maila**  
Arrasate-Urola  
Zapatua. 17:30. Musakola.

Aloña Mendi-Hondarribia  
Domeka. 10:15. Zubikoa

**Kadete maila**  
Aloña Mendi-Urrietako  
Domeka. 11:45. Zubikoa.

Bergara-Tolosa  
Domeka. 12:15. Labegarieta

Citroen Chapime Arrasate-  
Arrate Amaña  
Zapatua. 16:00. Musakola.

Verkol Aloña Mendi-Ereintza  
Domeka. 11:45. Zubikoa.

Bergara-Egia  
Zapatua. 12:30.  
Labegarieta

**ERRUGBIA**

**Emakumezkoak**  
La Unica-Arrasate  
Zapatua. 16:00. Iruñea.  
Unibertsitatea.

**Infantilak**  
Gipuzkoako txapelketa  
Eibar-Arrasate  
Domekan. 10:30. Unbe.


**Multikirola**  
7 urteko neska-mutiek  
rugby gerturatze ariketak  
eta jokoak dauzkate.  
Zapatua. 10:00. Mojategi.

**PILOTA**

**Bergara**  
Zapatua. 16:30. Bergarako  
Udal Pilotalekuan:  
Lagunak-Zarautz 1  
Oiarpe 3-Goierri 2  
Bergara 1-Azkoitiko 1  
Ilunpe 2-Goierri 1  
Azkoitiko 2-Bergara 3

Zapatua. 18:00etan  
Bergara-Ilunpe

**Antzuola**  
Zapatua. 18:00.  
Olalde-Eskoriatza. Eskuz  
binaka. Nagusien bigarren  
maila.



**Eskubaloia: Bergara-Basauri zapatuan Labegarietan**  
Euskadiko txapelketaren barruan, Bergarak Basauri hartuko du zapatuan Labegarietan, 18:15ean.

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



## > GOSE

Arrasatearrek 3:60 aretoan erakutsiko dituzte diskoko abestiak > 45



## > MU ETA INTERNET

Software sozialaren erronkari aurre egin dio Mondragon Unibertsitateak > 51


## > MIRARI SAGARZAZU

Oñatiarrak amaitzear ditu Arte Ederretako ikasketak Leioan. Bertso irakaslea ere bada. Bidaiatzea gogoko du: New Yorkera egin nahi du bidai > 50



## EMANALDIA SORALUZEN

# Debagoieneko musika eskolak elkarrekin



### ENEKO AZKARATE > SORALUZE

Debagoieneko musika eskolek eta Soralezekoak emanaldi berezia eskainiko dute gaur, egubakoitza, Soraluzean. 18:30ean izango da, kiroldegian. Sarrera doan. Urtero egiten dute ibarreko musika eskola guztiek batera era horretako kontzertua. Bosgarren aldia da antolatzen dutena.

101 ikasle eta 27 irakasle ariko dira, sei musika eskolatakoak. Hona-ko hauetakoak: Arrasate Musikal,

Begarako Musika Eskola, Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskola, Aretxabaletako Lizarra Musika Eskola, Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskola eta Soralezeko Musika Eskola. Bakoitzak bere emanaldia egingo du lehenbizi eta amaieran, denekin osatutako musika bandak bi pieza eskainiko ditu. Emanaldi hori aitzakia hartuta, ibarreko musika eskolak ezagutuko ditugu.

(44. orrialdean jarraitzen du)

## Debagoieneko musika eskolak elkarrekin

(43. orrialdetik dator)

Oparoa da benetan ibarreko musika eskolen jarduna. Datu bat ematearren: 2.078 lagunek dihardute eskualdeko musika eskoletan ikasten, eta 121 irakasle. Datu horiek Soraluze ere kontuan izanda; bestela, 1.953 ikasle eta 108 irakasle Debagoieneko musika eskoletan. Eta, hori, ez aipatzearen bakoitzaren eskaintza akademiko edota urtean antolatzen dituzten jarduerak: musika edo dantza emanaldiak, muntai bereziak...

### DENETIK ERAKUSTEN DUTE

Denetik erakusten dute: solfeo, hizkuntza musikal, ballet eta dantzaz gainera, era askotako instrumentuak ere bai, baita gaita galegoa ere; Eskoriatzan, esaterako. Gehien eskatzen dena biolina eta pianoa da. Aipagarria da Bergaran, esaterako, hiru urteko umeek badutela biolina ikasteko aukera, Suzuki metodoa erabiltza. Eta nabarmenezko beste datu bat da azkenaldian matrikulak ugartu egin direla, helduendako eskaintza ugartu delako eta instrumentu modernoak ikasteko aukera ere eskaintzen dutelako: gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa eta bateria kasu.

### EGOITZEN ARAZOA

Urte asko daroate gehienek eta oso errotuta daude herrian. Diru sarrerak ateratzen dituzte matrikulen bidez, baina baita erakun-

deek, udalek batez ere, eta baita kasu batzuetan –Oñatin, esaterako– enpresa pribatuek emandako dirulaguntzetatik. Kudeaketaz eskolak eurak arduratzen dira. Gehien arazo nagusia egoitza ganorazkoa eta behin betikoa ez edukitzea da eta baita emanaldietarako toki aproposik ez edukitzea herri batzuetan. Hala, esaterako, Aretxabaletan laster joan nahi dute plazako eraikin berrira, lehengo Guardia Zibilarren kuarter zaharra lagata, eta Arrasaten iaz laga behar izan zuten Aprendizen Eskola Monterronera joateko.

### GAUR, 100 MUSIKA IKASLE

Orain dela bost urtetik elkarrekin egiten dute emanaldi bat. Lehenengoa Arrasaten izan zen. Eta gero, Oñatin, Bergaran eta Eskoriatzan antolatu dute. Aurten, Soraluzean. Guztira 101 ikasle eta 27 irakasle arituko dira. Aretxabaletatik, 30; Arrasateatik 19; Eskoriatzatik 13; Bergararik 15; Soraluzetik, 13 eta Oñatitik 11. Bukaerako emanaldia eskola guztietako musikariz osatutako Gazteen Bandak egingo du. Bi obra eskainiko dituzte: John Williams-en *Highlights from Harry Potter* eta James L. Hosay-ren *Rocky top*. Banda horren zuzendaria Keren Bedialauneta izango da, Soraluze irakaslea berau.

Aurretik, eskola bakoitzak bere emanaldia egingo du. Denetarikoei egitaraua prestatu dute. Izango dira dantzak, flauta hirukoteak, haizezko taldeak, akordeoi eta bateriak, piano bakarlariak...



GITARRA Eskoriatzako musika eskolan gitarra klasikoak jotzen ikasten. GOIENKARIA



BATERIA Arrasate Musikalen txikitatik bateriak jotzen ikasten. GOIENKARIA

## IBARREKO MUSIKA ESKOLAK

### Arrasate Musikal

#### Eskualdeko musika eskolarik zaharrena da Arrasatekoa

Tradizio handiko elkarte da Arrasate Musikal. Balarako musika eskolarik zaharrena da. 1972an sortu zen, Danok abesbatzaren inguruan. Juan Artzamedi izan zen lehen zuzendaria. Hasieratik finkatu zituzten helburuak: musika akademia sortzea, musika emanaldiak antolatzea eta herrian musika kultura sustatzea. Metalurgica Cerrajera enpresa administrazio bulegoetarako erabiltzen zuen eraikinean jarri zuten egoitza. 360 lagunek eman zuten izena akademian, lehen ikasturtean. Hasieran solfeoa bakarrik erakusten zuten. 1974an Aprendizen Eskolako eraikinera joan ziren eta han egon dira joan zen urtera arte. Orain, Monterronen dago Arrasateko musika eskola.

Egun musika eskolak 576 ikasle ditu eta 34 irakasle. Eskolako zuzendaria Marta Izagirre da. Irakasleen artean bost Gasteizeko bandako musikariak dira. Ikaslekin adinari dagokionez, gazteenek 5 urte dituzte eta 70 urtera arte dituzte. Instrumentu gehienak ikas daitezke eskolan eta horien artean aukeratuena biolina eta pianoa dira. 24 ikasgai eskainitzen dituzte eta zortzi musika talde daude.

### Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskola

#### Kalitatezko hezkuntza eta irekia instrumentuetan eta ahotsean

Orain dela 20 urte sortu zen Musika Eskola (1988. urtean). Musika irakaskuntza bateratzeko, hau da, zentralizatu egoteko helburuekin eta herrian musikaren aldeko kultura sustatzeko asmoarekin. "Azpimarratu behar da kalitatezko hezkuntza eskaintzen dela eta irekia instrumentuan eta ahots heziketan", dio eskolako zuzendariak, Arantxa Iturriozek.

Aurten 265 ikasle dituzte eta 14 irakasle. Lau urtetik hasi eta 15 urte bitarteko ikasleak gehiago dira, baina geroz eta heldu gehiago daude eskolan. Hauxe da eskaintza: instrumentu sinfonikoaren artean, zeharkako txirula, biolina, klarineta, saxofoia, tronboia, tronpetak, tronpa eta perkusioa; instrumentu polifonikoak, berriz, pianoa, akordeoia eta gitarra; eta instrumentu folklorikoak, trikitia, panderoa eta txistua. Eta kantua ere bai. Aukeratuena dira gitarra, trikitia, perkusioa eta akordeoia.

Urtean zehar ekintza asko burutzen dira herria girotzeko: Arantzazuko igoera, haurren eguna, Oñatiko jailetan txantxikuaren jaitsiera, San Martin egoitzan aste kulturala eta Gabonetako kontzertua, hainbat auzotako jailetan...

### Beheko Errota Musika Eskola, Eskoriatza

#### Eskolaren berezitasunetako bat: gaita galegoa ere erakusten dute

Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskolak 25 urtetik gora daroa lanean. Horregatik, iazko abenduaren 23an, orain dela hilabete eskas, omenaldia eskaini zieten sortzaileei: Mari Kruz Oianguren eta Maria Ester Oregiri. "Emanaldi berezi batekin omenatu genituen", dio Araceli Telletxea zuzendariak.

Gaur egun 250 ikasle eta 12 irakasle ditu eskolak. Irakasle gehienek, klaseak emateaz gain, hainbat taldetan dihardute: Gasteizko edo Bergarako musika bandetan, Izaskun Murgia taldean...

Eskolak eskaintzen dituen espezialitateak honako hauek dira: kantua, pianoa, flauta trabesera, akordeoia, tronpetak, tronboia, gitarra klasikoak, gitarra elektrikoa, biolina, perkusioa, saxofoia, klarineta, gaita galegoa eta dantza. Nabarmenezkoak, horixe, ibarreko beste eskoletan ez bezala, gaita ere ikasteko aukera badagoela Eskoriatzan. Musika bandak, koroak eta akordeoi taldeak ere eskolarekin lotura zuzena dute. Bandak, esaterako, 1983a ezkerrean dihardu. Urtean hiru emanaldi eskaintzen ditu eta, horretaz gain, jailetan eta Donostiako danborradan ere parte hartzen du.

### Bergarako Musika Eskola

#### Aurten 25. urteurrena ospatuko du musika eskola oparoak

Begarako Musika Eskola 1983. urtean sortu zen herriko hainbat kultura eta musika taldek bultzatuta. 25 urte beteko ditu aurten, hortaz. Eskolaren helburuak dira Bergarako herritarrek oinarriko prestakuntza musika jasotzea, herriko talde musikalen harrobia izatea, Bergarako gaztetxo eta herritarren artean kultura musika zabaltzea...

Ikasturte honetan 532 ikasle eta 27 irakasle daude. Zuzendaria Maria Jesus Ugalde da. Sorrerako lehen ikasturtean, 300 ikasle eta 12 irakasle ziren. Nabarmenezkoa da eskolaren lehen urteetan ez bezala, gaur egun denak irakasle euskaldunak direla, eta asko bertako ikasle izandakoak.

Ikaslekin adinari dagokionez, 3 urtetik hasi eta erretiratuak ere badituzte, "gero eta gehiago" zuzendariaren esanetan: txikiak, 3 urtekoak, biolinarekin, Suzuki metodoarekin, hasten dira. Hortik aurrera, hizkuntza musikarekin eta 8 urtetik aurrera instrumentuarekin hasten dira. Oso aukera zabala dago: kantuaz gain, 22 instrumentu ikas daitezke. Pianoa da gehien aukeratzen den instrumentua. Aurten musika-terapia zerbitzua eskaintzen hasi dira.

### Aretxabaletako Lizarra Musika Eskola

#### Kuartela laga eta Herriko Plazako eraikin berrira joateko zain

Lehen ikasturte ofiziala 1985-1986 izen zen. Angel Barandiaran izan zen bultzatzaile nagusia, herriko beste musikazale batzuekin batera. Gogorak izan zituzten hasierako urteak, klaseak emateko tokirik ez zutelako. Azkenean, Loramendi ikastolakoek laga zizkieten lokalak. Hala ere, guardia zibila Aretxabaletatik joan zirenean, Udalak hartu zituen lokalok eta erreforma txiki bat egin ondoren musika eskola hara eroan zuten. Bertan daude, "baina espero dugu ikasturte hau bukatu baino lehen Herriko Plazako eraikin berria egotea, oraingo egoitza desegoki baitago: itoginak, hotza, zaratak", dio Mariatzen Urkia zuzendariak.

330 ikasle eta 550 matrikula dituzte; 11 irakasle eta bi pertsona administratzaioan. Ikasle txikiak 4 urtekoak dira, "eta ez dugu adin mugarik jarzten", dio zuzendariak. Trikitia, panderoa, pianoa, biolina, gitarra, baxu elektrikoa, gitarra elektrikoa, akordeoia, biolontxeloa, flauta, txistua, klarineta, saxofoia, perkusioa, tronpetak eta tronboia erakusketan dute. Dantza ere bai, umei zein helduei; helduen bi talde dituzte. Gehien eskatzen den instrumentua trikitia da. Eta dantza, 150 ikaslerekin.

### Soraluze Musika Eskola

#### Azken urteotan gorakada izan du eta egoitza berriaren bila dabil

Soraluze Musika Eskola 1989-90 ikasturtean sortu zen, gurasa talde, Udaleko ordezkari eta 4-5 musika irakasleen artean egindako lanaren ondoren. Herrian, musika eskola sortu aurretik, Ines Mari Maiztegi hasi zen gitarra eta soinu klaseak ematen, bere kontu. Eskola horiek oso harrera ona zuten eta musika klase hauei ofizialtasuna ematearabaki zuten, Ines Mari Maiztegi irakaslea izanik. Hala hasi zen, gaur egun arte.

Aurten 125 ikasle daude eta 13 irakasle. Azken urteak izan dira oparoenak, Nagore Sanz zuzendariaren esanetan. 4 urtetik 65 urte bitarteko ikasleak dituzte. Eskolan ikas daitezkeenak: klarineta, tronpetak, tronboia, flauta, saxofoia, biolina, txistua eta danbolina, pianoa, trikitia, soina eta panderoa, gitarra elektrikoa, bateria eta baxu elektrikoa. Aukeratuena pianoa, trikitia eta gitarra elektrikoa dira. "Musika modernoko eta trikitia eta pandero eskolak asko eskatzen dira egun", dio zuzendariak. Umeendako musika tailerrak, Hizkuntza edo Lengoaia Musika eta talde instrumentalak ere badituzte. Eskolaren beharrak: egoitza definitiboa izatea, eta egokitzea (gelak intsonorizatu, leihoak aldatu, igogailua jarri, e.a.).

Ines Osinaga > Gose taldeko ahotsa

# "Lagunen aurrean jotzeko gogo daukagu"

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Etxean, Arrasateko 3.60 aretoan kontzertua egingo du Gose taldeak gaur, egubakoitza, 23:00etan. Aspaldi honetan zeresan ugari eman du hirukote arrasatearrak. Bigarren diskoa kaleratu zutenetik han eta hemen jo dute eta lagun aurrean jotzeko irrikaz daude. Ines Osinagak esan digunez, hainbat sors-presa gertatu dituzte gaurko emanaldirako. Ti2no haien lagunaren doinu elektronikoek alaituko dute giroa aurretik.

**Ines, Arrasaten jotzea berezia izango da, ala?**

Bai. Lagun guztiak etorriko dira, agian etsairen bat edo beste ere bai... Arrasaten azken aldiz San Juanetan jo genuen, Monterronen, eta orduan maila altu jarri genuen. Kontzertu oso berezia izan zen hura, asko gozatu genuen. Badaukagu lagun artean berriro jotzeko gogoia.

**Ekainean kanpoan jo zenuten eta oraingoan 3.60 aretoan. Zelako aretoak nahiago dituzue?**

Aretoek ez dute horrenbeste zerikusirik. Leku guztietan jotzen dugu gustura; azken baten, zuzeneko emanaldiak egitea izugarri gustatzen zaigulako. Kontzertu guztiak dira ezberdinak: aretoagatik, jendeagatik eta baita gugatik ere... Hori da zuzeneko emanaldien xarma, kontzertu batetik bestera gauzak asko

aldatu daitezkeelako. Gogo handiz gatoz 3.60 aretora.

**Zelako emanaldia egingo duzue?**

Bigarren diskoko kantuak aurkeztuko ditugu nagusiki, baina izango da sorpresarako tartea. Lagunez inguratzea gustatzen zaigu eta Ti2no lagunaren doinu elektronikoak ekarriko ditugu gurekin. Era berean, beste lagun batzuk ere igoko dira agertokira eta bideo eta kantu berriak ere eskainiko ditugu.

**Zelan doa disko berria aurkezteko bira?**

Ondo. Abendutik hona doena erdi kontzertu eman ditugu eta urtarrilean hamabi egingo ditugu. Urtarrila hilabete *hotza* dela kontuan izanda, ez dago gaizki... Datozen hilabeteotarako ere bagabiltza eskaintzak jasotzen. Jendea gurekin kantsatu arte jotzeko gertu gaude gu...

**Gose trikitiaren tradizioarekin apurtzen duen taldea dela aipatzen da behin eta berri.**

Ez nago guztiz ados horrekin... Alternatiba berriek ez daukate zertan tradizioa apurtu. Trikitiaren barruan tradizioa ere gustatzen zaigu, baina ez folklorismoa dena: jantzi erregionala, sagardoa eta txistorra. Gustatzen zaiguna egiten saiatzen gara, baina iraultza egiteak zailagoa izan behar du.



Osoron, Ines Osinaga eta Iñaki Bengoa, Gose taldeko hirukotea.

GOSE

**Orain arte izandako kritikarik politena eta mingarriena?**

Mingarrienak hobe ahaztea. Onartu behar dena onartu eta hausnarketarako balio badute, gaitz erdi! Eta politena? Behin esan zigutena: aspaldi ez zutela

entzuten hain berria den zerbait. Berria beti da ona, eta, gainera, bizirik gaudela erakusten du horrek. Ez da gutxi.

**Madriren jo duzue asteen.**

Martitzenean izan ginen, Moby Dick aretoan, eta otsailean bueltatuko gara, Apolo aretora. Gustura geratu ginen Madriren emandako kontzertuarekin. Bestalde, Radio 3-en izan ginen, Carlos Pinaren *Bienvenidos al paraíso* irratsaioan eta Juliette Lewisekin topo egin genuen. Aluzinantea izan zen. Zuzenean jo zuen gurekin, zer eta RIP taldearen *Enamorado de la muerte* kantua. Urte batzuk lehenago esan izan balidate, ez nukeen sinistuko.

**Zergatik ez diezue izenbururik jartzen zuen diskoei?**

Guretzat lehen diskoa beltza da, oraingo hau zuria... Ez zaigu gustatzen diskoei esaldi potolo eta borobilak jartzea. Nahiago dugu horrela utzi.

**Hurrengoa, noizko?**

Bagabiltza gauzak egiten, baina gutxienez bederatzi hilabeteko haurdunaldia utzi beharko diogu...

**Eta urte berriari zer eskatzen diozue?**

*Kaña* emateko gogoari eustea, egunean pare bat aldiz barre egitea, lo apurtxo bat gehiago egitea, etxeokokin eta lagunekin egoteko aukera izatea...

**"Kontzertu guztiak dira ezberdinak: aretoagatik, jendeagatik eta baita gugatik ere... Hori da zuzenekoaren xarma"**

**"Alternatiba berriek ez dute zertan tradizioa apurtu"**

AISIALDIA > ELKARTE ETA ERAKUNDEEN ESKAINTZA

## Ikastaroak: aukera zabala ibarreko herrietan

Flamenko eta bitxigintza Bergaran; munduko dantzak Eskoriatzan eta Elgetan, eta beste hainbat

E.M. > BERGARA

Ikastaroen aukera zabala dago egunotan Debagoienean. Domekan, esaterako, munduko dantzen ikastaroa hasi zuten Elgetan. Egun bakoitzean, dantza bat azaltzen da, eta gero dantzatu. Patxi Montero da irakaslea eta izenematea 943 76 80 22 telefono zenbakian egin daiteke. Eskoriatzan ere egingo dute aipatutako ikastaroa. Interesatuak ikustera edo probatzera joan daitezke, abisurik eman gabe. Argibideak: [patxi-montero@euskalnet.net](mailto:patxi-montero@euskalnet.net)

KOLONBIAKO SUKALDARITZA

Aretxabaletan Kolonbiako sukaldaritzaren gaineko ikastaroa antolatu du Loramendi euskara elkarteak. Era berean, *Gorputzaren musikak* delako tailerra egingo dute urtarrilaren 31n. Argibideak 943 77 09 70 zenbakian.

Bergaran, flamenko eta bitxigintza landuko dituzte martxora arte (943 77 91 58). Eta Arrasaten, martxora bitartean hainbat ikastaro antolatu ditu Emakume Txokoak. Argibideak 943 79 41 39 zenbakian.



MUNDUKO DANTZAK Patxi Montero irakaslearen batera zazpi lagunek hartu zuten parte domekako saioan.

JOSETXO ARANTZABAL

**INMOBILIARIA**

Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Aranerrea 95 m². Eguzkitsua.
- Ibargarai, 40 m². Berritua.
- Bidekuruzeta 60 m². Berritua.
- Martoko 52 m². Berritua.
- Ibargarai 74 m². Ondo.
- Osinbu 51 m². Aukera ona.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Inzar pasealekua 92 m². Prezio ona.

**Antzuola:**

- Buzintzu 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.

**Elgeta:**

- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

**DEBA**

**GARAIA**

INMOBILIARIA  
Telesforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**

- Artelale, 82m², ondo
- Artzamendi, 80 m², oso ondo
- San Pedro, 88 m², ondo
- Ibargarai, 80 m², oso ondo
- Artelale, 70 m², oso ondo
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua
- Mugartza, 60 m², berria, aukera ona
- Zubieta 70 m², ondo
- Matxiategi, 65 m², ondo
- Arrizuri, 97 m², garajearekin
- Aranerrea, 87m², ondo
- Bidekuruzeta, duplexa, berritua
- San Anton Abad, 70m², oso ondo
- Etxebizita berrien erakuntza Madura, Masterreka eta Zubiaren.
- Zurradero, 81m², oso ondo

**SORALUZE**

- Baltegietia, 83m², berria

**ANTZUOLA**

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

**ELGETA**

- San Roke, 75 m², ia berria.

# IRAGARKI SAILKATUAQ

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarki bakarririk iragarriko ditugu.

## 943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.**  
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunak.

### 1/ ETXEBIZITZAK

#### 101. SALDU

**Antzuola.** Baserria salgai 5 hektareako lursailarekin (laborantza-lurrak eta pinudiak). Solairu bakoitzeko 250 m² (bi solairu). Ur eta elektrizitatearekin. Irimoi auzoan. Paisaia zoragarria eta errepide ona. 240.405 euro (prezioa adostu daiteke). 943 76 65 03 edo 943 76 62 98.

**Antzuola.** Sagasti auzoan 90 m²ko etxea salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela handia, sukalde, despentsa eta bi balkoi. Garajea aukeran. 617 00 37 30 edo 943 78 71 35.

**Aretxabaleta.** Bi etxebizitza batean, erdialdean. Batak 115 metro koadro, lau logela, sukaldia, egongela, jangela, bi komun eta igogailua dauzka. Besteak, 75 metro koadro, bi logela, sukaldia, egongela, jangela, bi komun eta igogailua. Biak batera doaz. 648 79 46 77.

**Aretxabaleta.** Bi solairuko etxebizitza salgai. 648 79 46 77.

**Arrasate.** 45 metro koadroko etxebizitza salgai. Agerre kalean, bi logela, sala, sukaldia eta komun, berritzea, dena kanpora begira. Trastelekua dauka. Deitu arratsaldeko seieta bit bederatzietara. 645 70 08 27 edo 665 72 92 88.

**Arrasate.** Duplexa salgai Otalora kalean. Bi logela, bi komun, sukaldia, egongela eta 20 metro koadroko terraza. Igogailua eta gas naturala. 696 79 43 89.

**Arrasate.** Erdialdean 48 m²ko apartamentua salgai, guztiz berritua. Igogailua eta berogailua. 645 73 04 69.

**Arrasate.** San Andresen, Arrasate dorrean etxebizitza salgai. Lau logela, egongela, bi komun, sukaldia eta bi balkoi ditu. Guztia kanpoaldera begira. 638 01 47 02.

**Arrasate.** San Josepe auzoan. 75m². Hiru logela, komun, sukaldia eta egongela. Igogailua eta berogailua. Trastelekua. Guztiz berritua. Telefonoa. 626 00 80 19.

**Arrasate.** Zerrajerka kalean 80 metro koadroko etxea salgai. Bi logela eta bi komun. Dena kanpoaldera begira. 656 77 94 32.

**Bergara.** Aranerrekan etxebizitza salgai. 75m², guztiz jantzita. Hiru logela, egongela, bi bainu-

gela, sukaldia, terraza, ganbarra eta berokuntza zentrala. 665 71 48 30.

**Bergara.** Artzamendi kalean. Hiru logela, bi komun, sukaldia eta egongela. Balkoia eta terraza. Igogailua. Kanpoaldera begira eta guztiz eraberritua. 18:00etatik aurrera deitu. 655 87 53 43.

**Bergara.** Duplex berria salgai (6 urte). Sukalde osatua, bi logela (beste bi egiteko aukera), bi bainugela, egongela-jangela handia, bi balkoi, terraza, gas naturala, igogailua. Garaje itxia aukeran. 699 49 14 14.

**Bergara.** Ibargarai kalean duplexa salgai. Lau logela, hiru bainugela, egongela, sukaldia, terraza bi. Jantzita. 685 75 62 51.

**Bergara.** Zabalotegin etxea salgai. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela. 653 70 84 04.

**Bergara.** Zubieta kalean 50 metro koadroko etxebizitza salgai. Fatxada eta teilatua berrituak ditu. 679 45 57 62.

**Donostia.** 74 m². Zurriolako hondartzatik bost minutura. 330.556 euro. Aukera aparta. 639 33 33 58.

**Donostia.** Egia auzoan. 55 m². Dekoradorea egindako erreforma integrala. 52.000.000 pezeta. Aukera aparta. 639 33 33 58.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai San Roke kalean. 105 m², laugarren solairua. Lau logela, bi komun, jangela, sukaldia eta trastelekua. Eguzkitsua. Erabat jantzita. 234.394 euro. 669 66 82 24 edo 657 77 67 91.

**Esitoriatza.** Erdigunean etxebizitza estreinatu gabea salgai. 80m². Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldia, berokuntza zentrala... 258.000 euro (prezio negoziagarria). 669 93 74 03.

**Esitoriatza.** Etxebizitza salgai Dorleta auzoan. 82 metro koadro. Lau logela, sukaldia-jangela, bainugela eta berogailua ditu. Fatxada berritua. Oso eguzkitsua da. 35.000.000. 645 97 45 64.

**Nafarroa.** Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratu. Berritua. 185.000 euro. 943 76 00 03.

**Osinbu.** Duplexa salgai. 42 m². Bi logela, egongela, bainugela bat eta sukaldia. 98.000 euro.

### ARETXABAleta

#### Zerbitzaria behar da kafetegia baterako.

635 73 27 74

Deitu ezazu telefono honetara: 665 71 48 30.

**Oñati.** 100 m²ko duplexa salgai Bidebarrietan, Errementari plazan. Sukaldia, bi bainugela, egongela, hiru logela eta egongela txiki bat. Garaje handia. 665 72 14 90.

**Oñati.** 116 m²ko duplexa salgai Kale Zaharrean. Hiru logela, sukaldia, bi komun, egongela, estudioa eta bi trasteleku. Erdi jantzita eta egoera onean. 348.000 euro. 616 84 39 32 edo 615 70 81 95.

**Oñati.** 70 m²ko etxebizitza berria salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldia ederra, komun, egongela argitsua eta trastelekua argi-patioan. Altxari berrieekin oso ongi jantzita. 270.500 euro. 652 70 12 49.

**Oñati.** Diseinuko duplexa salgai. 120 m². Kale Zaharrean. Argitsua eta material ederrek erekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

**Oñati.** Duplex berria salgai Kale Zaharrean. Prezio interesgarria. 661 68 11 24.

**Oñati.** Duplex zoragarria Kale Zaharrean. 110 metro koadro erabilgarri. Hobeto ikustea. Prezio ezin hobea: 358.000 Euro. 661 68 11 24.

**Oñati.** Duplexa salgai erdialdean. 105 m². Lau logela, bi komun, egongela eta sukaldia. 635 71 41 39.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Olakua auzoan. Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldia, trastelekua eta garaje itxia. Guztiz eraberritua. Telefonoa: 665 72 87 89 edo 657 72 25 70.

**Oñati.** Zubibarrri kalean eraikitzen ari diren etxean duplexa salgai 1. eta 2. solairuak. Hiru logela, bi bainugela, sukaldia, egongela handia, garajea eta trastelekua. Dena igogailuarekin lotuta. Eguzki energia termikoa. Deitu ezazu telefono honetara: 606 53 53 52.

### 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Logela bila nabil, otsailetik aurrera bizitzeko. Sara. 677 98 59 14.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Musakola auzoan. Etxea egoera onean

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 679 98 38 30.

**Arrasate.** Zigarrola auzoan etxea behar da alokatzeko, lehenbaiten. 653 71 64 79.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, bi edo hiru logelakoa. 617 88 20 93.

### 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Logela bila nabil, otsailetik aurrera bizitzeko. Sara. 677 98 59 14.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Musakola auzoan. Etxea egoera onean

### LANDA

#### Pertsona bat behar da asteburu eta jaiegunean sukaldian lan egiteko.

653 71 66 39

### BERGARA

#### Azpeitxi jatetxeak zerbitzaria behar du aste guztian zehar lan egiteko.

943 76 55 00

**Peñiscola.** Apartamentua salgai, lorategiarekin. Peñisnar Il urbanizazioan. 170.000 euro. Telefonoa: 948 41 00 79.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Bolun etxea alokagai. Sukaldia erabil daiteke. 8 euro eguneko. 670 85 86 68.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Ibargarain. Telefonoa: 675 70 17 63.

**Bergara.** Ibargarain etxea ematen da errentan. 675 70 17 63.

**Bergara.** Koldo Eleizalde kalean etxebizitza errentan ematen dit. Igogailua eta hiru logela. 652 71 34 15.

**Conil (Cadiz).** Aste Santurako eta udarako apartamentua alokagai. 656 77 94 32.

**Mar Menor.** Etxebizitza eroso ematen da errentan, udarako. Guztiz hornitua: hiru logela, aire girotua, eta hondartzatik 150 metrora. Hamabostaldia edo hilabetea. Udan. Telefonoa: 656 71 17 19.

**Oropesa del Mar.** Marina d'oren etxebizitza errentan ematen da. 685 75 62 51.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 679 98 38 30.

**Arrasate.** Zigarrola auzoan etxea behar da alokatzeko, lehenbaiten. 653 71 64 79.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, bi edo hiru logelakoa. 617 88 20 93.

### 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Logela bila nabil, otsailetik aurrera bizitzeko. Sara. 677 98 59 14.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Musakola auzoan. Etxea egoera onean

### 3/ LOKALAK

#### 301. SALDU

**Arrasate.** Lokala salgai Anboto

### ARRASATE

#### Ostalaritzako lokala errentan ematen da.

629 77 10 72

eta ondo kokatuta dago. Bero-kuntza indibidualarekin. 699 47 76 24.

**Arrasate.** Pertsona batendako lokala bila nabil. Mutil ardurasua. Miguel. 656 66 49 75.

**Bergara.** Logela alokatzen dit, sukaldia erabiltzeko aukerarekin. 15 edo 17 euro eguneko. 627 75 81 94.

**Gasteiz.** Neska behar dugu etxea osatzeko Gorbeia kalean. Bero-kuntza zentrala dauka. 300 euro gehi gastuak. 652 72 18 87.

### 2/ GARAJEAK

#### 201. SALDU

**Bergara.** Garajea salgai San Lorentzen. 659 63 19 86.

**Oñati.** Garaje itxia Olapoto auzoan. 17 m². 943 08 18 13 edo 677 42 57 94.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Iturrizuri kalean garaje bat errentan ematen da. Gaez deitu. 945 44 51 97.

**Bergara.** Bigaraje emango nituzke errentan San Antonion. 658 75 57 49.

**Bergara.** Garajea ematen dut errentan Ibargarai kalean. Oil-bondoan plazaren ondoan. 943 76 74 19.

**Bergara.** San Lorentzen garajea errentan ematen da. Gaez deitu. 943 76 18 01.

**Oñati.** Bidebarrietan garajea alokagai. 695 75 85 26.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan. 663 03 13 22.

### 205. BESTELAKOAK

**Bergara.** Motorra gordetzeko garajea konpartituko nuke Bolu aldean. Prezio merkea. Telefonoa: 628 67 01 73.

### 3/ LOKALAK

#### 301. SALDU

**Arrasate.** Lokala salgai Anboto

### ARETXABAleta

#### Laster zabalduko den tabernan zerbitzaria behar da.

656 73 54 49

kaleko 1. zenbakian. 61 m². 945 44 10 15 edo 656 73 34 84.

**Bergara.** Trastelekua salgai Ibargarai kalean. Neurriak: 5,80x1,80. Deitu 18:00etatik aurrera. Deitu ezazu telefono honetara: 678 43 31 07.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 80 metro koadroko lokala ematen dut errentan. Deitu ezazu telefono honetara: 645 00 80 55.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Neska koadrila batek lokala alokatu nahi du. 695 74 27 95.

**Oñati.** Lokala edo leihoko dituen garajea hartuko nuke errentan. Ur-hargunearekin. Telefonoa: 699 34 91 49.

### 4/ LANA

#### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar da etxe lanetarako. Egunerori edo ordu, astelehentik egubakotzera. 649 66 49 85.

### 402. ESKAERAK

**Antzuola.** Emakume autonomoa gertu atarreak garbitzeko, lokalak garbitzeko... Telefonoa: Deitu ezazu telefono honetara: 667 80 63 97.

**Arrasate.** Emakume eskalduna gertu haurrek zaintzeko. 667 87 99 16.

**Arrasate.** Emakume prest edozein lanetarako. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume prest garbiketa lanak egiteko: etxeak, tabernak edota elkarrekin. 676 55 15 46.

**Bergara.** Emakume gertu etxe lanak egin eta haurrek zaintzeko. 647 51 52 80.

**Bergara.** Neska eskalduna gertu umea eta nagusiak zaintzeko. Erizain laguntzaile titulua daukat, eta baita esperientzia ere. 625 19 08 63.

**Debagoiena.** Atariak, etxeak edo tabernak garbituko nituzke. Esperientziaduna. Telefonoa: 678 40 57 04.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua haurrek edo helduak zaintzeko prest. Baita garbitasun lanak egiteko ere. 695 74 05 54.

**Debagoiena.** Emakume bat orduka lan egiteko gertu, garbiketa lanak egin eta umeak nahiz nagusiak zaintzen. Gaean ere lan egingo nuke. 619 92 40 86.

**Debagoiena.** Emakume gertu etxeak, atariak edo tabernak garbitzeko. 678 40 57 04.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa edo beste lan batzuk egiteko. 678 40 57 04.

**Debagoiena.** Emakume prest nagusiak edo umeak zaintzeko. 663 65 78 43.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzke orduka. Telefonoa: 637 21 97 04.

**Debagoiena.** Mutil bat erakuntzan egingo luke lan. Esperientziarekin. 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Mutilla gertu edozein motatako lanak egiteko: tabernan, lantegietan, garbiketarako... Miguel. 656 66 49 75.

**Debagoiena.** Neska eskalduna gertu garbitasun lanak egiteko eta umeak zaintzeko. 609 00 50 94 edo 943 79 41 71.

**Debagoiena.** Neska gaztea edozein lanetarako prest goizez edo arratsalde. Lau orduz. Erdi mailako zikloa. Administrazioa kudeaketa. 690 70 91 46.

**Debagoiena.** Peoi lanak egingo nituzke: garbiketan, makinan mantentze-lanetan... Esperientzia daukat. 656 66 49 75.

**Debagoiena.** Zaharrak zainduko nituzke: geriatria ikastaroen eginda daukat. Sukaldari laguntzaile eta garbitzaile lanak ere egingo nituzke taberna edo etxeetan. 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Zaharrak zainduko nituzke: geriatria ikastaroen eginda daukat. Sukaldari laguntzaile eta garbitzaile lanak ere egingo nituzke taberna edo etxeetan. 666 21 88 95.

### 5/ IRAKASKUNTZA

#### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolara ematen ditut. 943 79 03 83.

**Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza.** Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1. eta 2. mailetakoko eskola partikularrek emango nituzke. 685 76 70 82.

**Arrasate.** Eskola partikularrek ematen ditut. Deitu ezazu telefono honetara: 630 71 35 83.

**Arrasate.** Ingelesko eskola partikularrek ematen ditut Arrasaten. Maila guztiak. Arratsalde deitu. 679 23 25 64.

### 6/ MOTORRA

#### 601. SALDU

**Audi 80 1.9 TD** salgai. 1993koa. Hainbat osagarri ditu. Oso egoera onean. Xabier. 652 73 83 20.

**C-Max autoa** salgai. Hagunak (llantak) eta aire-giogailua ditu. 50.000 km. Diesela. Beltza. 12.500 euro. 639 90 36 18.

**California Tdi** furgoneta. 102 ZP. 2001ekoa. 649 34 82 92.

**Derby Senda R 49 cc**-ko motorra salgai. 900 eurotan. 4.000km bakarrik eta egoera onean. 670 60 02 65.

**Ford Fiesta 1.4 Ghia** salgai. 130.000 kilometro. Kristal-jasogailu elektrikoa, itxia bateratua eta bestelakoak. Garajea gordetako. 760 euro. Telefonoa: 647 51 52 54.

**Honda CB 600** motorra salgai. 1998koa. Berri-berria. 25.000 km. 4.300 euro. 699 37 15 11.

**Kawasaki Versys** motorra salgai. 5.500 euro, neogizagarririk. Ariz. 687 78 58 47.

**Nissan Almera** salgai. 2.2 di 16v. Sport. 646 03 39 45.

**Renault Laguna.** Egoera onean dagoen 11 urteko Renault Laguna 1.9 TDI salgai. Salneurri interesgarria. 677 93 83 19.

**Renault Laguna** familiarra. Oso egoera onean. Motor berri-berria, eta bermearekin. 150 zaldi. Diesela. Aire giro



Oñatiko **Juanita Baños** eta Arrasateko **Gregorio Beitia** 1968ko urtarrilaren 13an ezkondu ziren Oñatin. Ezkonduta 40 urte bete dituzten honetan, zorionak, familia guztia- ren partetik. Beti bezain zorionsuak izan eta patxo handi bat, bikote!

### hildakoak

- **Isabel Beitia Isasmendi.** Aramaion. 80urte.
- **Ramona Untzueta Arantzabal.** Aramaion. 98urte.
- **Rosario Bujanda Gorritxo.** Oñatin, urtarrilaren 17an. 95 urte.
- **Juan Riera Perez.** Bergaran, urtarrilaren 17an. 58 urte.
- **Emilio Alberdi Zabaleta.** Bergaran, urtarrilaren 18an. 68 urte.
- **Jesusa Igartza Iturrino.** Aretxabaletan, urtarrilaren 19an. 77 urte.
- **Jose Mari Errasti Murgiondo.** Oñatin, urtarrilaren 19an. 62 urte.
- **Ignacio Argarate Agiriano.** Eskoriatzan, urtarrilaren 19an. 96 urte.
- **Jose Ignacio Lobato Gonzalez.** Arrasaten, urtarrilaren 21ean. 43 urte.
- **Tomas Lezeta Ugalde.** Antzuolan, urtarrilaren 22an. 86 urte.
- **Dionisio Txintxurreta Jauregi.** Oñatin, urtarrilaren 23an. 76 urte.
- **Begoña Barrita Elexpuru.** Bergaran, urtarrilaren 23an. 86 urte.

ESKELA

## Ramona Untzueta Aranzabal

Felix Elexpuren alarguna

Aramaion hil zen 2008ko urtarrilaren 24an, 98 urte zituela.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, egubakoitza, urtarrilak 25, 18:00etan, Aramaioiko San Martin elizan.

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.*



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

## Jose Maria Arejolaleiba Zabala

Oñatin hil zen 2008ko urtarrilaren 12an, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondrak zapatuan, urtarrilaren 26an, 19,30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.



Oñatin, 2008ko urtarrilaren 25ean.

III. URTEURRENA

## Maria Igartua Odriozola

Hirugarren urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 26an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Maria Luisa Zilaurren Galdos

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 26an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Juan Riera Perez

Bergaran hil zen 2008ko urtarrilaren 17an, 58 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

*Matxategiko ezkien azpiko paseo bakoitzean egongo zara lagun askoren bihotzean azken agurrean laguntzean.*



Bergaran, 2008ko urtarrilaren 25ean.

URTEURRENA

## Elena Galdos Berasategi

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 26an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Maria Julita Leza Carlos

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 27an, 12:50ean, Eskoriatzako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.


ESKER ONA

## Julian Mendizabal Beitia

'Uritte', Rafaela Unzueta alarguna

Aretxabaletan hil zen 2008ko urtarrilaren 16an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko Uritte sendiaren izenean.



Aretxabaletan, 2008ko urtarrilaren 25ean.

ESKER ONA

## Emilio Alberdi Zabaleta

'Elusu'

Bergaran hil zen 2008ko urtarrilaren 18an, 68 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko urtarrilaren 25ean.

ESKER ONA

## Inazio Argarate Agiriano

Bixenta Azkarateren alarguna

2008ko urtarrilaren 19an hil zen, 96 urte zituela.

*Bazoaz eta agur aita-aitajauna harrokeria gabeko gizon fededuna zure oroimenen da gelditzen zaiguna.*



Zure senideak. Arrasaten, 2008ko urtarrilaren 25ean.

## ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zator ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Aretxabaleta**: Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramalo**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22. **Eigeta**: Mariasun janari denda: Salbador 26. 943 76 81 90. **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **120 euro.**

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).**



Babeslea:

**OROILORE** Hileta eta Beilatoki zerbitzuak  
Amilaga auzoa 27. 20570 Bergara  
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 - Faxa.: 943 76 94 76  
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea

**OROILORE**  
Funeraria-Tanatorio  
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak


**bila-bila 7**



**hitz gezidunak**

	Bereizteko lerro	Utzi	Halere
	Andaluzia-ko hiria	Errepika	Tokiak
	* Irudiko urtaroa		
	Biba!		
Hobeto	Itxura ederreko		
Lodi	Arto irinez-ko opila		
		Bizkaieraz, omen	
		Zerga mota	
Lasai		Tik-..., erlojuaren hots	
Landare xeheak		Musika nota	
			Musika nota
Errep., fruitu mota		Katalanez, deus	Sufrea
Aiar		Potasioa	Röntgen
		Jardun	

**soluzioak**



Jeroglifikoak: lau tomate.

3	8	2	4	5	6	1	9	7
4	5	7	3	9	1	8	2	6
9	6	1	8	7	2	5	4	3
6	9	6	8	7	3	5	4	1
5	7	4	2	1	9	6	3	8
1	2	3	6	4	8	7	5	9
2	4	6	5	8	3	9	7	1
7	3	9	1	6	4	2	8	5
8	1	5	9	2	7	3	6	4



**sudokua**

	1			7				
	3		1					8
2							7	1
1				4	8			9
		4					6	
6			7	3				2
9	6							3
	5				1		2	
			4					9

**hieroglifoa**

Zer ekarri dozu entsaladarako ?



**hizki salda**

5 lanbide

I	O	T	S	O	G	O	D	R
A	B	N	D	A	I	A	R	I
U	A	N	I	G	R	U	T	I
T	T	A	A	T	A	K	B	T
A	I	D	Y	Z	E	I	U	E
K	N	K	T	A	B	D	X	L
O	I	O	E	N	I	E	E	H
B	R	M	T	O	T	M	R	A
A	B	A	D	E	A	B	I	D



**bono fotoa**



**Nola du izena argazkian ageri den auzoak?**

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta



Super BMk emandako  
**50 euroko erosketa-txartela**  
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....  
IZEN-DEITURAK .....  
TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

**Tres Coronas brandya**  
Litroko botila


**6,25 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Arrasateko TXARO PAGALDAIrendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!  
Galderaren erantzun zuzena: Irizar jauregian.





# EGIN TXOTX! sagardotegietan



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO  
945 44 53 85 / 605 70 64 51

- Sagardoa eta txakolina txotxetik.
- Postreetan aukera zabala.
- Ostegunetik igandera irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- Eserita. Jangela 100 lagunentzat.
- Bertako janaria.



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia  
HERNANI  
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta
- Astegunetan, gauean bakarrik zabalik
- Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- **“Tolare” sagardotegia**



## Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA  
943 85 32 50

- Egubakoitzak, zapatuak eta domekak zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- 55 lagunendako lekua



## Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA  
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- **“Tolare” sagardotegia**



## Rezola

Ipintza baserria / ASTIGARRAGA  
943 55 27 20 / 608 14 33 32  
rezolasagardotegia@euskalerrria.org

- Urte osoan zabalik.
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldeak itxita.
- **“Tolare” sagardotegia**



## Arratzain

Arratzain Zahar baserria  
Arratzain auzoa / USURBIL  
943 36 66 63

[www.agroturismoarratzain.com](http://www.agroturismoarratzain.com) • [info@agroturismoarratzain.com](mailto:info@agroturismoarratzain.com)

- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urtariletik maiatzera arte sagardotegia irekita
- Urte osoan erretegia
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik
- **“Tolare” sagardotegia**



## Begiristain

Iturriotz baserria / IKAZTEGIETA  
943 65 28 37  
[s.begiristain@terra.es](mailto:s.begiristain@terra.es)

- Urtariletik uztail bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik
- Afariak astelehenetik zapatara, bazkariak egunenetik zapatara
- Sagardotegiko menua
- Arkumea burduntzian enkarguz
- **“Tolare” sagardotegia**



## Añota

Elosiaga auzoa, 434 Urraki errepidea  
AZPEITIA  
943 81 20 92

- Urte osoa zabalik (oporrak Gabonetan)
- Bazkari eta afariak egunero
- 250 lagunentzako lekua
- Berezitasunak: zezina tortilla eta zezina arrautzeztatu
- Sagardo botilen salmenta
- **“Tolare” sagardotegia**



## Aulia

Aulia Enea baserria  
LEGORRETA  
943 80 60 66

- Abendutik maiatz bukaerara arte zabalik.
- Bertako janaria.
- 110 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- **“Tolare” sagardotegia**

Mirari Sagarzazu > Oñatiko bertso eskolako irakaslea

# "Niri jardutea gustatzen zait, eta prozesu horretan gauzak sortzea"

Arte Ederretako ikasketak amaitzen ari da Mirari Sagarzazu oñatiarra Leioako unibertsitatean.

Sormen handiko neska da hura, eta bide horretatik jarraituz, bertso irakaslea ere bada, bertso-

laritza ere sormena badelako. Bidaiatzea gogoko du, eta dagoeneko prestatzen ari da New Yor-

kera egingo duen bidaia. Bertsoan eta artean ez ezik, futbolearen ere ibilitakoa da.

JASONE ZABALA > OÑATI

Sormen handiko neska dugu Mirari Sagarzazu. Aurten amaituko ditu Arte Ederretako ikasketak Leioan. Oñatiko bertso eskolako irakaslea ere bada. Hala eta guztiz ere, lagunekin afari ederrak egiteko astia gelditzen zaio. Arteaz, bertso larritzaz eta beste gauza batzuetaz hitz egin dugu harekin.

**Sormen handiko neska zarela esan dezakegu?**

Sormen handia baino gehiago, langilea esango nuke. Niri jardutea gustatzen zait, eta jardutearen prozesu horretan gauzak sortzea.

**Zer moduz Bilbo aldean Arte Ederrek ikasten? Esperientzia ona izan da?**

Bai, etxetik kanpo bizi ahal izatea pertsona bezala hazteko egundoko esperientzia da. Ni 16 urterekin jada Eibarrera joan nintzen ikastera, eta geroztik aste guztia etxetik kanpora pasatzen dut, eta asteburuetan bueltatzen naiz etxera. Beti egiten baita gustura etxerako bidaia.

**Artista izatea familiatik dator-kizu?**



Artista izan naizenik ez dut uste, sortzailea bai, baina artista... askotxo esatea da. Gure etxean lau anai-arreba izanik, txikitatik izan dugu sormenaren baliabidea, bai jolasetarako eta baita opariak egiteko orduan ere. Horretan, amak paper garrantzitsua jokatu du. Hark transmititu digu zaletasun hori. Gaztea zela asko margotutakoa da gure ama.

**Beti izan zenuen argi Arte Ederrek ikasi nahi zenuela?**

Egia esan, beti gustatu izan zaizkit eskulanak, eta gauza berriak sortzea, baina karrera bezala Euskal Filologia, Filosofia edo Psikologia ere gustura egingo nituzke. Aukeratzeko garaian, ez nuen oso argi zer egin nahi nuen, baina ingurukoek nire etorkizuna nik baino argiago ikusten zuten eta... horrelaxe amaitu dut Arte Ederretan.

**Sortzearen munduari buruz hitz eginda, txikitik futbolaren eta bertsoen artean aukeratu behar izan zenuen, ezta?**

Bertso eskolan betidanik ibili naiz, baina 14 bat urte nituela futbolearen jokatzeko hasi nintzen Aloña Mendi futbol taldean. Egia esan, nahiko kaxkarrak nintzen, baina gogoan jartzen nuenn. Hala ere, batxilergoa kanpoan ikasi



J.Z.

PERTSONALA

**Herrria:** Oñati. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak:** Arte Ederretako 4. maila amaituko dut aurten. **Gogoko idazle bat?** Pako Aristi. **Une honetan irakurtzen ari zaren liburua?** Bai mundu berria, Aldous Huxley-rena. **Bizirik baduzu?** Lagunekin afariak egitea.

**Maniarik?** Gauzak azken momentura arte uztea. **Bidaiatzeko leku bat:** New York. **Bizitzeko toki bat:** Oñati. **Amets bat:** Egunero pozik bizitzea, inori kalterik egin gabe. **Film bat:** American History X. **Bertsolari bat:** Amets Arzallus.

nuenez, aste guztia etxetik kanpo ematen nuen, eta egubakoitz arratsaldeetan futbolaren edo bertsoen arteko aukeraketa egin behar izan nuen. Azkenean, bertsoan gelditu nintzen, gaurdaino.

**Artean, zein da zure erreferentzia edo ispilu?**

Erreferente zehatzik ez dut, baina aldi berean guztietatik pixka bat hartzen ibiltzen naiz. Bakoitzaren estilo eta problematiketatik dakidan apurra nire filitrotik pasatu eta zer edo zer egingen saiatzen naiz.

**Bertso eskolaren urteurrena ospatzeko kamisetetako logoa zuk egin duzu, ezta?**

Bai, aurten Oñatiko bertso eskolaren 25. urteurrena da, eta beste zenbait ekitaldiren artean kamiseta eta metxeroak salgai jarri ditugu. Gainera, umeen bertso irakaslea ere banaiz.

**Bertsoekin jarraituz, bertso txapelketaren batean parte hartutakoa zara...**

Horiek txikitako abenturak dira. Behin kasualitatez, 12 urterekin, bertso eskolan ari ginen lau lagun, Gipuzkoako eskolarteko finalerako sailkatu ginen, baina orduetik denbora asko pasatu da, eta ez naiz bertso txapelketetan kantari ibili.

**Badakigu bidaiatzea ere gogoko duzula; ba al duzu norabait joateko asmorik?**

Planak izan badituzt, gauzatuko diren edo ez beste kontu bat da. Hasiera baten, Aste Santu aldera New Yorkera joan nahiko nuke. Anaia orain da joatekoa, eta, aukera aprobetxatuz, bisita laburra egin nahiko nioke. Baita Holanda aldean dagoen lagun bati ere. Bestalde, udaberri aldera, pare bat erakusketa egiteko nabil Valladoliden, eta handik bueltak ibiliko naiz. Oraindik guztia lotu gabe dagoen arren, suerte apur batekin lanpetuta ibiliko naiz.

**Behin karrera amaituta, zeintzuk dira etorkizunerako asmoak?**

Behin baino gehiagotan egin diot galdera hori nire buruari, eta oraindik argi ez dudana arren, begira ari naiz IGZ-a (Irakasle Gaitasun Ziurtagiria) egin, doktoretza, masterren bat... oraindik ez dut oso argi, baina, gaur egun gauzak nola dauden ikusita, urte batzuetan ikasten jarraitu gura nuke.

# Mondragon Unibertsitateko Blogak

Azken eguneratzea: 2008. urt.

<p><b>Profesor 2.0 ...</b> David Sanchez-k idatzita, "Mondragon Unibertsitatea 2.0" blogan</p> <p><b>La UOC es un referente de todo lo que tenga que ver con el uso de las nuevas tecnologías de la información en la docencia universitaria. Por eso he leído con atención un artículo publicado por tres profesores de esta universidad con el título El profesor 2.0: docencia e investigación desde la red. La hipótesis principal del artículo es que las herramientas Web 2.0 (como por ejemplo Blogs y ... [Irakurri gehiago]</b> 2008. urtarrilak 21, 13:18</p>	<p><b>Erosi baino, harpidetu</b> joxe-k idatzita, "Faroa" blogan</p> <p>Aurrekoan, irakurri nion Saul Hansell kazetariari esaten zentzutasunari eutsiko badiogu, gaur egungo kontsumitzaileok pentsatu behar dugula teknologia digitalaz harpidetza zerbitzu bat biltzen, eta ez produktu sorta bat: "Aspalditxo, erosten zenuen idazmakina bat, telebista bat edo argazki kamera bat, eta irau zezaketen hamarkadak. Ordenagailuak, oster, bestelakoak izan dira. Behin PC bat ... [Irakurri gehiago]" 2008. urtarrilak 22, 06:50</p>	<p><b>Ha</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Consul en red</li> <li>• El blog pragmático</li> <li>• Faroa (</li> <li>• Mondr. Uniber</li> <li>• Mugarik inform</li> <li>• Relación clientes CRM (E</li> <li>• Teknol</li> <li>• el mun (E)</li> <li>• ¿Como desapa</li> </ul>
<p><b>Tendencias y visualización</b> Julen-k idatzita, "Consultoría artesana en red" blogan</p> <p>Si el año pasado fue el metro de Londres el que inspiró el mapa de tendencias 2007+ -y su quizá incluso más difundida derivación de tendencias web- para este año 2008 Ross Dawson y compañía han tomado la referencia del metro de Shangai. Así que esta vez sólo presentan cinco ejes en el Tren Blend 2008+ (pincha en la imagen de arriba para acceder al ... [Irakurri gehiago]" 2008. urtarrilak 22, 05:55</p>	<p><b>Las Benevolas ...</b> David Sanchez-k idatzita, "¿Como haremos para desaparecer?" blogan</p> <p>Acabo de terminar Las Benevolas de Jonathan Littell (el tipo de la foto) y tengo que decir que me ha parecido una pasada de libro. Es un libro de unas 1.000 páginas ambientado en la Segunda Guerra Mundial, narrado desde el punto de vista de un oficial de las SS. El libro es cruel hasta decir basta y además te hace sentir que si hubieras estado en la piel del protagonista hubieras cometido las ... [Irakurri gehiago]" 2008. urtarrilak 08, 08:40</p>	
<p><b>Planeta de blogs de MU ...</b> Iarenaza-k idatzita, "El blog de un pragmático" blogan</p> <p>Aunque ya lleva algunas semanas en marcha, hasta hace unos días no hemos terminado de pulirlo y dejarlo como le gustaba a David. La idea es sindicarlo allí los últimos envíos de los blogs de gente de la universidad (tanto trabajadores como alumnos),</p>	<p><b>MAC Book Air: Munduko PC eramangarrikerik meheena</b> Aitor-k idatzita, "Mugarik gabeko informatika" blogan</p> <p>Steve Jobs delakoak, bere ordenadore berria erakutsi du, sobre batetik atera ostean, Macbook Air. Itxura hau dauka ordenadoreak:</p>	

BLOGAK Mondragon Unibertsitateko Blogak plataforman dagoeneko zortzi blog sortu dituzte.

GOIENKARIA

INTERNET ETA UNIBERTSITATEA > MU 2.0

## Software sozialaren erronkari MUK emandako erantzuna

Web 2.0ren baliabideak erabilia, unibertsitatean lehen urratsak eman nahi dituzte, edukiak eta ikasleekiko harremanak beste modu batean kudeatzeko asmoz

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE**  
Blog plataformak bat, blog batzaille bat, wiki plataformak bat eta talde bat Facebook komunitatean sortu berri ditu Mondragon Unibertsitateak. Software sozialaren bitartez, Web 2.0ren baliabideak erabilia, hasi da unibertsitatea lehen urratsak egiten edukiak eta ikasleekiko harremanak beste modu batean kudeatzeko.

**BLOGAK**  
Mondragon Unibertsitateko Blogak da blog plataformak berriaren izena, WordPress plataforman oinarritua. Egileek azaldu dute, "software librean eginda dagoenez, plataformak sendoa da eta oso erabilia blogariaren artean". Dagoeneko zortzi blog sortu dira plataforman horretan.

MU 2.0 Mondragon Unibertsitateko Blogak da Mondragon Unibertsitatearen blogen bloga. Bertan, modu automatikoan jasotzen dira MUKren blogetan argitaratutako artikulak. PlanetPlanet softwarea erabili da blog hori egiteko.

**WIKIA ETA LANTALDEA**  
Bestalde, aurrerantzean MUK edozeinek, ikasle zein langile, eska dezake DekiWiki softwarearekin egindako wiki bat sortzea Mondragon Unibertsitatearen

wiki plataforman. Dagoeneko ikerkuntza talde batek ireki du Obea izeneko wiki.

Facebook komunitatean lantalde bat ere sortu dute, MU 2.0 Mondragon Unibertsitatea izenekoa. Hamabi lagunek osatu dute taldea, guztia Mondragon Unibertsitateko irakasleak. Eurek aztertuko dute zer atera daitekeen sare sozialak erabilia.

**EGILEAK**  
Mondragon Unibertsitateko bi irakasle sortu dituzte lau baliabideok: Iñaki Arenazak eta David Sanchezek. Arenazak Informatika irakasten du Goi Eskola Politeknikoan, eta Huheziko Zerbitzu Teknikoetan laguntzen du. Proiektu horretan arlo teknikoaz arduratuko da. Sanchez Informazio Sistemen Kudeaketa irakaslea da Enpresa Zientzien Fakultatean, eta kudeaketaz arduratzen da.

### teknologia berriak

#### > ORDENAGAILU ERAMANGARRIA Apple etxeak inoizko ordenagailu eramangarrikerik finena kaleratu berri du

Mac Book Air ordenagailu eramangarri berriarekin konkistatu nahi du Apple etxeak eskuko ordenagailu erabat arinen merkatua.

Besteak beste, orain artekoak baino txikiagoa den Intel Core Duo prozesatzailea du; bost orduz jarraian erabiltzeko bateriak; retroargizatutako teklatua eta multitouch funtzioa ditu, leihoak pantaila mugitzea errazten duena.

Salneurria: 1.649 euro oinarritzko konfigurazioarekin; 2.798 euro flash memoriarekin.



Alde mehenean 0,4 cm ditu eta 1,9 cm lodienean; 1,38 kilogramoko pisua du eta aluminiozkoa da guztiz.

#### > ARGAZKILARITZA Canon EOS 450D, 12 megapixel eta hiru hazbeteko pantaila duen Canon enpresaren DSRL berria

Canon enpresa japoniarrak argazki kamera berria aurkeztu du asteon.

Canon EOS 450D modelo berriak 12,2 megapixeletako bereizmena du eta, hiru hazbeteko LiveView pantaila. Bateriaren autonomia hobetu egin dute, orain 500 argazki ateratzeko gai da. Nabarmen-tzeko da menuak pertsonaliza-tu egin daitezkeela.

Gorputzaren salneurria 750 eurotakoa da eta apiriletik aurrera eskuragarri egongo da.



Gorputzak EOS 400D modeloa baino pisu gutxiago du.

#### > IRUDI DIGITALA Kalitate oneko bideo-betaurreko modernoak egin ditu Carl Zeiss etxe alemaniarrak

Goazen tokira goazela iPod-etako filmak, kontsoletako bideo-jokoak, DVD irakurgailuak eta MP4ak ikusteko 45"-ko pantaila eramangarria da Cinemizer. Argazki lenteak egiten dituen Carl Zeiss Alemaniako etxeak betaurrekoak egin ditu, eta bi metroko distantziaz ikusitako 45"-ko telebista pantaila emulatzeko du. Haririk gabe konektatzen da eta seinalea zuzenean bideratzen du begietara. Miopia edo astigmatismo zein begietako arazoak dituztenek ere erabil ditzakete, betaurreko edo lentillarik gabe.



Diseinu modernodun betaurrekoak otsaila eta martxoan bitartean hasiko dira saltzen Alemanian, gero munduan.

## Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn  
/aiastui  
/arantxa  
/aretxargi  
/argi-plastik  
/arregi  
/atai  
/azkarate  
/bastida  
/briz-aseguruak  
/BZ-sistemas  
/bolusukaldeak  
/denetik

/dragon-oriental  
/dukiena  
/ego  
/eguzkigraf  
/ekilore  
/ekin  
/elejalde  
/ezkutuorly  
/galgorri  
/gallastegi  
/ganesha  
/garaia  
/gertu  
/gorkataxi

/gorla  
/gurea  
/guztizeder  
/hamaikataberna  
/itxaseder  
/irudisport  
/ixaun  
/izeder  
/jcracing  
/lamaino-etxeberrri  
/lorelan  
/korozabaleta  
/kizkur  
/markiegi

/maulanda  
/mayte  
/merkeopari  
/multiopticas  
/ohiak  
/ogizun  
/okipark  
/optico  
/otzeta  
/pando  
/lorelan  
/korozabaleta  
/kizkur  
/markiegi

/udalax  
/udalaitz  
/urdeki  
/ugartearotza  
/urbietza  
/urko  
/vitoria  
/zaindiz  
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com  
www.amgautoak.com  
www.baster-aldejetetxea.com  
www.ehmf.com  
www.gelatzu.com  
www.goikobenta.com  
www.haurtxoa.com  
www.kizkur.com  
www.klorofila.com  
www.landaluze.com  
www.lilura.com  
www.toldoslete.com  
www.uxarte.net  
www.biark.net



## berriak

&gt; JAIK

**Goiena Telebistak aurkezleak behar ditu 'Jaiak' saiorako**

Goiena Telebista saioak aurkezteko aurpegi berrien bila dabil. Hau da, aurkezleak behar ditu. Beraz, telebista-mundua gertutik ezagutu nahi baduzu, zure ikasketekin lotutako lana bilatu nahi baduzu, edota esperientzia behar baduzu, aprobeixatu aukera hau.

Gogoratu, bada, GOITBk aurkezleak behar dituela; interesik baduzu, dei ezazu: 943 25 05 05 edo 688 690 003.

&gt; 'ZU KAZETARI'

**Arrasateko Aratusteen gaineko grabazioa 'Zu kazetari' saioan**

Aratustek edo Inauteriak gainean ditugula eta, Arrasateko Inauteriak bultzatzeko egindako grabazio bat eskainiko dute *Zu kazetari* saioan, datorren eguaztenean, 21:47an.

Horrez gain, saio berean, iazko Aratustean Goiena Telebistak Aretxabaletako Inauterien gainean egindako erreportajea ere eskainiko da. Gogoratu, hori guztia datorren eguaztenean, 21:47an.

&gt; ARRASATE IRRATIA

**Ekonomia kontuak astelehenean 'Igo Euriborrera!' saioan**

Ekonomia kontuak lantzen dituen *Igo Euriborrera!* irratsaioak bigarren kapitulu izango du datorren astelehenean, hilaren 28an. Aitor Izagirre eta Ainhoa Zenigaonaindia ekonomialari arrasatearrek pertsona fisikoak gaineko zerga eta banketxe-etan 900 euro pasatxo zela eskuratu azalduko dituzte, besteak beste, astelehenean. Hitzordua: 11:30etik 12:00ak bitartean, 107.7an.

&gt; ARRASATE IRRATIA

**Sexologia kontuak eta Inauteriak, besteak beste, datorren astean**

Zapatuan eta martitzenean ospatuko dituzte Inauteriak Arrasaten. Udalak egitarau zabala prestatu du eta herri-talde bat jai horiek indartu nahian dabil. Hori guztia islatuko du herriko irratia datorren astean. Horrez gain, eta hamabosteroko hitzorduekin bat eginez, sexologia kontuak protagonista izango dira eguenean, hilaren 31n. 11:30ean hasiko da Garibai etxeko zerbitzuei dagokien tarte hori.

'ILUNPEAN' &gt; EGUBAKOITZA, 22:15

**Juan Carlos Perez musikaria gaur 'Ilunpean' saioan**

Itoiz taldeko abeslari eta musikari ezaguna da Juan Carlos Perez; mutrikuarra sortzez, egun Azkoitian bizi da



JUAN CARLOS PEREZ GOIENKARIArako ateratako argazkian. IKER BARANDIARAN

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Juan Carlos Perez musikaria ezaguna da Euskal Herrian, erreferente izan den Itoiz taldeko abeslari egindako lanagatik. Bere betiko pop estiloari jarraituz, bakarkako ibilbideari heldu zion duela urte batzuk; izan ere, Itoiz desegin arren ez du inoiz musika alboratu. Gaur egunera arte musika du lanbide Juan Carlos Perezek. Pop, rock, musika klasiko eta garaikide piezak konposatzen ditu. Ez ditu elkarriketak asko maite, baina Iker Barandiaranek *Ilunpean* saioan izan du hura elkarriketatzen aukera.

'ERREPORTAJEA' &gt; ASTELEHENA, 20:15

**Oñatiko bertso eskolaren gaineko erreportajea egingo du Goiena Telebistak**

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Dakizuen moduan, iaz Goiena Telebistak hamabostean behin eskaintzen zituen erreportaje saioak oraingo urtean astelehenero eskaintzeko apustua egin du. Julen Iriondo izango da lan hori egiteaz arduratuko dena,

eta datorren asterako, Oñatiko bertso eskolaren gaineko erreportajea prestatu du. Oñatiko bertso eskolak 25 urte beteko ditu aurten, eta, hori aitzakia hartuta, Julen Iriondok bertso eskolak nola ematen diren eta orain arte Oñatiko eskolak izan

duen bilakaera nolakoa izan den erakutsiko dizue. Gainera, bertso eskolan hasieran izan zirenekin ere egongo da.

Oñatiko bertso eskola 1983. urtean sortu zen, Joxe Mari Agirrebengoak bultzatuta, eta Udalen laguntzarekin. Orduz geroztik asko aldatu dira gauzak, baina egun, gazte ugari ari dira eskolan, bertso munduari eta Oñatiko bertso eskolari bultzada emanaz.

Esan bezala, bada, datorren astelehenean, 20:15ean eskainiko dute GOITBn Oñatiko bertso eskolaren gaineko erreportajea.

## telegi

Leire Kortabarría

## (Ir)realitatea telebistan

**D**onostian izan ginen aste bukaeran, aspaldiko ikusmina asetzera; Donostia oso gustuko izanda, hango jai handia ikusi gura genuen, eta giroaz bertatik bertara gozatu. Primeran ibili ginen. Hori bai; zer pentsatua eman zidan, telebistaz eta errealitatean zein desberdin ikusten –eta bizi izaten– diren gauzak. Futbol partidu bat, adibidez, behar bezala ikusteko, telebistatik ikus ezazu: ikuspuntu garbia, gertuko planoak, errepikapenak, esatariaren argibideak... Gauza bera gertatzen da beste edozein gertakari jendetsurekin.

Donostian, une batean, Bulebarreko taberna batera sartu ginen, eta jendez lepo zegoen, denak telebistaz handik metro batzuetara ziharduena danborradari begira, zeharo hunkituta, dantzaka eta kantuan. Eta akordatu nintzen, gero, neuk telebistan ikusi izan nuenekoez, eta ze desberdina iruditzen zitzaidan orain; ia-ia, bi gauza desberdin. Telebistak apaindu egiten du errealitatea; baina, beraz, faltatu ere bai. Estetika aldetik, telebista garaile; berotasun, hunkigarritasun eta emozio aldetik, errealitatea neuk aukeran.

## arrasate irrátia

FM 107.7

**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratua.  
*Ilunpean* saioan, Antxon Olariaga marrazkilaria, *Kantakasaioan*; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta kontuak, besteak beste) *Zaharrak Berri* saioan, eta beste.

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenean eguaztenera**

10:00-12:00 Igo Autobusera  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Ilunpean  
Teknoberriak  
Igo Euriborrera!  
Kantaka  
Zaharrak Berri  
Astearen errepasoa  
Zozketak  
Zorion agurrak  
(parte hartzeko: 943 25 05 05  
(irratia@goiena.com))  
11:55 Arrasateko albistekak, labur.  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo Autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

**GOITBko programazioa****Egubakoitza, 25**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Animalia. 14:45 Albiste aurreapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albistek. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Udazken koloreak. 18:45 Albistek. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Errereportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gertutik. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

**Zapatua, 26**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Gertutik 13:00 Eltze beroa 13:30 Errereportajea. 14:00 Berbaire. 14:30 Errepor-tpiti ttapa. 15:00 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Udazken koloreak. 19:30 Klip@. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Berbaire. 21:00 Animalia. 21:30 Errereportajea ttipi ttapa. 22:00 Errereportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.

**Domeka, 27**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Berbaire. 13:00 Ikusten. 13:30 Jazmina. 14:00 Animalia. 14:30 Eltze beroa. 15:00 Musikantoi. 15:30 Errereportajea. 14:00 Ilunpean. 14:30 Errepor ttipi ttapa. 15:00 Ur eta lur. 15:30 Eltze beroa. 16:00 Gertutik. 16:30 Marrazki bizidunak. 19:00 Jazz gauak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur 20:30 Errereportajea ttipi ttapa. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Gertutik. 22:45 Errereportajea. 23:15 Teknopolis. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

**Astelehena, 28**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Errereportajea-Ttipi Ttapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Berbaire. 16:15 Berbaire. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ikusmira. 18:15 Ikusten. 18:45 Berriak. 19:15 Gertutik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmaillatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Errereportajea. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmaillatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 28 Klipa. 00:15 Emisio amaiera.

**Martitzena, 29**


13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Errereportajea. 14:15 Harmaillatik. 14:45 Berriak. 15:15 Gertutik. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klipa. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Animalia. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Errereportajea. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguaztana, 30**


13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze berioa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animalia. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Harmaillatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Ikusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Zu kazetari. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguena, 31**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 Zu kazetari. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animalia. 16:17 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Harmaillatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Errereportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.



# Jatetxe Gida



## Azkoagaenea

Gaztañadui 4 / ESKORIATZA  
943 71 45 66 [www.hotelazkoagaenea.com](http://www.hotelazkoagaenea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Enpresa menua
- Etxera eramateko platerak
- Kafetegia terrazarekin
- Dastatzeko menua



## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA  
943 76 55 00

### Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

### Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.**



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABAleta  
943 79 24 58 [www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 86

### Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

### Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Etxe aundi

Torre auzo 9 / OÑATI  
943 78 19 56 [www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Torrekua

Ibargarai 37 / BERGARA  
943 76 50 99

### Eskaintza

- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

### Berezitasunak

- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

### Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE  
943 79 12 50 / 943 77 15 62

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI  
943 78 35 45

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

### Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**

# Urtarrilak 25-31

LEIRE KORTABARRIA  
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

## Kontzertua



SORALUZE

### > Debagoieneko musika eskolek kontzertua egingo dute Soraluzean

Bergara, Arrasate, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Soraluzeko musika eskoletako taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitzan, Soraluzeako kiroldegiko frontoian, 18:30ean. Harizko, metalezko, dantza, rock... taldeak egongo dira.

## Antzerkia



ARRASATE

### > 'Txitxarra eta Iñurria' antzezlan egingo du Markeliñe taldeak

*Txitxarra eta Iñurria* alegia (fabula) ezagunetan oinarritutako antzezlan egingo du Markeliñe taldeak Arrasaten, bihar, zapatua, Amaian, 17:00etan. Antzezlaneko txitxarrek ez du janaririk gorde udan, eta neguan, goseak dago.

## Ikus-entzunezkoa



BERGARA

### > Eskoziako biraren inguruko ikus-entzunezkoa emango du Mahaster Riverrek

Mahaster River taldeak ikus-entzunezkoa egin du, iaz, udan, Eskozian egindako biraren inguruan. Mikel Calvo bergararrak egin du. Emanaldia gaur, egubakoitzan, izango da, gaztetxean, 22:15ean; gero, kontzertua egingo dute.

meza (11:00), patata-tortilla txapelketa (12:00), mus txapelketa (16:00) eta txokolate-jana (18:00); eta etzi, domeka, meza (11:00), eta dantza eta herrikirol erakustaldiak; segidan, salda eta txorizo-jana.

Gaur, egubakoitzan, da egun handia.

BERGARA

### > Hartzaren eguna ospatuko dute San Martin eskolakoek

Eguen Gizenan, hilak 31, Hartzaren eguna ospatuko dute San Martin herri eskolako ikasle eta irakasleek. Horrela, antzinako ohitura bat berreskuratuko dute: Eguen Gizen arratsaldetan, San Martin Agirre plazan, aurrekuak dantzatzeko ziren, kukumarro edo mozorrotuak tartuko.

Eguenean, hilak 31, eskolako patioan, 10:45-11:15.

ESKORIATZA

### > Urdelardero eguna ospatuko dute datorren egunean

Aratusteen atarian, urtero bezala, Eguen Gizen egunean, Urdelardero eguna ospatuko dute herriko umeek. Goizean, kalejira egingo dute, baserritar jantzita eta ziriak eskuetan, euskal kanta tradizionalak kantatzen. 11:30ean, bukatutakoan, txistorra-jana egingo dute plazan. 17:00etan, Kiki, Koko eta Moko pailazoekin umeendako jaialdia egingo da, plazan hori ere; eguraldi txarra egingez gero, pilotalekuan izango da. Segidan, txokolatea banatuko dute.

Eguenean, urtarrilak 31.

## Bestelakoak

BERGARA

### > Kromo eta jostailu azoka egingo dute San Martinekoek

San Martin Herri Eskolako kromo eta jostailu azoka antolatu du etzirako, domeka, 11:30ean. Herriar guztiak daude gonbidatuta.

Eskolako patioan izango da.

ARRASATE

### > 'Historia zinemaren bidez' jardunaldien emanaldia

Hurrengo emanaldia martitzenean, hilak 29, izango da, eta *La Kermesse heroica* filma ikusiko dute. Alberto Angulo adituak azalpen batzuk emango ditu.

Kulturaren izango da, 18:00etatik 21:00etara. Euskaraz izango da hitzaldia.

DEBAGOIENA

### > 'Neguko gida' kaleratu dute udal liburutegiek

Udal liburutegiek eta Mankomunitateak *Neguko gida* prestatu dute. Ia 90 dokumentu gomendatzen dituzte.

Debagoieneko liburutegietan dago gida hartzeko aukera.0

## Antzerkia

ESKORIATZA

### > Umeendako ipuin kontaketa eta antzezlan izango dira

*Erleen tribua* delako ipuin kontaketa eta antzezlan izango dira bihar, zapatua, Tortolis ludotekan.

11:00etatik 13:00etara izango da.

ARETXABALETA

### > Pirritx eta Porrotxek emanaldia egingo dute bihar, zapatua

Pirritx eta Porrotx pailazoen eta Mari Mototsek *Eskerrik asko!* ikuskizuna egingo dute. Mari Mototsek minbizia dauka, eta ilea erori egiten zaio; berriz irten bitartean, koloretako zapia janzten du buruan, eta piratetan jolasten du Joxe piratarekin.

Bihar, zapatua, kirol etxean, 17:00etan. Sarrerak, 5 eurotan leihatilan.

## Erakusketak

BERGARA

### > Emakumeen eskulanen erakusketak dago Aroztegin

Bergarako Emakumeen Kultura Elkarteak egindako eskulanen ikusteko aukera dago Aroztegi aretoan. Hilaren 27ra arte egongo da ikusteko modua.

Orduetgia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan, 12:00-14:00.

ARRASATE

### > 'Txotxongiloaren artea' erakusketa dago kultura etxean

Corrado Masacci italiarrak sortu eta batutako lanen erakusketa, *Txotxongiloaren artea*, dago Kulturaren. Txotxongiloaren artegintzaren historia errepasa daiteke. Etzi, domeka, da bisitatzeko azken eguna.

Zabalik dago egunero, 17:30-20:30.

ELGETA

### > Gemma Silbanen margolan erakusketa Espaloian

Gemma Silban margolari zaraiztarrak margolanak ipini ditu ikusgai Espaloian.

Urtarril osoan dago zabalik.

OÑATI

### > 'Hondakinak, amesgaiztorik ez!' delako erakusketak dago

Hondakinen gainean kontzientziatzeko asmoz, erakusketak ibiltaria antolatu du Mankomunitateak.

Kontsumoaren eta hondakin sorreraren arteko lotura eta horrek sortzen dituen ingurumen, gizarte eta ekonomia arazoak, hondakinak tratatzeko azpiegiturak zelatan funtzionatzeko duten... horiek eta beste gai batzuk lantzen ditu.

Kultura etxean, otsailaren 3ra arte, egunero, 18:30-20:30.

## Musika

ARRASATE

### > Gose taldeak disko berriko abestiak joko ditu

Gose triki-musika elektronikotako talde arrasatearrak kontzertua egingo du, eta disko zuriko abestiak joko ditu, batez ere. Ti2nok ere joko du.

Gaur, egubakoitzan, 23:00etan.

ARRASATE

### > Disko-jartzaile batek emanaldia egingo du 3.60an

Alain (elektronikako) disko-jartzaileak giroituko du gaua Arrasateko 3.60 aretoan.

Bihar, zapatua, 03:00etan.

ANTZUOLA

### > Kontzertua egingo dute txistulariek eta beste bi taldek

Antzuolako Txistulari Taldeak eta Abesbatzak eta Bergarako Bandako Boskotekak

kontzertua egingo dute etzi, domeka. Honako piezak joko dituzte: *La montañesa* (M. Turrillas), *La pilindros* (S. Cervantes), *Adan eta Eba* (F. Corto), *Oriako sorgin-dantza* (herrikoia), *Monjardin* (A. Olazaran), *Bagare* (B. Kapanaga-G. Mendibil), *Maitetxu mia* (F. Alonso), *Goizeko izarra* (R. Sarriegi) eta *Anaitasuna* (S. L. de Gereño).

Udaletxeko areto nagusian, 12:30ean.

## Jaiak

BERGARA

### > San Paulo jaiak ospatuko dituzte Ubera auzoan

Honako ekintzak izango dituzte: gaur, egubakoitzan, meza (11:00) eta salda eta txorizo-jana, segidan; gauean, bakailao-jana, soinu-joleek lagunduta; bihar, zapatua,

## PROPOSAMENA

ARETXABALETA

### > Aratusteei ongietorria emateko jai egingo dute bihar

Atxabaltako Karnabalen Lagunek, Udaleko Kultura Sailaren laguntzarekin, Txapel Txin eguna antolatu dute biharko, zapatua, jendeari jakinarazteko Aratustean datozela. Hitzordu nagusia 18:30ean da: kirol etxe aurrean batuko dira denok, nor bere txapelarekin –edozeinek balio du–, eta kalejira egingo dute *Txapel Txin* abestiaren erritmora. 20:00etan, pregoia eta Aratuste-jana izango dira.

Kalejirarako musua margotzeko aukera egingo da, 19:00etan.



nire aukera



Jose Ignacio Beloki  
Pilota entrenatzailea  
Leintz Gatzaga

### "Gustura egiten dut kiroletan lan"

Aste bukaeretan, Esko-riatzako kiroldegian lan egiten dut: sarrerak saldu eta kantxak gertatu. Aste barruan, tailerrear lan egiten dut, eta, astean barrena, egubakoitz eta domeka arratsaldeak bakarrik ditut libre. Eguazten arratsaldeen, bestalde, umeak entzaintzen ditut, 8-12 urte bitartekoak, benjamin eta alebin mailetakoak, alegia.

Denbora libre laburra uzten didan arren, gustuko dut kiroletan ibiltzea; izan ere, ni neu pilotan ibili nintzen umetatik; eta, bestalde, kiroldegiko lanak ez du ahal-egin fisikorik eskatzen.

### Egubakoitz eta domeka arratsaldeen, zer egiten duzu gustura?

Egubakoitzean, 13:30 arte egiten dugu lan; hortaz, kafetxo-eta hartzen dut arratsaldean. Domeketan, Gasteizera joaten naiz sarri, autobusez, saskibalo partidua ikustera.

### Kiroldegian lanean zaudenean, partiduak ikusteko ere aprobetxatzen duzu?

Bai; areto-futbol eta saskibalo partiduak egoten dira, eta ikusten ditut. Zazpi edo zortzi bat talde ibiltzen dira.

### Debagoieneko kirol taldeak jarraitzen dituzu?

Orain, ez asko; lehen, aspaldi, bai, UDA-eta jarraitzen nituen. Baina Gatzagan pilota ikusten dut, telebistan ere.

### Zein duzu, bada, pilotari gustukoena?

Asko gustatzen zaizkit: Olaizola, Irujo... baina gustukoena Barriola da.

### Bestelako zaletasunik baduzu?

Ez dut aparteko zaletasunik, kirola izan ezik. Inoiz Gasteizera joaten naiz, baina Gatzagan ere pozik egoten naiz.

### Oporretan ere Gatzagan geratzen zara?

Ez, kanpora joaten gara: Asturiasera, 8-10 bat egun pasatzera, adibidez.

# Zinema

## ARAMAIO KULTURA ETXEA

Beethoven  
Domeka: 17:00.

## ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

American gangster  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

La brújula dorada  
Domeka: 17:00.

## BERGARA AGORROSIN

Piratas del Caribe:  
en el fin del mundo  
Zapata eta domeka: 16:30  
eta 19:30.

## GAZTETXEA

El verano de Kikujiro  
Domeka: 18:00.

## ELGETA ESPALOA ANTZOKIA

Balto, ordezko hegoak  
Domeka: 17:30.

El truco final  
Eguaztena: 21:30.

## OÑATI KULTURA ETXEA

La búsqueda 2  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapata: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

Alvin y las ardillas  
Zapata: 17:00.  
Domeka: 17:00.

Zodiac  
Eguena: 20:00.

## EIBAR UNZAGA

Mr. Magorium  
y su tienda mágica  
Zapata eta domeka: 17:00.

Deseo, peligro  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapata eta domeka: 19:30,  
22:15.  
Astelehena, martitzena eta  
eguztzena: 19:30, 22:15.

## GASTEIZ GURIDI

American gangster  
22:00.

Mortadelo y Filemón 2  
Egubakoitza: 17:00, 20:00,  
22:30.  
Zapata eta domeka: 17:00,  
19:45, 22:30.

Los crímenes de Oxford  
17:30, 20:00, 22:30.

El amor en los tiempos  
del cólera  
17:00, 19:45, 22:30.

OSS 117, El Cairo,  
nido de espías  
18:45, 20:40, 22:35.

Hacia rutas salvajes  
18:00, 21:00.

Michael Clayton  
17:00, 19:30.

Expiación  
17:30, 20:00, 22:30.

Alvin y las ardillas  
17:00.

## FLORIDA-GURIDI

Estrella ausente  
17:30, 20:00, 22:30.

En el valle de Elah  
17:30, 20:00, 22:30.

Caramel  
18:00, 20:15, 22:30.

4 meses, 3 semanas  
y 2 días  
17:30, 20:00, 22:30.

This is England  
20:00.

El prado de las estrellas  
17:30, 22:30.

Mal gesto  
18:00, 20:15, 22:30.

Savage Grace  
18:00, 20:15, 22:30.

## YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Alien vs. Predator 2  
12:15, 16:30, 18:30, 20:30,  
22:30, 00:30.

Los crímenes de Oxford  
12:15, 16:00, 18:10, 20:20,  
22:30, 00:40.

La sombra del cazador  
20:20, 22:20, 00:20.

American gangster  
12:15, 15:40, 17:15, 18:30,  
20:15, 21:45, 23:45.

Mortadelo y Filemón 2  
12:15, 16:00, 17:00, 18:00,  
19:00, 20:00, 21:00, 22:00,  
23:00, 00:00, 00:50.

Mimzy, más allá de la  
imaginación  
12:15, 16:05, 18:05.

Soy leyenda  
12:15, 16:20, 18:25, 20:30,  
22:35, 00:40.

El amor en los tiempos  
del cólera  
19:40, 22:10, 00:40.

Alvin y las ardillas  
12:15, 16:20, 18:20.

La brújula dorada  
12:15, 15:45, 18:00.

El arca de Noé  
12:15, 15:50, 17:50.

Promesas del este  
20:15, 22:15, 00:15.

Michael Clayton  
20:15, 22:30, 00:45.

El orfanato  
20:05, 22:05, 00:05.

Encantada  
12:15, 15:40, 17:40.

Las 13 rosas  
19:45, 22:10, 00:35.

Bee movie  
12:15, 16:15, 18:15.

La búsqueda 2  
12:15, 16:15, 18:45, 21:45,  
00:15.

Mr. Magorium  
y su tienda mágica  
12:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz  
eta zapatuan.  
Eguerdiko saioak, domekan.  
Astelehena, ikuslearen eguna  
(jaiegunak izan ezik).

## ÁBACO BOULEVARD

Alien vs. Predator 2  
16:00, 18:05, 20:20, 22:25,  
00:30.

Expiación  
16:30, 19:15, 22:15, 01:00.

Mortadelo y Filemón 2  
16:15, 17:00, 18:20, 19:30,  
20:30, 22:15, 22:40, 01:00.

Mimzy, más allá de la  
imaginación  
22:10.

American gangster  
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Los crímenes de Oxford  
15:50, 18:10, 20:30, 22:45,  
01:00.

Soy leyenda  
16:10, 18:20, 20:30, 22:40,  
00:45.

El amor en tiempos  
del cólera  
16:20, 19:10, 22:00, 00:45.

La criatura perfecta  
16:15, 18:15, 20:20, 22:20.

La búsqueda 2  
17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

Alvin y las ardillas  
16:00, 18:00, 20:00.

Bee movie  
16:15, 18:15.

El orfanato  
20:20, 22:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz  
eta zapatuan.  
Eguerdiko saioak, domekan.  
Eguaztena, ikuslearen eguna.



## Expiación \*\*\*\*

Zuzendaria: Joe Wright.

Aktoreak: Keira Knightley, James  
McAvoy, Saoirse Ronan, Vanessa  
Redgrave.  
AEB, 2007.  
123 min.

Expiación film literario bat dela esan daiteke, eta ez bakarrik Ian McEwan idazlearen bereko eleberririko ospetsuan oinarritzen delako. Izan ere, kontatzen zaigun istorioan eta berau kontatzeko moduan, literaturak pisu nabarmena du.

Filmaren hasieran idazmakina baten soinua eta makinak idazten dituen hizkiak ikusteko aukera izango dugu. Horrela, hasieratik aditzera ematen zaigu idazteko ahalmenaren garrantzia, bai literatura sormenaren bidez, bai gutunen bidez. Gutunek zerikusi handia dute istorioan sortzen diren gaizki-ulerku tragikoetan, eta istorioa kontatzeko erabiltzen den egituraren bukaeran ulertuko dugun bezala, literaturak zerikusi handia du.

Expiación-ek irudimenaren alde sortzaile eta alde suntsitzaileari buruz oso modu originalean hitz egiten digu. Isla horiek oso ondo bateratuak daude istorioaren barnean, eta istorioari oraindik sakontasun handiagoa ematen diote.

Filma melodrama malenkoniatsu eta zirrargarria da. Neska gazte batek gertakizun batzuen interpretazio okerra egingo du (guk, ikusle gisa, neskak ikusten duena eta gero ikusi ez duena jakingo dugu) eta, horren ondorioz, II. Mundu Gerra garaian kokaturiko istorio erromantiko baten jarraipena egingo dugu.

Joe Wright zuzendariak oso esku ona du eszena bakoitzari behar duen tonua emateko –tonu kezkarria, erromantikoa, sentzuala, tragikoa...– eta pertsonaien sentimenduei hurbiltzeko –aktore guztien lan bikainari esker lortzen da hori.

Film horrek Oscar sarietarako zazpi izendapen lortu ditu, tartean, film onenaren sarirako izendapena.

Antonio Zabala

Eskasa: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

### En el valle de Elah \*\*\*

AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Haggis. Aktoreak: Tommy Lee Jones, Charlize Theron, Jason Patric.

121 min. 13 urtetik gorakoendako. Iraken gudari egon eta etxean ematen duen lehenengo aste bukaeran, Mike Deerfield desagertu egiten da, eta baimenik gabe joan izana leporatzen diote.

### Caramel

Frantzia-Libano, 2007. Zuzendaria: Nadine Labaki. Aktoreak: Nadine Labaki, Yasmine Al Masri.

96 min. Guztiendako. Beiruten, bost emakume edertasun zentro baten batzen dira. Euren istorioen berri izango dugu: Layalek Rabih maite du, baina Rabih ezkontuta dago; Nisrine musulmana da, eta ezkontzera doa, baina dagoeneko ez da birjina.

### Los crímenes de Oxford \*\*\*

Espainia, 2007. Zuzendaria: Alex de la Iglesia. Aktoreak: John Hurt, Elijah Wood, Leonor Watling.

110 min. 13 urtetik gorakoendako. Emakume edadeteru bat hilda agertzen da Oxfordeko bere etxean. Bi gizona topatzen dute gorpua: bat Arthur Saldom Logika irakaslea da, eta bestea, Martin, ikasle iritsiberria.

### La criatura perfecta

Erresuma Batua-Zelanda Berria, 2006. Zuzendaria: Glenn Standring. Aktoreak: Dougray Scott, Saffron Burrows, Leo Gregory.

90 min. 13 urtetik gorakoendako. Orain hiru mende, gurean antzeko mundu baten, alkimista batek genetika-

ren sekretuak aurkitu zituen, baina gai-xotasun larri batzuk piztu zituen. Horrez gain, gizaki arraza berri bat ere sortu zen, botere handiko gizakiak.

### Mortadelo y Filemón. Misión: salvar la Tierra

Espainia, 2008. Zuzendaria: Miguel Bardem. Aktoreak: Eduard Soto, Pepe Viyuela, Berta Ojea.

Guztiendako. Inoizko lehorte larriena du Lurra. Horrekin batera, gaizkile talde bat ur erreserba guztiak gastatzen ari da. Munduko agente sekretu onenak batzartu egiten dira zer egin erabakitzeko, baina Botijola gaizkileak batzarra zapuztu nahiko du.

### Soy leyenda \*\*\*

AEB, 2007. Zuzendaria: Francis Lawrence. Aktoreak: Will Smith, Alice Braga, Dash Mihok.

103 min. 13 urtetik gorakoendako. Robert Neville zientzialariak ezin izan du birus beldurgarri bat geldiarazi. Orain, Neville da New York hirian bizirik dirauen gizaki bakarra; behar bada, mundu osoan ere bai...

### La búsqueda 2 \*

AEB, 2007. Zuzendaria: Jon Turteltaub. Aktoreak: Ed Harris, Helen Mirren, Nicolas Cage.

128 min. Guztiendako. Ben Gates alxor-bilatzailea da, eta abentura harrigarri baten sartuko da, historiako pasarte ezezagunak eta alxor ezkutak tartean daudela. Abraham Lincoln-en hiltzaile John Wilkes Booth-en egunerokoa da abenturaren hasiera.

### La brújula dorada \*\*

AEB, 2007. Zuzendaria: Chris Weitz. Aktoreak: Eva Green, Nicole Kidman, Ian McShane, Daniel Craig.

115 min. 7 urtetik gorakoendako. Gizakien arimek animalien itxura hartzen duten mundu baten, 12 urteko neska bat aro berri baten hasieran egongo da...

### El truco final \*\*\*\*

AEB-Erresuma Batua, 2006. Zuzendaria: Christopher Nolan.

Aktoreak: Hugh Jackman, Christian Bale, Michael Caine. 128 min. 13 urtetik gorakoendako. Londres, XIX. mende amaiera. Bi mago gaztek famatu izateko ametsa dute. Bat, Robert Angier, sofistikatua eta artista jaioa da; bestea, Alfred Borden, sormen handiko genioa da. Bien artean, lehia bizia sortuko da.

### El verano de Kikujiro \*\*\*\*

Japonia, 2000. Zuzendaria: Takeshi Kitano. Aktoreak: Takeshi Kitano, Kayoko Kishimoto, Kazuko Yoshiyuki. 120 min. 13 urtetik gorakoendako. Gangster batek ume bat amarengana eraman beharko du autoz. Bidaia horrek balioko du, itxuraz, bihotz gogorreko gizon horren izaera ezagutzeko. Film surrealista eta komikoa da.

### Expiación \*\*\*\*

AEB-Erresuma Batua, 2008. Zuzend.: Joe Wright. Aktoreak: Keira Knightley, Benedict Cumberbatch. 123 min. 13 urtetik gorakoendako. Briony Tallis 13 urteko idazleahizpa nagusiaren mailaleari zerikusirik izan ez zuen krimen bat leporatzen dio.

### Piratas del Caribe: en el fin del mundo \*\*

AEB, 2007. Zuzendaria: Gore Verbinski. Aktoreak: Johnny Depp, Orlando Bloom, Keira Knightley. 168 min. Guztiendako. Lord Cutler Beckett-ek mendeand du Holandar Ibilateria itsasontzia, eta mendekugosea zuen kapitaina, Davy Jones. Orain, Holandar Ibilateria itsasoz itsaso dabil, itsasontzi piratak deusezten.

### XXY \*\*\*

Argentina-Espainia-Frantzia, 2007. Zuzendaria: Lucia Puenzo. Aktoreak: Ricardo Darín, Inés Efrón. 91 min. 13 urtetik gorakoendako. Alex 15 urteko neska da eta sekretu bat dauka. Jai eta gutxira, gurusoak Pirapolis inguruko txabola batera joan ziren bizi izatera. Halako baten, Buenos Airestik bikote bat dator, Alvaro seme gaztearekin. Alex eta Alvaro erakarpena sentituko dute.

### Deseo, peligro \*\*\*\*\*

Txina-AEB, 2007. Zuzendaria: Ang Lee. Aktoreak: Tony Leung, Tang Wei, Joan Chen.

157 min. 18 urtetik gorakoendako. Neska bat, bintar unibertsitateko ikaslea, antzerki talde batekin parte hartzen hasten da.

### Bee movie \*\*\*

AEB, 2007. Zuzendaria: Steve Hickner eta Simon J. Smith. 90 min. Guztiendako. Erle batek ikasketak bukatu berri ditu, baina lusuioa gaitzen du lanbide aukera bakarra duela jakiterakoan: ezitia egitea, alegia.

# Dantzarien omenaldi xumea

**OMENALDIA** Aratusteetako domekan egingo zaie omenaldia Gervasio Legorburu eta Karmele San Sebastiani

**DANTZAK** Azken urteetan Antzuolan dantzaren alde egindako lanagatik omenduko dituzte

**DANTZAK BERRESKURATU** Hainbat dantza berreskuratu dituzte bi omenduek; sorgin-dantza, esaterako

**ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA**  
"Dantzen alde egindako lana eskertu gura diegu", azaldu dute Antzuolako Oinarin dantza taldeko kideek otsailaren 3an egingo duten omenaldia dela eta.

Gervasio Legorburu eta Karmele San Sebastian omenduko dituzte otsailaren 3an, domekan, Antzuolako plazan. Azken 35 urteetan Antzuolako dantzen alde egindako lanaren ordaina izango da. Izan ere, urte mordoa pasa da Legorburu eta San Sebastian dantza eskolak ematen hasi zirenetik. "Hasiara batean, Purita Zabalo eta Bitoriano Etxaniz ere hasi ziren", gogoratu dute Legorburu eta San Sebastianek.

**BERRESKURATUTAKO DANTZAK**  
Dantzak erakusteaz gain, dantza horien nondik norakoak ere aztertu dituzte bi omenduek. "Aratusteetako sorgin-dantza berreskuratu zuten, adibidez", gaineratu dute Oinarin taldekoek. "Antzuolako Aratusteetako ohiturak ere berreskuratu dituzte; tximinoa, hartza eta hezitzaileak, besteak beste. Baita ere maki-la-txiki eta handi-dantza, arku-dantza eta zinta-dantza", diote dantzako kideek.

70eko hamarkadako lehen urteetan herri mailan egindako lanaz gain, bailara mailan egindako lana ere eskertu gura diote dantza taldekoek.

**GUSTURA EGINDAKO LANA**  
"Dantza gure herriaren kulturaren zati bat da. Orain arte egindakoa aurrerantzean ez dadila galdu", erantzun dute bi omenduek euren iritziz dantza zer den galdetuta.

Gervasio Legorburu eta Karmele San Sebastian pozik daude jasoko duten omenaldiarekin; baina "ez dakit merezi ote dugun", gaineratu du San Sebastianek. "Guk gura izan dugulako egin dugu lan dantzaren inguruan, inork behartu gabe", esan dute. Duda barik, pozik daude dantza taldeko gazteak eurekin gogoratu direlako. Aratuste-domekan plazan izango dira, "urtero bezala!", diote biek.



OMENDUAK Karmele San Sebastian eta Gervasio Legorburu.

IRATI AGIRREAZALDEGI

## ahobero

"Ez nekien Realera edo Irakeko gerrara nentorren; aurrean ez nuen inor ikusten... baina ingurukoei begiratzea ahaztu zitzaidan"

**Pako Aiestaran >** Realeko aholkulari ohia

Hilabete ere ez du iraun Aiestaranek karguan. Badiolak konfiantzazko pertsona bati egin dio huts; zer ez die egingo besteei?

## iturri onetik

**Erramu-zapatuan taloak egiteko ardura Jardun euskara elkarteak izango du**

Bergarako Udalak egindako proposamena izan da; eta, Jardun euskara elkarteak baiezkota eman du. Martxoaren 15ean ospatuko den Erramu-zapatuko ferian, Jardun euskara elkarteak izango du taloak egiteko ardura. Oraindik zehazteko dago non jarriko duten postua. Gainera, Jardunekoek AEKren laguntza izango dute. 20 laguneko taldea ibiliko da taloak egiten Erramu-zapatuan.

## piperrautsa

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

### Zer daukagun

**A**maginarreba hil zait berriki. Berrogeita zortzi ordu laburretan igaro da osasuntsu egotetik herioren lurraldera. Bi egun nahikoa izan dira, ordea, heriotzaren trantzea ondo pasatzeko Debagoienean zer daukagun ezagutzeko. Asko eta ona.

Lehenik, anbulantzia. Azkar etorri ziren eta primeran maneiatu ospitaleraino. Behin han, erizain eta laguntzaileak adeitsu, medikuak adi eta zintzo, ia beti euskaraz, gaixoari bezala guri. Ezinbesteko heriotza etorri artean, dena izan da profesionala eta hurbilekoa. Baita gero ere, San Felipe sartu denean. Galderak zehatz eta gauzak erraz egin dituzte, berezko saminari zamarik erantsi gabe. Tanatorioa eta erraustegia ere, eskura eta ondo.

Ondo ekipatuta gaude, heriotzarako behintzat.

## ai, ene!



**Laserrarekin apuntatu behar den iratzargailua**

Behin iratzargailua jotzen hasten denean, ohetik jaiki eta, laserrarekin dianaren erdian jo behar da aparatua isil dadin.

<http://www.nopuedocreer.com>



*Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatza S.L.**

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51